

# Goienkaria

2008ko urriaren 24a > Egubakoitza > VIII. urtea > 350. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Pakito Arriaran oso militantea eta internazionalista zen; ideiak garbi zituen"

Miren Odriozola  
Pakito Arriaranen  
neskalaguna > 09



**G2a**

Huheziko bi ikasle, Indian, Bollywood-en > 43

**ARETXABALETA**  
Udaletxeko balkoia eta pankarta margo gorritz zikindu dituzte > 32

**UDALEN FINANTZAKETA**  
Ibarrak 36,6 milioi jasoko du Foru Aldunditik, uste baino gutxiago > 05

**KIROLA**  
Maila goreneko xakelariak, VIII. Arrasate Hiria txapelketan > 40-41

## Arrasateko Kirol Eguna, gehigarrian

GOIENKARIArekin batera, zortzi orriko gehigarria biharko ekitaldiari buruz.



MEMORIA HISTORIKOA > 1936KO GERRA

## Fusilatuendako, udalen babesak eskatu dute haien senideek

**SALAKETAK** Fusilatuen eskubideak bermatzeko salaketak ipiniko dituzte, eta Udalen laguntza behar dute

**EGIA** Zer gertatu zen eta hilketen egileak zeintzuk izan ziren argitu nahi dute familiek eta Intxorta 1937 elkarteak

**FRANCO, ALKATE** Herri batzuetan Francok ohorezko alkate izaten jarraitzen duela salatu dute > 06


EKONOMIA > ENPRESAK

## Natrak, sei milioiko inbertsioa

Oñatiko Natra-Zahor lantegian sei milioi euro inbertitu ditu Natra taldeak azken bi urteotan. Helburua izan da makinak berritzea eta ikerketa lanak egitea. Ahalegin horren lehenengo emaitza produktu berri bat da: Vital-Crusty barratxoa. > 07

## Ordu aldaketa

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu!



DEIALDIA Bailarako EAJ, EA eta Aralarreko ordezkariak -Ezker Batuaren babesarekin ere-, zapatuko ekimenera deitzen.

MIREIA BIKUÑA

## Legutiora joateko deia egin dute EAJ, EA, Ezker Batua eta Aralarrek

Debagoieneko EAJ, EA, Aralar eta Ezker Batua alderdiek -nahiz eta azken horietakoek ekitaldian ez ziren egon- bat egin dute, bihar, zapatua, *Hitza hitz* lelopean, hainbat herritan egingo diren ekintzetan parte hartzeko. Horien helburua da lehenda-

kariak biharko deitu nahi zuen galdeketa-ri babesak ematea. Debagoieneko hainbat ordezkari batu ziren martitzenean, eta Legutiora joateko deia egin zuten; han, *Era-bakia* hitza osatuko dute. Autobusak antolatuta dituzte alderdi horiek. > 05

## AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarrizketa > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-42
- Kultura > 44
- Sailkatuak > 46
- Gazteak > 50
- Telebista-Irratia > 51
- Berri-zakua > 52
- Eskelak > 53
- Non-zer > 54-55

**OMU KERAMIKAK**

zeramika  
bainuak  
eraikuntzarako materiala

BILTEGIA/BULEGOAK  
Meatzerreka 6 • Arrasate  
943 79 14 28 • Faxa: 943 79 40 43

ERAKUSKETA  
Ignacio Zuloaga 4 • Arrasate  
943 79 07 20

Koltxoi dendak **bede**

12 HILABETE INTERESIK GABE


2. unitatea DOAN\*

%50 ehungiztan\*


Zarugalde 25  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 18 35  
Arrizuri 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 25 91

\* Dendan kontsulta ezazu






**01. ALUD-OLDE** Etxebizitzek oihal beteko paisajista izango dute, antzinako herri-gunea zabal ikustea ahalbidetzen duela. Bulegoak, lokalak eta etxeak ditu, besteak beste.




**02. ATERPE** Zuloaren erdian espazio handia dago aisialdirako. Gune hori inguratuz, oinalde bat kokatzen da behealdean, ekipamenduekin eta bestelako eraikuntzekin.



**03. BIDEBERDE** Herriaren espirtu industriala eta herritzailera aprobetxatuz, erronka industrial berria planteatzen dute: eraikuntzaren aurre-fabrikazioa.




**04. KRISALIDA** Industria berritzaileak eta etxebizitzak nahasten ditu. Azoka, lan mota berritzaileak garatzeko guneak eta erakusketa gunea aurreikusten du horrek.




**05. CROCHET** Anfiteatroa, enpresa txikien eta ikerketa gunea, kiroldegia eta merkataritza gune handiak izango lituzke. Azken horretan, Ikea saltokia San Josepen ezartzea gura du.




**06. EKO-AMARAUN** Azpiegitura eta zerbitzu ezberdinak aurreikusten ditu. Esaterako, eliza, komisaria, ospitalea, lorategi botanikoa eta hondakinen birziklatzea izango ditu.



**07. EKO-HARROBIA** Proiektu horrek lan mota berriak garatzeko gunea izateaz gain, bisitarien zentroa, ikerketa zentroa eta saltokiak ditu, besteak beste.



**08. ESKUA** Hiri ekosistema bat planteatzen du. Hormetatik igotzen diren lau dorretan etxeak doaz eta parekoan, bulegoak. Teleferikoa ere bada. Esku baten itxura du.



**09. FELS** Egitasmo honen bitxikerien artean, kooperatibismoaren gaineko museoa eta bertako produktuen azoka daude. Dantza gunea eta anfiteatroa ere baditu.

HIRIGINTZA > SAN JOSEPE IDEIA LEHIAKETA

# Zein proiektu duzu gustukoaren? Eman bozka Kulturaten

**IKUSMINA** Urriaren 14an erakusketa zabaldu zenetik ehunka lagun pasa dira handik; aste bukaeran arrasatear asko izan zen Kulturateko klaustroan

**AZAROAREN 9A** Hamasei urtetik gorako arrasatearrek gustuko duten proiektuaren aldeko botoa eman dezakete, azaroaren 9a baino lehen

**ASKOTARIKO IRITZIAK** Lanak ikusi dituztenen artean, askotariko iritziak daude; San Josepe zegoenetan uztea nahi duenik ere bada

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Ikusmin handia sortu du egunotan Arrasateko San Josepe harrobirako ideia lehiaketak. Urriaren 14tik gune horretarako aurkeztu diren proposamen gaineko erakusketa zabaldu zenetik, ehunka arrasatear pasa dira Kulturate-

ko klaustrotik eta kalean ere normalean da egitasmoen gaineko iritziak ematen dituzten herritarrek topatzea.

Jakina denez, guztira, 26 proposamen aurkeztu dira. Hirigintza saileko buru Juan Antonio Urdangarin pozik dago egitasmo-

ak izandako harrerarekin. Harrobiaren zuloa betetzeko Udalak deitu duen lehiaketa "mundu osora" ireki dela azpimarratu du. Euskal Herrikoak, Kataluniakoak, Madrilgoak, Frantziakoak, Italiakoak eta AEBtik ere proiektu bat heldu dira.

Askotariko egitasmoak badaude ere, elementu komuna dute euren artean: ikusgarriak direla. Gehienek etxebizitzak eta bulegoak, aisialdirako edo kirola egiteko guneak, merkataritza guneak eta inguru berdeak dituzte. Horretaz aparte, unibertsitatea, ospitalea, eli-

za edo hotelak egitea ere aurreikusten dute egitasmo batzuek.

Urdangarinek lehiaketaren nondik norakoak azaldu ditu. Bi fasetan dago banatuta. Lehenengoa, bost finalistak aukeratu behar dira. Horretan dihardute orain. Epaimahaiak lau proiektu aukeratu dituzte eta bosgarrenaren izea arrasatearrek erabakiko dute. Azken horiek Kulturateko klaustroan eman dezakete botoa azaroaren 9a baino lehen. Erakusketa irekita dago martitzenetik domekara, 17:30etik 20:30era.

Epaimahaitik eta herritarren botoetatik finalera iristen diren proiektuen arduradunek, ondoren, horiek landu eta sakondu beharko dituzte, epaimahaiak berriro azter dezaten eta irabazlea izendatu dezaten.

**88.000 EUROKO SARIA**

Sariak ederrak dira. Irabazleak 88.000 euro jasoko ditu eta bigarrenak, berriz, 12.000 euro. Urdangarinek gogorarazi gura izan du, horren harira, litekeena dela irabazten duen proiektua ez gauzatea: "Oinarrietan hori argi geratu zen. Lehiaketa irabazten duenak bere saria izango du baina erabakiak Udalak hartuko ditu etorkizunean, askatasun osoz".

Irabazlea aukeratzekoan, epaimahaiak garrantzi handia emango dio bideragarritasunari. "Elementu garrantzitsua da hori

(4. orrialdean jarraitzen du)






**10. FRISCH** Luzerako bandetan antolatzen dituzte eraikinak. Erabilera mistoa dute horiek: etxebizitzak, bulegoak eta askotariko ekipamenduak batera.




**11. GEODA** Kooperatibismoan eta Euskal Herriaren "edertasunean" oinarritu dira. Eraikinak kuboak dira. Bitxiak izango balira bezala eginak daude. Beirari garrantzia ematen diote.




**12. HARAT HONAT** Pasealeku handi batek azpiegiturak lotzen ditu. Horrek etxebizitza bioklimatikoak, merkataritza gunea, bulegoak eta kultura zentroak lotzen ditu.




**13. HARRIZATE** Eraikinen energiaren beharra gutxitu nahi dute. Horietan unibertsitateko ikasleendako egoitza, energia berriztagarrien zentroa eta etxebizitza babestuak doaz.



**14. INBIOU** Unibertsitate erabilpenerako gunea antolatzea proposatzen du. Horrek 630 aparkaleku inguru, auditorioa, jantokia eta ikasleendako 141 etxe ditu.



**15. KAIKU** Gazteendako auzo berria eraikitzea du helburu, iraunkortasunean eta berriztapenean oinarrituz. Parke handi baten inguruan antolatuko litzateke.



**16. KISKY** Zerbitzu esanguratsuenen artean, BTT ibilbidea eta pilotalekuak daude. 25 metroko garaiera duen plataforma batek Kurtzetxiki mendiaren mailak lotzen ditu.



**17. KO** Kareharri Oinarria du izena. Irudian ikusten den moduan, ur azalera handiak ditu. Mediateka, ludoteka, kirol pistak eta medio berrien zentroa izango ditu.



**18. NIDIER** Energiaren hiria eraikitzea planteatzen du horrek. Etxebizitzan eta bestelako zerbitzuen artean, paretetan, energia berria sortzeko dorreak ditu.

HERRITARREN IRITZIA

EPAIMAHAIA



Jose Ramon Gaztañaga

"Oso proiektu politak daude. Diru aldetik, baina, ez dakit zelakoak izango diren. Gehienak ez dira bideragarriak, proiektuak eta horiek mantentzea garestiak direlako. Asko gustatu zait *Kisky* egitasmoa, mantenua txikiagoa dela ematen du-eta".



Mari Mar Bedia

"Harrituta nago. Inork ez du proposatu hondarrekin zuloa betetzea. Guztiek etxeak, parkea eta beste azpiegiturak egin gura dituzte. Inori ez zaio bururatu, ordea, lehen zegoen bezala uztea ez, ezinezkoa delako; baina, antzera uztea. Ekologikoa da".



Jose Mari Irizar

"Ez naiz gauza ordu batean guztiak behar bezala ikusteko eta, hortaz, beste egun batean lasaiago etorri beharko naiz. Dena behar bezala ikusi ondoren, ziurrenik bozkatu egingo dut. *Suelo* izeneko proiektua gustatu zait, baina esandakoa, lasaiago ikusi behar dut".




Amaia Gomez de Segura

"Ikusi dudana ez zait larregi gustatu. Bateren bat bideragarria izan daiteke, baina herri batendako larregi dela iruditu zait. Gainera, herritarrei zuzenduta dagoen erakusketa bada ere, panelak nahiko ulergaitzak dira; bereziki, jende nagusiarendako".

Herritarrak, adituak eta udal ordezkariak

Epaimahaian hemeretzi pertsona daude guztira. Tartean, Udaletik, Ino Galparsoro alkatea, Hirigintza saileko buru Juan Antonio Urdangarin, obretako zuzendari Izaro Agirre, Ingurumen saileko Rafa Ugarte eta Ekiñe Egiguren arkitektoa daude. Proiektua bultzatu duten herritarrak ere badaude, hala nola, Jose Maria Eraña, Iñaki Azkoaga, Pedro Mendieta eta Aitor Orobengoa. Horren harira, herritar talde batek Udalera jo zuten horrelako lehiaketa aurrera atera zezan Udalak, eta honek baietza eman zion ekimenari.

**ION** ZORUAK LEIHOAK ATEAK HORMA ARMAIRUAK  
leihoak




**ARRASATE**  
Telleria kalea 4 · Pab. 11  
Tel.: 943 79 11 35  
Aramaioko bidea  
(Markulete Ind. inguruan)

**GASTEIZ**  
Ologibel 51  
Tel.: 945 26 71 73







**19. OIHAN** Baso flotatzaileak estaltzen du zuloa. Horrek golf zelaia, parke gastronomikoa, diskoteka, ospitalea, tranbia eta funikularra ditu.



**20. OIKOPOLIS** Besteak beste, hondartzak, ur-jauzia eta palmondo basoa izatea planteatzen du. Etxebizitzak, bulegoak eta unibertsitatea ez dira falta.



**21. RE-GENERACION** Auzo berria eratzea aurreikusten du. Energia berritzaileak erabiliko dira. Kanpoko azala harrizkoa izango da eta gainazaletik hainbat bide egongo dira.




**22. SUELO** San Josepe gunearen eraldaketa, berkalifikazio plan zabalago batean sartzea proposatzen dute, herri-gunetik AP-1 autobidera. Hiria bulebar baten bidez sortuko da.




**25. UNIVERSAL** Eraikinak ardatz zentral baten inguruan daude. Eguzki panelek, eurien ur bilaketek eta egur teknikoz eta osagarri birziklatuez eginiko erakinek osatzen dute.



**23. TOPOGRAFIA** Harrobiaren ingurunea berreskuratzea bilatzen du egitasmo horrek parke berdearen, plazaren eta erakinen bidez.



**24. TRONERA** Sei dorre handi ditu Tronera izeneko planak. Horietan, besteak beste, San Andres auzoko osasun etxea, zaharren egoitza, enpresak eta etxeak daude.



**26. ZAURIA** Bide batek lotzen ditu beheko partea eta goialdean dagoen San Josepe ermita. Bidean, etxeak, bulegoak, zinea, liburutegia, azokak eta kultura zentrua daude.

(2. orrialdetik dator) eta oinarrietan ere eskatu da proiektuak bideragarriak izan daitezela".

Udalak denbora du oraindik San Josepe harrobiko zuloarekin zer egin erabakitzeko. Urdangarinek, horren harira, azaldu du

urte bukaerarako leherketa gutziakin amaitu eta otsailaren amaierarako gunea txukun utzi beharko dutela. Hirigintza saile-

ko buruaren esanetan, "hormigoi planta geratuko da han". Noiz beteko dute zulo hori? Ideiak, behintzat, ez dira falta.

PROZEDURA

> **BI FASE**

Lehiaketak bi fase ditu. Lehenengoan bost proiektu aukeratuko dira eta bigarrean, proiektu horiek landu eta sakondu beharko dituzte. Jarraian, epaimahaiak horiek aztertu eta irabazlea izendatuko du. Udala, hala ere, ez dago derrigortuta irabazle irteten den proiektua egitera.

> **FINALISTEN AUKERAKETA**

Epaimahaiak lau proiektu aukeratu ditu eta herritarrek bosgarrena zein den erabakiko dute, botoen bidez.

> **BOZKATZEKO EPEA**

Azaroaren 9a baino lehenago eman behar da botoa.

> **ERAKUSKETAREN ORDUTEGIA**

Erakusketa zabalik dago martitzetik domekara bitartean, 17:30etik 20:30era.

> **TOKIA**

Kulturateko klaustroan daude ikusgai lehiaketara aurkeztu diren proposamenak. Horiek ikusi ostean, harreraren bertan dagoen hautestontzian sartu daiteke norberaren botoa.

> **NORK EMAN DEZAKE BOTOA?**

Bosgarren finalista aukeratzeko bozketan parte hartu ahal izango dute 16 urtetik gorako Arrasaten erroldatutako herritarrek.



**BERGARA**  
San Lorenzo

ERREZTASUNAK ORDAINITZEKO

**APARTAMENTUAK** 1 eta 2 logelakoak, garaje eta trastelekuak

Eraikitzailea



Sustatzailea



Argibide eta salmenta

943 42 44 30

www.ormak.es

Apartamentuak

152.000€-tik  
aurrera

25.300.000 pta



POLITIKA > GALDEKETAREN ALDEKO EKITALDIK

# 'Hitza hitz', erabakitze- eskubidearen aldeko ekimena

Ibarreko EAJ, EA, EB eta Aralar alderdiek domekan, Legutian biltzeko deia egin dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ibarreko Eusko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Alkartasunak, Ezker Batuak eta Aralarrek erabakitze eskubidearen aldeko ekimen bateratua antolatu dute domekarako Legutian (Araba). Lau alderdie-tako hainbat ordezkari bildu ziren martitzenean Oñatiko kultura etxean debagoiendarrei gonbidapena egiteko: "Hitza hitz lelopean, Gernika eta Gasteiz arteko toki zehatzetan batzera deitzen ditugu herritarrek. Debagoiendarrok Legutian bilduko gara, eta guztion artean Erabakia hitza osatuko dugu", esan zuen Oñatiko alkate

Lourdes Idoiak. Ezker Batua alderdiko ordezkariak ez ziren prentsaurrekoan egon, baina gainerako alderdiek egindako deialdiarekin bat egin zuten.

Gernikan osatuko dute lehen hitza 12:00etan, eta ondoren gainerako bostak osatuko dituzte: Zornotzan, Herria; Durangon, Bakea; Urkiolan, Bai; eta Legutian, Erabakia. Ekitaldia 13:00etan bukatuko da Gasteizen Bai hitza osatu ondoren. Han bilduko dira zazpi herrialdeetako erakunde guztietako hautetsiak eta bakea, giza eskubideak eta erabakitze eskubidearen aldeko adierazpena irakurriko dute.

Ibarretik Legutiora joan gura dutenendako autobusak jarriko dituzte herri guztietan. Interesa dutenek deialdia egin duten alderdie-tako ordezkariekin jarri beharko dute hartu-emanetan ordutegia ezagutzeko.



EAJ, EA eta Aralarreko ordezkariak, martitzenean Oñatin egindako agerraldian.

MIREIA BIKUÑA

ESANAK

"Erabakitze-  
eskubidea eta bakea  
dira lau alderdion  
oinarrizko bi  
zutabeak"

Oxel Erostarbe > Elgetako alkatea

"DEBEKU BERRI BATEN AURREAN"  
Urriaren 25a, zapatua, zen Ibarre-  
txeren kontsulta egiteko eguna;  
baina haren aurkako helegitea

## Herria eta hitza

HERRIA	HITZA
Gernika	'Euskal'
Zornotza	'Herria'
Durango	'Bakea'
Urkiola	'Bai'
Legutio	'Erabakia'
Gasteiz	'Bai'

ITURRIA: EAJ, EA, EB ETA ARALAR

de eta horrek erakusten digu euskaldunok ez dugula erabakitze-  
eskubiderik, eurendako ez  
dagoela espainola ez den beste  
subiranotasunik", esan zuen  
prentsaurrekoan Elgetako alka-  
te Oxel Erostarbek.

Europako Herrialde Batzor-  
deak kide diren Estatuei demo-  
kratikoak diren galdeketak egi-  
tea onartzen dien ebazpenaren  
aurrean, PPK eta PSOEek hartu-  
tako jarrera salatu zuen Berga-  
rako EAko zinegotzi Lauri Askar-  
gortak: "Europar alde bozkatu  
zuten, baina guri ukatu egiten  
digute eskubide hori".

EKONOMIA > KRISIAREN ONDORIOAK

## Uste baino hiru milioi gutxiago jasoko dute udalek Aldunditik

Foru Aldundiak, baina,  
217 milioi gehiago  
izango ditu 2009an,  
krisiari aurre egiteko

N.M. > BERGARA

Foru Aldundiak diru sarreren jai-  
tsiera arinduko duen 217 milioi-  
ko ordainketa jasoko du 2009. urte-  
an. 162 milioi Kupoaren jaitzieraren  
ondorioz datoz eta gainerako  
55 milioiak, lurraldeen arteko  
desorekak konpentsatzeko Doi-  
kuntza Funtsa Orokorretik.

Ordainketak krisiari aurre  
egiteko balioko du. Aldundiak  
2007an baino 46 milioi gutxiago bil-  
duko ditu 2008an, 90eko hamarka-

da hasieratik honako hazkunde  
garaia amaituz. Urte bukaeran,  
Ogasunak 4.321 milioi euro jaso-  
tzea espero du; aurreikusitako  
kopuruan, 247 milioi euroko zuloa  
utziz. 2009an krisiak gogor joko  
duen arren, Foru Ogasunak bil-  
keta %0,5ean igoko dela espero du,  
horrela, 21 milioi gehiago jasoz.

UDALEK ORDAINDUKO DUTE

Gipuzkoako udalek krisiaren fak-  
turari aurre egin beharko diote  
2009. urtean, aurtengo jaitzieraren  
ondorioz. Udal Finantzaziorako  
Foro Funtsa 421 miliotan itxiko da  
aruten, aurreikusitakoa baino 37  
milioi gutxiagorekin. Hori, uda-  
lek itzuli beharko dute; ibarre-  
koek, 3 milioi euro.

## Udalek Aldunditik jasoko duten dirua

	2008 AURREIKUSPENA	2008 ITXIERA	EUROAK BIZTANLEKO	2009 AURREIKUSPENA
ARRASATE	14.419.098	13.253.806	625	13.824.419
BERGARA	9.574.273	8.800.519	623	9.231.550
OÑATI	6.958.634	6.396.266	629	6.732.923
ARETXABAETA	4.156.490	3.820.579	622	4.077.288
ESKORIATZA	2.538.572	2.333.415	626	2.476.963
ANTZUOLA	1.331.287	1.223.698	621	1.316.590
ELGETA	690.285	634.499	652	685.197
LEINTZ GATZAGA	236.031	216.956	912	227.887

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU OGASUNA



MIREN ARREGI

## Lan-segurtasuna bermatzeko eskaera egin zuten Garayko langileek

Manifestazioa egin zuten Hijos  
de Juan de Garay enpresako  
langileek astelehenean,  
hilaren 18an lantegian izanda-  
ko istripu larria salatuz. Mikel  
Zelaia langilearen heriotzaren  
aurrean lan-segurtasuna bermatzeko  
eskaera egin zuten herriko  
kaleetan egindako manifesta-  
zioan. Non dago segurtasuna?  
zioen pankarta eroan zuten.

Spirit of our times. New Ford Fiesta.

Eskaintza berezia:  
2.000 €-ko deskontua zure esku!

MUGARRI AUTOAK  
Araba Etorbidea, z/g  
ARRASATE

Feel the difference  
Ford



POLITIKA &gt; FANKISMOAREN ONDARRAK

# Herri batzuetan Franco oraindik ohorezko alkate dela salatu dute

Bergarako Udalak 2003an indargabetu zuen izendapena, baina besteetan ez

Ibarreko lehenengo fusilamenduak egin zirenetik 72 urte bete dira dagoeneko

**ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE**  
Debagoieneko zenbait herritan Francisco Franco Bahamondek ohorezko alkate izaten jarraitzen duela salatu zuten martitzenean Debagoieneko Fusilatuen eta Senitartekoen eta Lagunen Batzordeak, eta Intxorta 1937 Kultur Elkar-teak. Hori horrela, Udalbatza bereziak deitzeko eskatu diete Udalei aipatutako bi elkarteek.



Fusilatuen senitartekoen egia eta justizia eskatu zuten martitzenean.

ARANTZAZU EZKIBEL

## OHOREZKO ALKATE

Bergaran 1939ko maiatzaren 3an izendatu zuten ohorezko alkate Franco, Luis de la Prada alkate zegoela. Arrasaten eta Aretxabaletan 1949ko abuztuaren 22an, Arrasaten Santiago Bastida alkate zegoela eta Aretxabaletan Eustaki Alkorta alkate zegoela.

"Diktadura erdian logikoa zen hura gertatu izana, baina diktadorea hil zenetik ia 33 urte igaro direnean ez dago aitzakiarik", azaldu zuen Julia Monge Fusilatuen elkartearen kideak. Bergarako Udalak 2003an indargabetu zuen izendapena baina Aretxabaletan eta Arrasaten oraindik ere Francok ohorezko alkate izaten jarraitzen duela esan zuen.

Horregatik, zera eskatzen diete Debagoieneko Udalei: "Egiazta dezatela Udal horietan Fran-

## ESANAK

**"Diktadura erdian logikoa zen izendapena; baina, diktadorea hil zenetik 33 urte pasa direnean ez dago aitzakiarik"**

Julia Monge > Fusilatuen elkarte

coren izendapena indargabetuta dagoen edo ez, beharrezkoak diren tramiteak prestatzen hasteko". Gainera, uste dute modu horretan "askatasunaren hazia ereiten" bizitza eman zutenen memoria hobeto omenduko dela.

## BABES POLITIKOA

Martitzeneko prentsaurrekoan, baina, beste proposamen bat ere egin zieten ibarreko udalei.

1936-1939ko gerran ibarreko 118 lagun inguru fusilatu zituzten. "Frankismoaren biktima bihurtu ziren momentutik beraien eskubidea da egia, justizia eta ordaina izatea", azaldu zuen Mongek. Aipatutako elkartearen asmoa epaitegietan salaketak jartzea da. Hortaz, zera eskatzen die ibarreko udalei: "Lehenengo eta behin, euren babes politikoa ematea ekimen honi eta, bigarrenik, euren laguntza materiala eta ekonomikoa ekimen honetatik sortu daitezkeen gastuak ordaintzeko", gaineratu zuen.

"Jakin badakigu igaro den denbora kontuan izanda ia ezinezkoa izango dela jakitea nortzuk izan ziren haien zuzeneko hiltzaileak eta egile intelektuallak. Baina, hala ere, litekeena da hilketa haietan zer gertatu zen argitzea", azaldu zuen Julia Mongek.

## ARRASATEN EZ OHIKO BILKURA

Arrasateko Ezker Batua Berdeak-Zutik taldeak, bere aldetik, ezohiko osoko bilkura deituko du Francoren ohorezko alkate izendapena indargabetzeko. Aurretik, baina, izendapena indarrean dagoen edo ez esan beharko duela Udalak esan du Joseba Ugaldek, koalizio horretako zinegotziak.

JENDARTEA &gt; GURUTZE GORRIA

# Gurutze gorriak 25 urteak ospatuko ditu Arrasaten

Hainbat ekimen antolatuko dituzte Biteri plazan zapatuan goiz eta arratsalde; bestalde, DYAK 35. urteurrenaren ospakizuna egingo du Donostian

**JASONE ZABALA > ARRASATE**

Debagoieneko Gurutze Gorriaren 25. urteurrena bihar ospatuko dute. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte,

besteak beste baliabideen erakusketa eta emanaldia egingo da Arrasaten. Ekintza guztiak Biteri plazan egingo dira, 11:00etan hasi eta 20:00ak arte. Hainbat

gune egongo dira plazan, Gipuzkoako Gurutze Gorriak antolatuko duen ekitaldi bakoitzeko bana, eta Debagoieneko Gurutze Gorriak ere parte hartuko du. Aurre ikusitako guneak ondorengoak dira, besteak beste, larrialdi eta sorospun gunea eta gizarte arloa.

Erakusketen bitartez, sail bakoitzak egiten dituen jarduerak motak azalduko dira. Beste gune batzuetan, aipatutako eginkizun desberdinak gauzatzeko erabiltzen duten ekipamendua erakutsiko dute. Funtsen, Jon Anduaga Debagoieneko Gurutze Gorriko boluntario eta lehendakari ordeak azaldu digun bezala, "asmoa da Debagoiena guztiari erakustea gure eguneroko lana zein den eta gure sail bakoitzak zein lan egiten duen". Gurutze

Gorriak bere jarduerak aurrera eramateko, behar duen prestaketa eta baliabideen gaineko ikuspegia agertuko die bertarantz diren herritarrei.

## DYA GIPUZKOAK 35 URTE

DYAK ere bihar 35 urte betetzen ditu, eta egun honetarako hainbat ekitaldi antolatu dituzte Donostian. Ate irekien jarduerak egongo da, herritarrei erakusteko zaintza eta ongizatearen arloan zein lan mota desberdinetan murgildu den urte horietan guztietan. 10:00etatik 18:00etara elkarteak bere lana egiteko erabiltzen dituen ibilgailu eta bitartekoen erakusketa egongo da. Aipaturiko jarduerak horietaz gain, goizean zehar Kursalean estatu mailan dauden DYA elkartearen topaketa egingo da.

&gt; IKASTAROA

## Simulatzailak erabiliz basoko makinak erabiltzeko ikastaroak

Itsasmeneko (IMK) antolatuta basoak ustiatzeko makinak erabiltzeko ikastaroak egingo dituzte. Hain zuzen ere, Leintz Gatzagan egingo dituzte azaroan. Gainera, uztamakina baten kabinako ikuspegia irudikatzen duen simulagailuak erabiliko dituzte. Egingo dituzten hiru ikastaroak izango dira: basoan lan egiten dutenenako 60 orduko ikastaroa; lanbidean hasi gura dutenendako 25 orduko ikastaroa; eta arlo honetan erabiltzen diren teknologia berrietan interesa dutenendako 10 orduko ikastaroa.

Izena emateko edo informazioa eskatzeko, 675 70 18 01 telefonora dei dezakete.

&gt; DEIALDIA

## 2008-09 ikasturtea inauguratuko du Unedek gaur

Bergarako Unedek 2008-09 ikasturteko irekiera ekitaldia egingo du gaur, 19:00etan. Bergarako udaltekiko areto nagusian egingo duten ekitaldian parte hartuko dute, Gipuzkoako Diputatu nagusi Markel Olanok; Uned-Bergarako zuzendari Juan Jose Alvarezek, eta idazkari Vicente Huizirik; Bergarako alkate Agurte Berrusok; Euskaltzaindiako presidentea Andres Urrutiak; eta Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa sailburuorde Ibone Amezagak. Andres Urrutia, Euskaltzaindiako presidentea egingo du irekiera hitzaldia.

Ekitaldiaren barruan, 2007-08 ikasturtean lizentziatura lortu zuten ikasleei diplomak banatuko dizkiete.

&gt; OHARRA

## Perretxikoak hartzeko muga indarrean dago Arabako herrietan

Perretxikoak, baso-fruituak eta antzerakoak jasotzeko arautzen duen legea indarrean dago atzotik Arabako herrietan. Legeak, produktu bakoitzetik jaso daitezkeen kopurua zehazten du.

Arabako Foru Aldundiak hartutako erabakiaren arabera, gehienez bi kilo perretxiko edo onddo jaso daitezke. Lore eta landaren kasuan sorta bakarra eta kamamillaren kasuan 200 gramo.

Jasotako produktu bakoitzeko kopuruan jarritako mugak betetzen ez dutenei zigorra jarriko diete. Hain zuzen ere, 35 eta 200 euro arteko isunak jarriko ditu Diputazioak egiten den arau-haustearen arabera.



ENPRESAK > SARIA

# Lazpiurrek, komunikazio berritzaileenaren saria

Bergarako enpresak eraman zuen lehen saria Donostian ospatu zen makina erremintaren 17. kongresuan

JASONE ZABALA > BERGARA

Bergarako Construcciones Mecanicas Jose Lazpiur, SA-k Donostian egindako XVII. Makina Erremintako eta Fabrikaziorako Teknologien kongresuko komunikazio berritzaileenaren saria irabazi du. Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eman zion amaiera kongresuari urriaren 17an. Miguel Lazpiurrek jaso zuen saria: Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako diputatu Jose Ramon Guridiren eskutik, bronzeko eskultura bat.

Lazpiurrek honako izenburupean aurkeztu zuen bere proiektua: *Zirkuitu inprimatuetan, motor linealen bidez osagaiak txertatzeko makina diseinuaren optimizazioa*. Proiektu hau Tekniker Teknologia eta Ikerketa Zentroaren laguntzarekin egin dute. "Izenak dioen bezala, makina honek zirkuitu inprimatuetan osagai elektrikoak txertatzen ditu, hau da, autoetako fusible-kaxen barruko osagaiak txertatzen ditu. Orain arteko makinak torloju eta teknologia pneumatikoak erabiltzen



Miguel Lazpiur saria jasotzen Jose Ramon Guridiren eskutik.

LAZPIUR

ESANAK

**"Makina honek autoetako fusible-kaxen barruko osagai elektrikoak txertatzen ditu"**

Miguel Angel Agirrezabal > Lazpiurreko Sistemen arduraduna

zitzen. Orain, diseinuan teknologia berriak aplikatuz -motore linealak eta teknologia mekatronikoa erabiliz-, makina azkarragoa lortu dugu", adierazi digu Miguel Angel Agirrezabal Lazpiur enpresako sistemen arduradunak. Agirrezabalek gehitu duenez, orain makina "2.2 aldiz produktiboagoa da; osagaiak kokatzeko orduan 10 aldiz azkarragoa eta %33 aldiz zehatzagoa".

ENPRESAK > INBERTSIOAK

# Natra taldeak sei milioi euro inbertitu ditu Oñatiko Zahor lantegian azken bi urteotan

Inbertsioarekin produktu berriak merkaturatu du Natra-Zahor taldeak: Vital'Crusty barritak

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Kakao eta txokolatearen deribatuetatik produktuak egiten eta merkaturatzen dituen Natra taldeak, sei milioi euro inbertitu ditu Oñatiko Natra-Zahor lantegian, azken bi urteotan; besteak beste, makineria berritatu eta ikerketa berriak egin dituzte.

Inbertsioek, dagoeneko eman dute lehen emaitza: Vital'Crusty izeneko barratxoak. Jogurta, basa-fruituak eta esne-gaina konbinatzen dituen geruza batekin estalitako irin integralezko gaila bat da. Zerealak ditu gaintik eta txokolatezko geruza batekin estaltzen dute.

Vital'Crusty barratxoak banaketa marken bidez merkaturatu dute. Natra-Zahorreko arduradunen esanetan, banatzaile

markek %31,8ko merkatu kuota izan dute 2008ko lehen seihilekorian. Gainera, azaldu dute, txokolatearen sektorean banatzaileen markek urteko %9ko hazkundea dutela. Aldiz, norbere marken igoera %2koa dela.

DATUA

**384**  
MILIOI EURO

Iaz 384 milioi euroko salmenta izan zuen Natra taldeak. Besteak beste, barratxoak, txokolate tabletak eta bonboiak merkaturatzen dituzte. Carrefour, Metro eta Tesco dira bezero nagusiak.

Natra-Zahorreko arduradunek diote, Europako 30 banatzaile nagusien artean 24tan daudela presente: "Gure bazkideen artean daude Carrefour, Tesco eta Metro bezalako taldeak". Era berean, Ameriketako Estatu Batuetan eta Txinan euren produktuak merkaturatzen dituzte.

Bestalde, Natrako arduradunek azpimarratu dute eurak direla kakao eta txokolate deribatuetatik produktuak egiten dituzten enpresen artean indartsuenak, eta iaz 384 milioitako salmentak izan zituztela.

BERRIKUNTZA

Sei milioitako inbertsioarekin produktu berriak egiteaz gain (barratxoak, bonboiak eta txokolate tabletak, besteak beste), diru horrekin berrikuntza arloan hainbat proiektu egiten dihardutela esan dute Oñatiko txokolate fabrikakoek.

ASTELEHENKO  
**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

**Harpidedunen txokoa**  
Urriko zozketa

Sariak irabazteko  
**HARPIDETU!**  
Tel.: 943 08 10 50  
18 euro abendura arte

UMEENTZAKO LIBURUAK



BRUESA PARTIDUETARAKO SARRERAK



BRUESA GBC-DKV Joventut  
BRUESA GBC-CAI Zaragoza

ZIRA



**SARI NAGUSIA**

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

**"LA PERLA"**

TALASOTERAPIARAKO BONOIA (10 SARRERA).



Zozketan sartuko dira: 08-10-06tik 08-12-10ra jasotakoak



## gure artekoak

**FIAT BRAVO** > Orain dela urte bi merkaturatu zuen Fiat etxeak Bravo berria; Jesus Markiegiren esanetan, guztiz berritu zuten autoa orduan. Etxean auto bakarra eduki gura duenarentzat egokia da Fiat Bravo autoa.

Jesus Markiegi > Markiegi kontzesionarioko arduraduna

## "Kalitate eta prezio onak dituen autoa da Fiat Bravo"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Auto konpaktuen artean, Fiat Bravo kalitate eta prezio onenartikoa duen autoa dela esan digu Jesus Markiegi Bergarako Markiegi kontzesionarioko arduradunak. "Prezio aldetik, oso ondo dago; hortaz, gama bereko beste autoekin lehiatzeko moduko autoa da", azaldu du. Beste marka batzuetako autoen maila bera du Bravoak baina prezio aldetik merkeagoa da.

Orain dela urte bi merkaturatu zuen Fiat etxeak Bravo berri-tua. "Linea aldetik dena aldatu zuten; lehengo modeloekin alderatuta, guztiz berri-tua da oraingo autoa", dio Markiegik.



Jesus Markiegi, Fiat Bravo autoarekin.

A.E.

### ETXEKO AUTO BAKARRA

Jende mota denari zuzendutako autoa da Fiat Bravo. "Hirian eta errepidean ibiltzeko moduko autoa da. Etxeko auto bakar bezala balio du", gaineratu du Markiegik. Jende gazteak eta baita nagusiak ere aukeratu duten autoa da Bravo.

### SEI MOTOR AUKERAN

Sei motor aukeran eskaintzen du Bravo autoak: dieselezko hiru eta gasolinazko beste hiru. Gasolinazkoei dagokienez, 90, 120 eta 150 zaldi potentziako motorrak dira; eta, dieselezkoen kasuan,

### Fiat Bravo 1.9 MTJ 120 ZP

Prezioa	17.370 euro
Luzera	4,33 metro
Zabalera	1,79 metro
Maletategia	400 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	5,3 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	194 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	10'5 seg.
CO2 isurketak	139 g/km

(1) Gehienezko edukiera  
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta  
(3) Gehienezko abiadura

105, 120 eta 150 zaldi potentziako motorrak.

Jesus Markiegik gaineratu digu auto oso seguruak direla Fiat etxeok. Bravoak, esaterako, aire poltsa guztiak dakar fabrikatik. Gainera, ABS eta ESP sistemak ditu autoaren barruan doazen seguratasuna guztiz bermatzeko.

Autoaren barnealdeko elementu azpimarragarriena, gidariaren eta laguntzailearen guneak bereizten dituen klimatizagailua da. "Esan behar da barnealdean espazio handia duen autoa dela Fiat Bravo", dio Markiegik.

## etxeke leihotik



Iban Arantzabal > iarantzabal@goiena.com

## Zurekin batera egin gura dugu telebista GOITBn

Hiru aste *Goiena* magazinea emititzen. Dena, ikusentzulearengana hobeto heltzeko, gaiak sakonago lantzeko, dauden telebista kate guztietatik gertukoena izateko. Eta garrantzitsuena: zuekin, etxekookin zein gure platora zatoztenekin telebista egiteko.

Maritxu Kajoi bixamonean hasi ginen. Martitzenean Tere Irastortza idazlea zen gurean. Juan Jose Ibarretxe lehendakaria gero eta hurrengo egunean Gipuzkoako PSE-EE-ko idazkari nagusi Iñaki Arriola. Aste horretakoak dira Aikido elkartekoak, nekazari elkartekoak eta Amaia Iriarte homeopata. Bigarren astean: Jon Ander Ramosek zinemaren berri, Bollywood-etik magazinera lagun bi, Patxi Urizarren euskaltzain aramaioarra gustura entzun genuen, Ino Galparsoro alkatea, barikuan Juan Antonio Urdangarin harrobiko ideien gainean, mugarik gabeko ingeniari bi, Nikolas Segurola artzain handia, hipokondriaren gainean ere jardun genuen. Hirugarrenean: Amuskakoak lehenengo aldiz telebistan, Odriozola Pakito Arriaranen gainean, Aitor Olea organista, Dorletako Amaren berri, Oxel Erostarbe alkatea... Denek aberastu dute GOITBren edukia.

**"30 lagun inguru izan dira platoon dagoeneko; urte amaierarako 100 lagunetik gora"**

> **Magazineak** eskatu du lan egiteko modua aldatzea, ordutegiak egokitzea, dekoratuak lantzea, makinaria berria eta burua fresko egokitzea. Hori dena ezer gutxi da kolaboratzaile ez balego.

> **Tabernariak**, osasun arlokoak, nekazariak, emakumeen elkartekoak, euskararen bueltan diharduen jendea, musikariak, idazleak, jai antolatuak, politikoak... denek dute lekua GOITB koloretan berrian.

## begi-bistan



### Oregi etxeke zuhaitza (Bergara) 2008/10/23

Argazkia: Nerea Menor.  
Testua: Nerea Menor.

Haize bolada batek egoera txarrean utzi du aste honetan argazkiko zuhaitza. Bergarako Udalak, arriskutsua izan daitekeela-eta, botatzea erabaki du. Eguen goizean hasi zituzten lanak.

#### Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Ruper Ordorika**  
MUSIKARIA

Musikari oñatiarrak azaroaren 14an Madrilen aurkeztuko du *Hamar t'erdietan* bere azken lana. Sol aretoan izango da, 23:00etan. Madrilera aurkezpenean izango dira Ordozikarekin batera, Hasier Olega, Lutxo Neira eta Arkaitz Miner taldekide berriak.



**Pablo Letona**  
ABADEA

Aretxabaletako Pablo Letona abadeak urrezko ezteiak ospatu zituen domekan. Aretxabaletako parrokiaren egin zuten mezara ehundik gora lagun bildu zirela aipatu behar da. Gero, bazkaria egin zuten Eskoriatzako Mendigoia hotelean.



**Pernan Goñi**  
ARTISTA

Pernan Goñi ilustratzaile oñatiarrak *Disonancias* lanean parte hartuko du. Laugarren urtez jarraian antolatuta dute programa. Enpresa eta artisten lana uztartzea da *Disonancias* programaren asmoa. Pernan Goñik EITB enpresarekin egingo du lan.



Datorren astean El Salvador Bihotzean taldeak topaketak gertatu ditu Arrasaten. Omenaldia egingo diete El Salvadorreko gerran hil ziren hiru euskalduni: Marta Gonzalez, Begoña Gartzia eta Pakito Arriaran. Azken horren neskalagun Miren Odriozolak topaketa horien berri eman du eta, bide batez, militante arrasatearren bizitzako hainbat pasarte gogora ekarri ditu.

Miren Odriozola > Pakito Arriaranen neskalaguna

# "Oso militantea eta internazionalista zen Pakito; ideiak oso garbi zituen"

TXOMIN MADINA /  
MIRIAM BITERI > ARRASATE

Miren Odriozola Pakito Arriaran militante arrasatearra zenaren neskalaguna da. Hurrengo lerroetan horren gaineko liburuaz eta El Salvadorreko gerran hil zituzten euskaldunak gogora ekartzeko antolatutuzten ekimenetaz hitz egin du.

**Pakito Arriaranen gaineko liburua aurkeztu duzue. Biografikoa da, ezta?**

Liburu honek hainbat zati ditu, bilduma bat da. Lehenik eta behin, sarrera dauka, Txomin Ziluagak eta Izaskun Larreategik egina. Garaia hartan, nazioarteko egoera politiko eta ekonomikoaren berri ematen dute hor. Jarraian, zati potoloena dator, El Salvadorreko Ricardo Castellonek idatzitakoa. Hango gerraren gaineko azapenak ematen ditu. Liburuak, gainera, hainbat testigantza ditu.

**Zeinenak dira testigantza horiek?**

Askotariko jendearena. Pakito ezagutu zuten medikuek eta tailerrean lan egiten zutenek haren gainean hitz egiten dute. Pakito nolakoa zen eta elkarrekin bizi izandakoak azaltzen dituzte. Horretaz aparte, argitalpenak preso dagoen Iñaki Gonzalo *Kitxuren* eskutitza eta biografia du; jaio zenetik hil zuten artekoa, hain zuzen.

**Noiz ezagutu zenuen Pakito?**

1979an Iparraldetik alde egin behar izan zuen eta Venezuelan zegoen. 1980ko irailean Venezuelara joan nintzen eta orduantxe ezagutu nuen. Jende gehiago ere bazegoen, errefuxiatuak eta errefuxiatuak ez zirenak ere. Han lan egiteko kooperatiba bat eratu zen eta han geunden denok. Bizi ere etxe berean bizi ginen gehienok.

**Nola deskribatuko zenuke arrasatearra?**

Euskaldun bat, Francoren garaian Euskal Herrian militante lanean hasi zena. Euskal Herria maite zuen eta borrokan hasi zen. 17 edo 18 urterekin kartzelan eduki zuten, eta gero, ihes egin behar izan zuen. Bera zen oso militantea: Euskal Herriari buruz ideiak oso garbi zituen. Gainera, oso internazionalista zen. Euskal Herrian bere borroka egin zuen eta Venezuelan ere hango arazoetaz eta justizia ezaz arduratu zen. El Salvadorrera joan zenean ere berdin egin zuen, bere bizia emateraino.



Miren Odriozola GOITBn izan zen joan den astelehenean.

USOA AGIRRE

**Zu zeu ere El Salvadorren egonda zaude. Zela gogoratzen duzue gerra hori?**

Gerra guztiak bezala, oso gogorra zen. Baina, badauka xarma bat, gerran geundenok geneukan elkartasunagatik. Hori oso polita zen.

**Datorren urteko irailaren 30ean 25 urte beteko dira hil zela. Zela hil zen?**

Garai hartan, armada ez zen ausartzen hainbat gunetan sartzea. Ochoa koronela, baina, toki liberatuetan sartzen hasi zen. Hilero sartzen ziren eta hamabost bat egun pasatzen zituzten han borrokan. Umeak, zaurituak eta Pakito bezalako jendea ezkutatzen zen horrelakoetan. Hartu zuten egunean ere baso batean bazeuden ere, armada gertu zegoen eta topatu zuten. Bera eta beste sei lagun hil zituzten han.

**Urteurren hori gogora ekartzeko, hainbat ekintza antolatu dituzue...**

Bai. Memoria historikoa berreskuratu nahi genuen; gaur egun hemen modan dagoena. El Salvadorren ere gerraren gaineko hainbat liburu argitaratu dituzte. Hori guztia egitea komenigarria da, gazteek gertatutakoa jakin dezaten. Pakitoz gain, beste bi neska euskaldun hil zituzten: Begoña Gartzia eta Marta Gonzalez. Hirurak omendu nahi ditugu hainbat ekimenen bidez.

**Ze ekintza gertatu ditu El Salvador Bihotzean taldeak?**

Liburuaren aurkezpenaz gain, urriaren 26an, 13:00etan, hirurak omenduko ditugu Seber Altube plazan eta 15:00etan, lagun arteko bazkaria izango da gaztetxean. Txartelak Basatin, Iratin eta Beinken daude salgai 12 euroren truke. Urriaren 27an, Iñaki Gil de San Vicentek internazionalismoaren gaineko hitzaldia egingo du, 18:00etan, Kulturaten.

Hilaren 28an, *El Salvador, el pueblo vencerá* gerrari buruzko dokumentala ikusi ahal izango da gaztetxean, 20:30ean; eta hurrengo egunean, gerrillan ibilitako Pedro Ramon Fuentesek hitzaldia egingo du Kulturateko Jokin Zaitegi gelan, 18:30ean. El Salvadorreko egungo egoeraz hitz egingo du. Urriaren 30ean, *Voces inocentes* filma botako dute gaztetxean, 20:30ean. Horretaz aparte, hilaren 27tik 30era, erakusketa izango da Harresi aretoan, 18:00etatik 20:00etara.

EL SALVADOR

**"Dokumentala ikustean, esan zidan han azaltzen ziren mendietara joan behar zela borrokara"**

**Zela pasa zen Venezuelatik El Salvadorrera?**

Venezuelan geundela ikusi genuen El Salvadorreko gerraren gaineko dokumental polit bat. Hango jendeak zer egiten zuen azaltzen zen horretan. Dokumentala ikustetik atera ginenean, esan zidan han azaltzen ziren

ERAILA

**"Hartu zutenean basoan ezkutatuta zegoen. Bera eta beste sei lagun erail zituzten han"**

mendietara joan behar zela horiekin borroka egitera. Handik urtebetera, 1982ko irail aldera, joan zen. Frontearekin borroka horretan sartu zen. La Laguna herria hartzera joan zirenean zangoan zauritu zuten. Era prekarioan zegoen gerrillaren ospitalera eramatu zuten eta hanka gangrena-

MEMORIA HISTORIKOA

**"Ekimenak egitea komenigarria da, gazteek gertatutako jakin dezaten"**

tu zitzaion. Bizia salbatu ahal izateko hanka moztu behar izan zioten.

Hanka galduta ere, borrokan jarraitu zuen. Ez zen posible izan herritik ateratzea. Gurutze Gorriarekin hitz egiten zuten, baina ez zen konprometitu nahi izan eta han geratu zen.





zabalik

Andoni Urtzelai

## Izua

Aitorpen txiki bat egin beharra daukat: ez dut pitorik ulertzen ekonomiaz. Ezjakintasun horrexek emandako ausardiaz, konstatazio bat: ez dut krisi hau benetakoa denik sinisten.

Orwellen 1984 nobelan, existitzen ez zen gerra bat baliatzen zuen botereak gizarte mututu, uzkurto eta izupean mantentzeko. Bat-bateko krisi hau ere gezur handi bat ez ote den susmatzen hasia nago. Zera iruditzen zait: ustezko krisi hori gehiago dagoela gure ahotan gure poltsikotan baino. Horrela, oraingoz behinik behin, nire inpresioa da ugariagoak direla langile faltagatik ixten diren establezimenduak (taberna, jatetxe, etabarrak), bezero faltagatik ixten direnak baino.

Irudipena daukat, gainera, gure agintari eta komunikabideek *krisi* hitza behin eta berriz erabiliz kikildu egin nahi gaituztela. Zertarako? Azken hilabeteotan aberatsen mesedetan hartu dituzten erabaki basati horiek beste barik onar ditzagun. Horra prozedura: lehenengo, beldurra gripea balitz bezala zabaltzen dute, eta gero komeni zaizkien botikak traba barik irentsarazten dizkigute.

Europako gobernuek billoi eta erdiko dirulaguntzak eman dizkiete egunotan banketxei –hauen orainarteko irabaziak Kristorenak izanda ere–, ba hara, antza denez, nahikoa litzateke dirutza horren guztiaren ehuneko bata, munduko gosetea ekidin edo, gutxienik, arintzeko. Hori ez da krisia, hori zabarkeria da.

Gureak ez diren arazoetaz mintzo dira dirudunak –guztiok ote gara ba, derrepentean, burtsako inbertsore?–, haien galerak geure egin eta denon artean –denon diruaz– konpondu ditzagun.

Bukatzeko, bi gauza.Bata, gomendioa: Naomi Kleinen *El auge del capitalismo del desastre: la doctrina del shock* liburu argigarria. Eta bigarrena, desioa: gure sosek behingoz sistema absurdu eta injustu hau aldarazteko balio badute, gaitz erdi.

**"Konstatazio bat: ez dut krisi hau benetakoa denik sinisten"**

**"Gure agintariak kikildu egin nahi gaituzte, erabaki basatiak beste barik onar ditzagun"**

## Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE  
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Saitetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredaktzio Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larratit Zuberio, Arritxu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldeg, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor Oinarrizko diseinua Goio Arana Maketazioa Imanol Soriano, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Ibaso Bereziartua, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziartua, Iratxe Bengoa.

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00  
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09  
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Post-a: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekarria

### LAGUNTZAILEAK



Eusko  
Jaurilaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiko  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarrak galdezka

OÑATIKO KIROLDEGIKO  
KANTXEN ERABILERAZ

**Oñatiko irakurle batek hauxe idatzi digu: "Kiroldegian bi kantxa daude, berdea (zaharra) eta urdina (berria). Gure galdera da: esku-bide berberak ditugu bazkideok eta Aloña Mendiko taldeek? Zer-gatik Aloña Mendik beti du kantxa berdea eta bazkideok, alokatzerakoan, beti urdina?"**

Oñatiko Udaleko Kirol teknika-ri Oskar Carrascalengana jo dugu erantzun bila. Hauxe esan digu berak: "Bi eskaera mota ditugu: bazkideenak eta kirol elkarteenak. Urteko erreserba egutegia eta ordutegia aurreko urteko beharretan eta erabileran oinarrituta egiten dugu, eta gure helburua da oreka gordetzea bazkideen eta Aloña Mendiren beharren artean. Bada, aurtun, aurreko urteko ordutegiarekin alderatuta, bazkideek bakarrik ordu bat gutxiago dute aukeran. Hori kontuan hartuta, kantxa urdineko aukerak gehiago dira, eta berdekoak, murriztagoak". Hauxe ere argitzen du: "Ez da egia Aloña Mendik beti kantxa berdea eskuratzen duenik eta bazkide-

ek beti urdina; biek erabiltzen dituzte biak". Hala ere, "kontuan hartu behar da kirol elkarteek partidu ofizialak dituztela eta kantxa berdearen behar handiago izaten dutela. Horrez gain, denek gurago dute kantxa berdea, eta denok hura erabiltzea ezinezkoa da", azpimarratzen du teknikariak. Hori dela eta, bai bazkideek eta bai Aloña Mendiko taldeek erreserbak egiteko egutegi jakin bat daukate.

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

BERGARAKO OZAETAKO  
ETXEBIZITZEN ZOZKETA  
**Bergaran bizi den irakurle batek Ozaetan egingo dituzten babes ofizialeko etxebizitzaren zozketaren baldintzak jakin nahi ditu: "Interesa dutenek azaroaren 21a baino lehen eman behar dute izena udaletxeko bulego teknikoan, baina Etxebiden apuntatuta dagoenak ere bai?"**

Bai. Zozketan parte hartzeko, besteak beste, bi baldintza horiek bete behar dira: eskatzaileak Etxebiden izena emanda egon behar du, eta hori egin ondoren, Bergarako Udaleko bulego teknikoan ere izena eman behar du, azaroaren 21eko 13:00ak baino lehenago.

Ozaetan egingo dituzten 27 etxebizitza horien zozketan parte hartu nahi eta Etxebiden izena emanda ez dagoenak haren edozein bulegotan egin dezake tramite hori: Donostiakoan (Andia, 13), Bilbokoa (Kale Nagusia, 85) edo Gasteizkoan (Samaniego, 2). Bestalde, Udaleko bulego teknikoan emango diote gero zozketan sartu ahal izateko eskaera orria.

## marrakiz

Alex Ugalde



## Nafarroa Oinez, gero eta erdara gehiago

**Nahikari Ayo**  
goiena.net/blogak/begietatik

Nafarroa Oinezetik bueltatu berria naiz. Gurasoekin joan naiz egun pasa. Zirkuituari buelta eman, kamisetak erosi, bokata jan eta buelta etxera.

Aspaldi ez nintzela Nafarroa Oinezera joaten, zortzi bat urte gutxi gorabehera. Eta

harritu naiz. Inoizko erdera gehien entzun dut. Ez gurasoen ahotik eta jende nagusiaren ahotik. Askok eta askok euskararen alde daude, baina ez dute aukerarik izan ikasteko, baina horra joaten dira beraien laguntza ematera. Gazteak izan dira harritu nautenak. Zenbat erdera euren artean. Fijatzen joan naiz ibilbide osoan, eta %90 bat erderaz.

Agian, gure garaian beste kontzientzia bat genuen. Ikastolen aldeko jaira gindoa-zen, euskaraz hitz egiten genuen eta mozortxua ere harrapatzen genuen. Baina euskaraz!

## Erdaldunak limurtu ala ez limurtu?

**Patxi Lurra**  
www.asapala.org/  
mahatsorriak/patxilurra

Urtzi Urritikoetxea ezezkoan egoan lehenengo egunean egunkarian idatzitako zutabearen, baina hasarre puntua sumatu neutsan, geutariko edonork askotan sentitzen doguna...



plazara

Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna da, eta Oñatiko Elkar Hezi ikastetxean irakaskorikoa da. Joan zen astean hasitako

gogoeta borobiltzen du oraingotan, sexu arteko berdintasuna aintzat hartuta. Gizakiaren, gizonezkoaren eta emakumezkoaren inguru-

ruko hitzek eta haien jatorriek, eta Oteizak edo Nietzsche-k esandakoek harilkatzen dituzte bere ondorio mamitsu zein ironikoak.

Juankar Olaeta \*

## Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna? (II)

**G**izarte gizondurik... ez dut uste gizateriarentzat arrakasta dakarrenik, *arrakasta* (ar+akatsa) baizik: botere eta menperakeriaren logika.

*Gizakia*-ren (eta ondorioz gizartearen) arrakasta, nahiago dut lotzea emetasunaren beste ideia eta jokabide batzuekin: homo-hominis=humus, lurra, natura, harkorra, fruitua, hilerokoa (=bizitza), ilargia, itsasgora-behera, hilaren argia, argizaria, emankortasuna, haur, emakumea, eman, ume, eme, ama, umetoki, kultura (jatorriz *colego, es, ere*= lurra *erein, hazi, landatu*), hazi, hezi. *Eman/harkortu* versus *harrapatu* (=harrak jana= ar-tu=gizon bihurtu, har bihurtu), harrapakari.

Jakina, ez naiz gizon eta emakume jakin eta zehatzen inguruan ari, baizik eta arketipoen mailan, izan ere, zorionez, gizon emeak badira, eta baita, zoritxarrez, emakume gizondurik ere, exito handikoak, hori bai!

Tamalez, gaurko emakumeereduarengatik, sarriegi emakume izateaz lotsatu behar eta ostendu, gizona: jada "*ez da antzematen*", "*ez da iragaten*..." Emakumea Eva (=Bizia) baino, Evax nahiago dugu. Denok kanpo-eder, garbi eta zorionsu antza.

Eta Gizakiaren gainean, zer esan? Apirilaren 24an *Ama Lur* filma ikusi ostean, Nestor Basterretxearekin Oñatin gozaturiko afari batean, Jurgi Oteiza hizpide, Basterretxeak aipatu zuen behin Erromako San Pedro plazan zirelarik, halako batean, zoro baten antzera, Oteiza,



MIKEL ARROIABE

besoak astinduz eta goratuz, korrika hasi zela honakoa oihukatu egiten zuen bitartean: "Non dago gizakia?!!", "Non dago, gizakia?!!!" Ez omen zuen Basterretxeak inoiz ulertu zertan zebilen eta zergatik egin zuen, baina, antza, gizakiaren bila zebilen gure Oteiza.

Ez gara gu urrun ibiliko Diogenes Zinikoaren haritik abiatu eta F. Nietzsche-rengan bilatzen badugu erantzuna. *Zientzia Alaia* liburuaren 125. aforismoan, *zoroak* berdintsu galdetzen du plaza publikoan baina Jainkoaren inguruan. Bere lepo trufaturik jendea begira zeukala, *Zoroak aurre egin zien, eta beha-beha begiratzen*

**"Emakumea sarriegi emakume izateaz lotsatu behar da: Eva baino Evax nahiago dugu"**

**"Ni ere gizakiaren bila nabil. Hala ere, nire jantziak gero eta zimur gehiago dituen honek lisatzen ditu"**

*zielarik oihu egin zuen: "Non dagoen Jainkoa? Esango dizuet. Hil egin dugu; Jainkoa hil egin da..." Nietzsche-ren pentsamenduan, gizakiaren ekintza handi eta miresgarri hori (Ez da sekula ekintza handiagorik egon...), ezinbestekoa da Gaingizakia, Supergizakia jaio ahal izateko. Hala ere, Gaingizakia baino Azkeneko Gizakia baizik ez jaitzearen beldur zen Nietzsche-Zaratustra, burututako ekintza handiaren esanahiaz jabetu ez denaren beldur, alegia: *Ai ene! Badator garaia, gizonak izarrik gehiago erdituko ez duena. Ai ene! Badator gizon destainagarriaren garaia... Lurra txiki bihurtu da eta beronen gainean jauzika ari da azkeneko gizona, dena txiki bihurtu duena... "Zoriona aurkitu dugu guk"-diote azkeneko gizonek eta begiei keinu eragiten diete... Badituzte egunerako atsegintxoak eta gauerako atsegintxoak... (Ikus Honela mintzatu zen Zaratustraren Zaratustraren Aurremintzal-diak V).**

Ni ere, neure baitako azkeneko gizakiaren beldur naiz, eta, Oteizaren moduan (barka biezat atrebentzia), gizakiaren bila nabil, emetasun arketipikoaren bidean. ordea. Hala ere, badaezpada eta bukatzeko, esan behar dut nire jantziak, gero eta zimur gehiago dituen honek lisatzen dituela; dena konponduta, bada, gure etxean: berdintasuna gauzaturik. Bejondeigula!

\*Juankar Olaeta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna da.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Aldatuko da ezer AEBetako bozketarekin?

BAI	%50
EZ	%50

> KONFIANTZARIK EZ

Nik nahiago dut Obamak irabazten badu baina ez dut konfiantza handirik ezer egingo duenik (ahal duenik, utziko diotenik...). Egoera larriegia da. Izaskun

> BERDIN DA NORK IRABAZI

Hauteskundeek ez dute sekula ezer aldatzen, denak bere horretan jarraituko du, gerrek, inbasioek, krisiak, berdin batek zein besteak agindu. Marta

> HOBERA EGINGO DU

Imajinatu beste lau urte Bushekin. Gero imajinatu kontrakoa. Seguruneik Obamak irabaziko du, baina bestela ere, gauzek hobera egingo dute. Andrea

> AURRERA BULTZADA

Estatubatuarrek fede handia dute Obamarengan, eta lortuko du bere herria eta mendebal mundua aurrera bultzatzea. (Berak irabaziko baitu). Fer

**DATORREN ASTEKOA: Asteburuan gutxiago gastatzen duzu orain?**

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

Goazen bestela erdaldun (eta euskaldun) gehien eta modu hoberenean xarmatu dituen eta liburuak erdara gehienetara itzulita dituen idazle euskaldun handiarengana. Atxaga maisuaren arabera erdaldunak antipatiko eta sinpatikoen artean banatuta dagoz. Bigarrenak gehienak dira ziur aski (neuk uste), baina euretako batzuk sarritan antipatikoaren taldera igarotzen dira. Mugako sinpatikoak (antipatikoak) dira, eta zelak jokatu behar dogu eurekin? *To erakarry or not to erakarry...*

Kepa Junkera musikari bihurriak berrogeita piko

artista erdaldun (batzuk sinpatiko hutsak eta bestetzuk mugakoak) ederto limurtu ditu eta geurera hurbildu ditu ariketa estetikoki eder-ederrean. Halandabe, bereak ez dau kontatzen, erdaldun batek beste erdaldun batzuei euskaraz abesteko erakartzea? Limurtzekotan geuk Junkerari egin behar izango geuntsan lehenago, eta gero berak nahi dauanari. Baina tire, Gatibu taldeak euren lelengo diskoan Robe Iniesta eta Fito Cabrales bizkaieraz abesten ipini zituen, eta honek kontatzen dau, ganera ez da adibide bakarria izan. Hor ditugu Oskorri

beteranoak be, urtez urte Pub Ibiltaria eta Hator, hator kantari horiekin guztiekin, erdaldunak (eta euskaldunak) liluratuz. Posiblea da, *gentlemen and ladies!* Pixka bat *es mucho!* Hordago txikira! Baina, laster edo berandu, antipatiko militanteekin topau behar ditugu. Geu baino (are) militantagoak diranak. Eta horiekin geureganatze eta limurtze gitxi, eta bromak are gitxiago. Galdetu bestela Hasier Etxeberriari. Edo A Mesa pola Normalizacion Linguistica erakundekoei, Galizian be txakurrak ortozik...

koplak

Irati Agirreazaldegi

### Oteiza, Arantzazun du hitza

Mende bateko bizitza oraindik bizi balitza 100 urteko ibilbidean gudan da Jorge Oteiza.

Zorrotza bezain gordea ezaguna zen ordea Orion jaso ta bere baitan ondutako umorea.

Gorputza eta arima batera nahi ta ezina Arantzazuko bake giroan sortutako imagina.

Oteizaren eskultura Arantzazutik mundura Mendea mende gogoratzeko garaia orain heldu da.

Apostoluak hamalau obrak bere hortan dirau nahiz garai hartan aztoratu zen gurean hamaika kristau.

Laguntasunaren zantzu mailu eta zizel trazuz Oriotarraren maisutasun lekuko da Arantzazu.



## Torresoroa, eraikin bat baino askoz gehiago

**Jose Mari Iturbe eta Pilar Etxaniz**  
(Antzuolako Zutik-Ezker Batua/  
Berdeak-Aralar taldearen izenean)  
Antzuola

Gizarte eta Kultura Zerbitzu berrien Zentroa inauguratu berri dugu Antzuolan. Proiektu eztabaidatsua izan da hasieratik, baina aste hauetan -eta batez ere Ate irekien egunetan- jendea emaitzarekin pozik dagoela sumatu dugu eta, zergatik ez, harrotasun puntu batekin. Ez gara hasiko aipatzen proiektuaren inguruko inoren gabezi, ustezko akats edo hanka sartzeak, mezu positiboa kaleratu nahi dugulako.

Gaur, Antzuolako gizarte, kultura eta kirol arloan lan egin duten eta egiten duten pertsonak gogora ekarri eta eskertu nahi genituzke:

Guraso Elkarte, 1960an sortua, eskola liburuak eta ikasleen bidaiak merkatea, irakaskuntza euskalduntzea eta herriko zerbitzuak hobetzea izan zituen helburu. Bere lana ez zen erraza izan, garai haietan herri-lanetan ziharduen oro susmagarri bihurtzen zelako. Hala ere, kemen eta ausardia handiz Maristen Etxea erosi eta bertan zine aretoa, jubilatuen lokala eta gazteena kokatu zuen, eta kultur taldeei ere bertan lekua egin. Herriko ekintza ugarietako partaide eta bultzatzaile izan zen 1996an Maristen Etxea udalaren esku utzi zuen arte.

Udal korporazio ezberdinek, herriaren alde ekiteko izan duten borondateagatik; izan ere, nahiz eta jakin herrigintza ulertzeko eta gauzatzeko modu ezberdinak daudela, ez gara gu izango Antzuolaren aldeko ahalegina ukatuko diegunak.

Helburu guztiak bideratzeko orduan bere lana ondo egiten saiatu diren udal langileak.

Antzuolako txistulari, trikitilari, dantzari, abesbatza, kirol eta mendi talde, jubilatuek elkarte, Gobernu Kanpoko Erakunde eta gainontzeko giza taldeak, bakoitzak bere esparruan berrikuntza eta ekarpen interesgarriak egin dizkigutela antzuolarroi.

Baita ere, herri dinamikan parte hartzen duten talderik gabeko pertsonak. Batzuk urtetan zehar aritu dira, beste batzuk puntualki, baina denak beharrezkoak dira gure bizitza hobetzen laguntzen digutelako.

Herriko irakasle eta gurasoak, inguruko eta kanpoko hezkuntza munduan erreferen-

te bat izatera eraman dutelako Antzuolako eskola, baina batez ere, haur eta familiekiko erakutsi duten gertutasun eta konpromisoagatik.

Ehunka herritar anonimo, bakoitzaren neurriko partaidea eta inplikazioagatik. Eta, baita ere, nahi gabe lerro hauetan aipatu ez ditugunak. Eskerrik asko denei.

Aipamen berezia bidean gelditu diren arren gogoan dauzkagunei, nonbait, hodeien ostean, baldin badaude entzungo gaituztelako.

Torresoroa, historia xamur honen helmuga bat da; orain bidea egiten jarraitzea tokatzen zaigu, beste erronka batzuei aurre egitea: proiektu bizia, elkargunea izan dadila, non adin guztietako antzuolarrok gure lekua izango dugun. Ateak zabalduz daukagunaz gozatu, belarriak findu, iritzi eta nahi ezberdinak entzuteko, eta eskuak luzatu elkarlanerako, hauek dira-eta aurrera egiteko ditugun tresna baliotsuenak.

## Barkatu, Antzuolako EAJ-PNV!

**Pedro Iturbe, Patxi Olabarria, Mari Paz Ugalde, Andoni Azkargorta, Mari Carmen Jauregi**  
(Antzuolako alkatea eta zinegotziak)  
Antzuolako

Urte eta erdi pasa da jada, 2007ko maiatzean Antzuolako herritarrek beraien bermea eta konfiantza eman zigutenetik herri hau antolatuta eta aurrera eramateko. Inoiz ez dugu ukatu eta ez genuen ukatzen ere, leku-hartzea kosta egingo zitzaigula, baina lanean oinarritzen genuen gure konpromisoa eta ziur egon horretan, behintzat, hutsik ez dugula egin.

Lehen esan bezala urte eta erdiko bidea, 2008ko aurrekontuak onartu genituenean (Antzuolako EAJ-PNV, kontra, noski!), hainbat helburu finkatzen genituen bertan, udaletxeko sistema informatiko prekariora berritzea, Torresoroa-ko eraikineko zerbitzuen ekipamendua (aurreko agintaldiak inbertsiotarako gastuan aurreikusitako ez zuena), kanpandorre berrituaren erloju eta tximistorratza, Bustinzuri kalea urbanizatzen bukatzea (aurreko agintaldiko akordio txapuzero eta ez zuzena behin betikoz amaituz), kirol instalazioak berritzea eta baserrietako ur eta saneamenduaren proiektua, 2006tik *impasean* aurkitzen zen aurreproiektua bideratzea. Beraz, aipatutako batzuk eginak daudela jakinekoko dugu; beste batzuk, berriz, urtea

bukatu aurretik forma hartuko dute; frontoia urtea bukatu aurretik eraberritua egongo da eta ur eta saneamenduaren inguruan diagnostikoa eta proiektua egin eta gero, proiektuaren lehen fasearen zati bat adjudikatu nahiko genuke. Beraz, ikus genezake aurrekontuetan hartutako konpromisoak betetzear gaudela (Antzuolako EAJ-PNV, ez dirudi kea saltzen dugunik bakarrik!). Bestalde, hau guztia horrela izanda, Udal Gobernuaren nahia ez da gauzak ahalik eta handien egitea, baizik eta gauzak ahal diren eta ondoen egitea (eta herritarrek badakite).

Beraz, Antzuolako EAJ-PNVri barkamena eskatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu hainbat arrazoiengatik: 1. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, 2007ko ekainean Gobernu Batzordean egoteko gonbidapena egin genizuelako eta zuek aukera horri uko egin zenietelako. 2. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV aipatzen duzun 90ºtako giroarekin ez gaudelako bat, 180º tako giroa nahi genuke eman, zuen gestio eredutik (lur azpiko kontainerrak, zabor errauskailuak, hiltegiak ixteko apustua, AHT-*r*?n proiektua, inposizioak... 3. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV aspaldi aldarrikatu genuen kolore grisetik anitz kolore dituen udal batetara pasatu bagara, ez ahaztu *apartheid* politikoa lotsarik gabe gestionatu zenuela (galdetu ezker abertzaleari). 4. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, gu baino argiagoak zaretelako. Torresoroa eraikin berri eta liluragarrian, "funtzionamendu plana" falta dela aipatzen duzue. Lehen pausua funtzionatu ahal izateko ekipamendua behar du, eta behin horrela aipatuko diguzue non ikusten duzuen gabezia. 5. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, batzorde informatzaileak (praktikan erabakitzaileak) "reuniones estériles" ez direla sinisten badugu, eta herritarren hitzarekiko errespetu falta nabari hori ulertzen ez badugu. 6. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, herriko argiterian (zuek lagatako egoeran), poliki-poliki hobekuntzak egiten baldin bagaude, baita ere gaur eguneko kaleak inoiz egon diren baino garbiago baldin badaude; batez ere azpi-kontratazioa mugatu eta Udal langileei konfiantza eta errespontsabilitatea ematea delako gure helburu (Udal langileei gure esker ona transmititu nahi diegularik. Inaki Alkorta aipatzea ere, ezinbestekoa dugu). 7. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, alkateak Antzuola Udal Etxegintzan auditoria bat proposatu eta gero, sozietate publiko horren egoera jakin

ahal izateko AUE-ko teknikoei txosten ekonomiko bat eskatu genielako, eta datu horiek zuei ere pasatu genizkizuelako (irakurri ere egin behar dira). 8. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, zuen proiektu bat ere ez delako gurea, zuen Agenda 21 ere ez delako gurea, jendeari galdetu eta gero nahi duguna egiteko, ez baita gure estiloa (AHT, Sagasti parkea). 9. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, dirulaguntzen inguruko bandera gure bizkar gainean eraman nahi ez dugulako, zuek bezala (nahiz eta zuek 1.800.000 euroko zulo ekonomikoa laga zenuten (hainbat gastu kontutan hartu gabe!) etorkizuneko udal inbertsio aukerak hutsera murriztuz; baina, lasai, laguntzak etortzen hasi eta etortzen jarraituko dute-eta. 10. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, urte betean zuen konfiantza eskaini diguzuelako eta lan egiteko zuen konfiantza beharrik ez dugulako, ez zarete ahal guztidunak. Eta, azkenik, eta hamaika barkamen eskatzeko beharra genuenez, 11. Barkatu Antzuolako EAJ-PNV, Antzuola eta mundua zuek bezala ulertzen ez dugulako, Antzuolan gaur eguneko Gazte-Txokoaren inguruan sortu den talde eta dinamika, eduki dezakegun onena zinez dela sinisten dugulako.

Espero dugu hauek guztiak barkatu ahal izateko gauza izango zaretela, zuen legearen printzipio oinarritzak izanik.

Lanean oinarritzen genuen agintaldi hau eta aurrerantzean, orain artean bezala, esparru ezberdinen inguruan lanean jarraituko dugu. Instituzioen artean informazioa eta elkarlana uztartuz (eta ez ezkatatuz!). Ziur gaude eta nahiz eta onartu beharra dagoen egoera ekonomikoa ez dela nahi genukeen onena (zerbitzu oso garrantzitsuak martxan daudelarik honen ondorioz), etorkizuneko Antzuola janzen jarraituko dugula.

## Argitze aldera

**Mikel Etxaniz**

(Bergarako Aralar  
Udal taldearen izenean)  
Bergara

Azken egunotan agertutako bi albistek, zenbait herritarren artean gure Udal jarduerarekiko sortu nahi dituen kezkek direla-eta, inongo eztabaidatan sartzeko asmorik gabe, zenbait argibide eman nahi genituzke.

Alde batetik, EAJk etxez etxe banatutako orri batean, Zabalotegiko bide berria aurreko Udal Gobernuaren egitasmo bezala aurkeztu du, gobernu horretako kideak EAJ-EA-Aralar berariaz

baliatuz. Horren aurrean, argitu nahi dugu gobernuaren kide izan arren, Aralarko zinegotziak ez zutela proiektu hori inoiz onartu eta hori egiaztatzen dutela proiektu horri aurkeztutako alegazioak.

Bestetik, GOIENKARIAko azken zenbakian argitaratutako albiste batean (15. orrialdea), Seminarioko proiektu buruzkoa, proiektu horretan izan den asmo aldaketa gobernu aldaketarekin lotzen zen. Egia da iritzi aldatu dugula, baina ez irizpide politikoa aldatu dugulako, baizik eta agintaldi berriarekin batera, gai horren inguruan aldaketak egon direlako eta aldaketa hauekin aukera berriak sortu direlako.

Aurreko agintaldian ez genuen aldaketa hauen berri izan, nahiz eta gero jakin dugun "nor bait" jakitun zela.

Aralarrek bergararren interesen alde borrokatzen jarraituko du alderdiaren interesak alde batera utzita. Hobe lukete beste alderdi batzuek ere berdin jokatu balute. Besterik gabe.

## Eskerrik asko!

**Ana Parra**

(Anezka dendakoa)  
Bergara

Zapatuan Bergaran Bedelkarrek antolatutako azoka dela-eta, nire poza eta esker ona erakutsi nahi diot Bergarako herriari. Alde batetik, Udalarari azoka hau egiteko eman duen laguntza guztiagatik. Eta beste aldetik, Bergarako herriari bere kolaborazio eta partehartzeagatik. Benetan, eskerrik asko!

## Udalatx ingurua

**Eskarne Garitaonandia**

Arrasate

Urriaren 12an Besaide elkartearekin bateranoen martxa egin nuen. Arrasatetik irten eta Udalaraino joan eta Udalan bertan, beste bueltatxo bat Udalatxeko magaletatik, baina behetik, gora igo barik. Antzinako bideetatik ibili ginen eta hau posible izan zen Udalak bide horiek guztiak garbitu egin dituelako. Urte mordoan egon dira sastar, sasi eta belarrez beterik. Gustatuko litzaidake Udalak bide hauek horrela mantentzea. Horretarako, komeni da jendeari bide hauen berri ematea; horrela, jende askok erabiltzen badu, samurragoa izango da Udalak horrela mantentzea. Bestalde, pentsatzen dut jende asko joaten dela Udalara errepidetik eta errepide hori oso estua eta arriskutsua da.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



**Barrenkalea 33**  
**20570 BERGARA**



**Telefonoa:**  
**943 25 05 05**



**Faxa:**  
**943 25 05 12**



**Posta elektronikoa:**  
**goienkaria@goiena.com**



# KIBUC GURE AMETSA ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK **WWW.KIBUC.COM** NIRE ETXEA DUT

**AZPEITIAN GAUDE, ALTZARIAREN SORLEKUAN, ETA ARLO HONETAN 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU.**

**4.000 METRO KOADROTIK GORAKO GUZTIZ ERABERRITUTAKO ERAKUSKETA DUGU.  
ESKATU ORDUA ETA GURE DEKORATZAILE PROFESIONALEN AHOLKULARITZA.  
ESKATU PARKING ZERBITZU PRIBATUA.**



**KIBUC**  
altzari eta osagarriak

Azkenean gure etxean

gureametsa@kibuc.com  
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia  
Tel.: 943 15 16 81

**KIBUC** Gure Ametsa  
altzari eta osagarriak

[www.kibuc.com](http://www.kibuc.com)



2008ko urriaren 16tik azaroaren 15era




# EROSKI

Zuk esandakoa entzun egingo dugu: 902 54 03 40  
www.eroski.es

## zurekin

informatika · irudia · soinua · telefonia

# CONNECTA U8



# 899€

Gehitu 4 urteko garantia 59 €-ren truke

12 aldiz interesik gabe\*

TFT-LCDA, PHILIPS  
42PFL-5603D

- ✓ Virtual Dolby Digitala
- ✓ Diseinu berritzailea
- ✓ Kontraste dinamikoa: 30000:1

USB  
konesioa

Produktu bakoitzaren erosketa-gida, ezaugarri garrantzitsuenen konparazio, abantaila eta azalpenekin



# Herriak

Arrasate > 18-19 Bergara > 24-25 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**  
Aita Santuaren aurrean abestuko du parrokiako koruak > 20



> **BERGARA**  
Herriko parkeetako zuhaitzen osasun egoera aztertuko dute > 24



> **ARETXABALETA**  
Margo gorritz zikindu dituzte udaletxeko balkoia eta pankarta > 32



> **ELGETA**  
Kultura etxeko igogailua laster erabili ahal izango da berriz > 37

OÑATI > LUDOTEKAREN INAUGURAZIOA

## Eskolaz kanpo programa hezitzailea landuko dute Txaloka ludotekan

### INAUGURAZIOA

Astelehenean zabaldu zuten Lizaur kaleko ludoteka

### ATE IREKIAK

Urriaren 31ra arte, ate irekien jardunaldiak egingo dituzte

### IKASTURTEA

Azaroan hasiko dira zerbitzua ematen AHK kooperatibako kideak

### MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Txaloka ludotekak atek zabalik ditu astelehenean. Inaugurazio ekitaldia egiten zuten eta han egon ziren, besteak beste, Lourdes Idoiaga alkatea; Haur eta Gazteak batzordeko zinegotzi Mikel Iturrospe; Gizarte Zerbitzuen batzordeko zinegotzi Rosarito Galdos; Kiroletako batzordeko zinegotzi Andoni Gartzia; eskara teknikariak eta herriko ikastetxeetako ordezkariak.

Inaugurazio ekitaldia egin ondoren, ate irekien egunak egingo dituzte urriaren 31ra arte, eta azaroan hasiko dira zerbitzua ematen. Horren harira, AHK kooperatibako Lukene Astigarraga eta Iraia Agirrebaltzategi izango dira ludotekako hezitzaileak. Euren esan digute zeintzuk diren ludotekaren helburuak: "Jolasen bidez haurraren heziketan laguntzea da gure helburu nagusia. Hortaz, funtsezko balioak landuko ditugu: berdintasuna, errespetua, elkarbizitza eta kulturartekotasuna, beste batzuen artean. Horiek guztiak euskal giroan landuko ditugu", azaldu dute. Horretarako, jostailuak, liburuak, eskulanak eta beste hainbat material pedagogiko erabili dute.

Ikastetxeen bidez banatu dute ludotekaren gaineko informazioa, eta orain izenemate epea



Inaugurazio ekitaldian, Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariak eta ludotekako hezitzaileak.

MIREIA BIKUÑA

zabaldu dute: "Umeek etxera eroran duten izenemate orria bete beharko dute, eta Kutxan bazkide kuota ordaindu beharko dute. Izemate orria jaso ez dutenek ludotekan bertan jaso ahal izango dute. Izemate bukatu ondoren,

azaroan hasiko gara zerbitzua ematen", esan digu Lukene Astigarragak.

Ludotekaren erabileran ikastetxeetako ordezkarien garrantzia azpimarratu zuen Lurdes Idoiak inaugurazio ekitaldian:

"Eskola orduetatik kanpo eskainiko dugun zerbitzua da, baina eskolan garatutakoa modu ludikoan lantzeko aukera izango dute. Hortaz, irakasleen papera garrantzitsua da, euren dira-eta ludotekaren garrantziaz berba

egingo dietenak. Gure ustez, eskolan eta ludotekan landuko dutena, biak bateragarriak dira".

### ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA

Txaloka ludoteka 4-12 urte bitarteko neska-mutikoendako zerbitzua da, eta astelehenean egubakoitzera zabaldu ditu ateak, 17:00etatik 20:00etara arte. Neska-mutikoak bi txandatan banatu dituzte, adinaren arabera: alde batetik, 4-7 urte artekoak ibiliko dira, 17:00etatik 18:30era arte; eta beste alde batetik, 8-12 urtekoak 18:30etik 20:00etara arte.

Kuotei dagokienez, hainbat aukera daude: bazkide kuota egiten dutenek 160 euro ordainduko dute azarotik ekainera arte erabiltzearen; eta beste alde batetik, 80 euro azarotik otsailera erabiltzeagatik. Familia-kuota egin daiteke: 240 euro azarotik ekainera arte, eta 120, azarotik otsailera arte. Egoera ekonomiko bereziak dituzten familien kasuak banaka aztertuko dituzte.

### 122 METRO KOADROKOA

Ludoteka berriak 122 metro koadro ditu, eta bi gela nagusi: irakurgela (35,61 m<sup>2</sup>) eta jolasgela (55,59 m<sup>2</sup>). Gainera, harreragunea, komuna eta biltegi txiki bat egokitu dituzte.

### ERABILTZAILEEK ESANDAKOAK



Maidier Atxa eta Nagore Zelaia

"Bagenekien inaugurazio eguna zela eta horregatik etorri gara. Lekua polita da, kolore askokoa. Baina oraindik ez dakigu etorriko garen. Arratsaldez bakarrik zabalduz garen, astelehenean egubakoitzera arte, eta ez daukagu denbora libre askorik etortzeko. Gurasoekin egin beharko dugu berba eta gero erabaki".



Unai Zabaleta eta Aritz Sagasta

Gozokiak, patatak eta txokolatea jaten harrapatu genituen Unai eta Aritz. "Ludoteka gustatu zaigu eta gustura gaude hemen, liburuak eta jostailu asko daude-eta. Baina zerbitzua ematen hasten direnean, ez dakigu etorriko garen. Eskolatik irteten garenean beste ekintza batzuk egingo ditugu, eta guztia egiteko ez daukagu astirik", esan ziguten.

### ESANAK

"Atek zabalik dauden bitartean, herritar guztiak daude gonbidatuta ludoteka barrutik ikusteko"

Lukene Astigarraga > Hezitzailea

"Funtzio hezitzailea duen zerbitzua da, eta bi arduradunak haur hezkuntzan eta pedagogian adituak dira"

Lourdes Idoiaga > Alkatea



## zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

## ARRASATE

Zapatua, 25	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Domeka, 26	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Astelehena, 27	Fdz. Corcuera	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Martitzena, 28	Irizar	Erguin, 11	943 79 12 39
Eguaztena, 29	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Eguena, 30	Español	Araba, 4	943 79 18 65
Egubakoitza, 31	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09

## BERGARA

Zapatua, 25	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 26	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 27	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 28	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 29	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Eguena, 30	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 31	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05

## OÑATI

Zapatua, 25	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 26	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 27	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 28	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 29	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 30	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 31	Anduaga	San Lorenzo, 3	943 78 21 16

## ARETXABALETA

Zapatua, 25	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Domeka, 26	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Astelehena, 27	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 28	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 29	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 30	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 31	Juan Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

## TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))  
SOS DEIAK

## OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaiio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

## GARRIAOK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaiio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 71 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

## DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzgia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaiio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaiio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaiio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

## URBANOAK

## ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urbarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Bite-ri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obreiro, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urbarri, Erguin A eta Gorostiza.

## BERGARA

**San Lorenzo/San Juandik irteerak**  
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geraletuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Sorraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegarieta/Olabarretik irteerak**  
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geraletuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

## ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaiio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaiio	Arrasate
08:30	09:00	08:05
	10:15	09:15
	10:30	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

## eguraldia

## DEBAGOIENEAN



## Zapatua, 25

Zerua oskarbi egongo da egun osoan zehar, baina tenperatura baxuak izango ditugu 15°C-en inguruan. Hala ere, ez du izotzik egingo.




## Domeka, 26

Domekan, giro eguzkitsua izango dugu. Tenperaturek gora egin dezakete, baina giro freskoa mantenduko da.

## EUSKAL HERRIAN

Zerua oskarbi edo hodei gutxi-rekin egongo da egun osoz. Haizeak ekialdetik joko du eta, horren ondorioz, maximoak ez dira asko igoko: barnealdean 15-17°C-ra eta kostaldean 18-20°C ingurura. Domekan antzerako eguraldia izango dugu eta zenbait lekutan izotza egin dezake.



## oharrak eta deialdiak

## BERGARA

## &gt; Masaje ikastaroa antolatu du Jardunek

Jardun euskara elkartek masaje ikastaroa antolatu du, euskaraz. Azaroaren 4an, 6an, 11n eta 13an izango dira eskolak, Aranzadi ikastolako Psikomotrizitate gelan, 19:00-21:00. Izenematea zabalik dago urri osoan, 943 76 36 61 telefonon (Maitena). Masajeak eta euskara batu-ko ditu ikastaroak.

## OÑATI

## &gt; 'Asietik Arantzazura', Jonan Fernandezekin

Baketik zentroko koordinatzaile Jonan Fernandezek Asietik Arantzazura. Lau ikas-kuntza delako hitzaldia egingo du bihar, zapatua, Arantzazuko Gandiaga Topagunean, 10:30ean.

## ARRASATE

## &gt; San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleak

San Frantzisko Xabierreko 1971ko ikasleek afaria egingo dute azaroaren 28an, eta izenematea zabalik dago azaroaren 18a arte [jongoiko@iservices-mail.com](mailto:jongoiko@iservices-mail.com) helbide elektronikoa eta 649 37 58 05 telefonon. Egunean, 19:30ean batuko dira Iratin.

## BERGARA

## &gt; Euskararen ordenantzen gaineko ekarpenak

Bergarako Euskaltzaleen Bilguneak gaur, egubakoitza, ere

## hartuko ditu euskaren ordenantzen behin-behineko proposamenari herriarrek egin nahi dizkieten ekarpenak. Behin-behineko proposamen hori Jardunen eskura daiteke.

## ARETXABALETA

## &gt; Txotxongilo ikastaroa egiteko aukera

Txotxongilo ikastaroa antolatu du Lora-mendi euskara elkarteak. 12 orduko ikastaroa da, eta txotxongiloak egiten eta haiek erabiltzen erakutsiko dute. Gaur, egubakoitza, da izena emateko azken eguna, kultura etxean. Matrikula 40 euro da.

## ARRASATE

## &gt; 1943an jaiotako emakumeen ospakizuna

1943an jaiotako emakume arrasatearrak batera bazkaltzeko elkartuko dira. Izen emateko, joan Murrumendiarratz gozotegira.

## ARRASATE

## &gt; 'El Salvador bihotzean' delako topaketak hasiko dira etzi, omenaldi eta bazkari batekin

El Salvadorren borrokatu zuten Pakito Arriaran, Begoña García eta Marta González omenez, *El Salvador bihotzean* topaketak izango dira Arrasaten. Etzi, domeka, omenaldi egingo diete Seber Altuben (13:00) eta bazkaria izango dute gaztetxean; txartelak salgai daude Basatin, Iratin eta Beinken.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

## TENPERATURAK

MINIMO  
Domeka, 19

7 °C

MAXIMO  
Eguaztena, 15

27 °C

ASTEKO  
EURIA (l/m<sup>2</sup>)

45 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 15	27 °C	15 °C	- l/m <sup>2</sup>
Eguena, 16	20 °C	13 °C	5,4 l/m <sup>2</sup>
Egubakoitza, 17	23 °C	14 °C	0,4 l/m <sup>2</sup>
Zapatua, 18	21 °C	12 °C	- l/m <sup>2</sup>
Domeka, 19	24 °C	7 °C	- l/m <sup>2</sup>
Astelehena, 20	25 °C	9 °C	- l/m <sup>2</sup>
Martitzena, 21	16 °C	12 °C	39,2 l/m <sup>2</sup>

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA URRIAN



Ilgora 7  
Ilbete 14  
Ilbehera 21  
Ilberri 28

eta 15:00-17:00 (azken bisitak, 13:00etan eta 16:00etan). Astelehenean itxita daude. Argibideak: 943 08 20 00.

## BERGARA

## &gt; Berriketan egitasmo-rako laguntzaile bila

Berriketan egitasmoan euskaldun berriei laguntzeko jendea behar dute. Euskaraz jakitea eta eurekin astean ordu betez jarduteko gertu egotea besterik ez da behar. Argibideak, Jardun euskara elkartearen (943 76 08 19 / 943 76 36 61).

## ARRASATE

## &gt; Nortasun Agiria egingo dute hilaren 27an

Nortasun Agiria egingo dute urriaren 27an eta 29an (NA elektronikoa bi txandatan egiten dute). Interesa dutenek txanda hartu behar dute BAZen (943 25 20 00 da telefona).

## BERGARA

## &gt; 1953an jaiotakoekin kinto afaria

1953an jaiotakoekin afaria izango dute azaroaren 15ean Tartufon. Izenematea zabalik dago jatetxean edo Tasioren kioskoan.

## BERGARA

## &gt; 1944an jaiotakoekin kinto ospakizuna

1944an jaiotakoekin afaltzera batuko dira azaroaren 29an Azpeitxin. Izenematea zabalik dago Hernandez bodegoian eta Sanchez ile-apaindegian.



kale inkesta

## Zela joan zen domekan Elgetako I. pintxo lehiaketa?



**Arantxa Aretxaga**  
Txapelduna  
Elgeta

Pozik nago. Bakailaozko pintxoak, gaztazko tutu-txoak eta foie pintxoak aurkeztu ditut. Lehenengoa atera ohi dut tabernan, baina beste biak ez. Aurrerantzean kanutiloak ere aterako ditut.



**Manu Sarasua**  
Epaimahaiko kidea  
Elgeta

Lan zaila izan dugu. Pintxoak banaka aurkeztu beharko lituzkete eta ez sei pintxo bandeja batean. Saria pintxo onenari eman beharrean, bandeja onenari eman behar izan diogu.



**Edurne Alberdi**  
Turismo zinegotzia  
Elgeta

Balorazio positiboa egiten dut. Uste dut festa egun polita izan dela. Jende dezente ibili da eta aipatu nahiko nuke perretxiko biltzaileek eta ostalariek egindako lan ikaragarria.



**Xabier Ezpeleta**  
Ostalaria  
Elgeta

Esperientzia polita izan da. Badago zer hobetu datozen edizioetarako, baina jendea etorri da kanpotik eta gurean pintxo dezente saldu ditugu. Esan daiteke jendea mugitu duela.



**Paolo Fabris**  
2. saria  
Elgeta

Hiru pintxo aurkeztu nituen nik eta esperientzia polita izan zela esango nuke. Jendea ibili zen. Askok interesatu egin dira egindako lanarekin. Errepikatze modukoa izan zen.

5 galdera...

## Jose Mari Larrañaga

Perretxikoetan aditua  
Bergara

### 1. Perretxiko denboraldia hasi da. Nola doa aurten-goia?

Aurten oraindik ere perretxiko gutxi dago. Alde batetik, euri gutxi egin duelako eta horregatik basoa oso siku dagoelako, eta bestetik, ipar haizea ibili delako.

### 2. Zelakoa da Debagoienean dagoen zaletasuna? Egoten da arazorik?

Gure bailaran zaletasun handia dago. Jende asko ibiltzen da perretxikotan. Hemen, zorionez, oraindik ez dute jarri jaso daitekeen kopuruaren gaineko mugarik; Araban, ordea, jartzekoak dira – gehienez bi kilo jaso daitezke – eta Ultzama aldean ipini dute eta ez zait ondo iruditzen. Debagoienean ez dago arazorik.

### 3. Erraza al da bereiztea perretxiko onaren eta txarren artean?

Orokorrean, jendeak perretxiko mota konkretu bat hartzen du beti: onddoak eta gibelurdinak. Beharbada, baita beste bi hiru mota gehiago, baina ez dira asko izaten; beraz, modu horretan, nahastea zaila izaten da. Hala eta guztiz ere, perretxiko bila lehen aldiz doana kontu handiz ibili behar da, ez baita erraza bereiztea. Garai honetan, perretxiko asko daude, eta jendearengan nahasmena sor dezake horrek, jende askok perretxiko batzuk susarekin nahasten dituelako.

### 4. Perretxikoak batu eta gero zein da horiek jateko erarik goxoa?

Niri gehien gustatzen zaidana gibelurdina da, perretxikoetan erregea. Prestatzeko erari dagokionez, lehenengo perretxikoa ondo garbitu, txikitu eta kipula pixka batekin frijitu, eta gero, nahi bada, arrautza bat egin, baina aparte ipini biak, nahaskia egin gabe.

### 5. Zein gomendio emango zenioke lehen aldiz perretxiko bila doan pertsona bati?

Har dezala ezagutzen duen perretxikoa, eta ezagutzen ez duena, apurtu gabe bertan utzi, atzetik datorren besteren batek eza-gutu dezakeelako.



txaloak eta txistuak



GOIENKARIA

## Zubiaurreko errepidea egoera txarrean



Begarako Zubiaurre kalean ateratako argazkia da. Irudian ikusten denez, errepideko zorua- ren egoera ez da batere ona. Kale erdi-erdian, zorua apurtuta dago. Modu horretan, edozein txirrindularik edo oinezkok min hartu dezake. Bestalde, esan behar da lur zati hori asko mugitzen dela. Auzoa gehiago zaintzea eskatzen du argazkia bidali duen irakurleak.

asteko datua

## 6

Txokolate eta kakaoarekin egindako produktuak egin eta saltzen dituen Natra taldeak azken bi urteetan makinatan eta ikerketa prozesutan sei milioi euroko inbertsioa egin du Oñatiko Natra-Zahor lantegian.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



BASERRITARRAK &gt; AZOKA

# Baserritik kalera ekarriko dituzte produktuak azaroaren 8an

Arrasateko Baserriko Produktuen Azokan herriko bederatzita baserritar eta Jakion izango dira

Lanku bertsolari elkarteak 'Zazpi Astoren Gainean' ikuskizuna egingo du, 12:00etan

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Barazkiak, odolosteak, babak, intxaurrak, ogiak, gaztak, pastelak... Berez gozoak diren produktuak eta gainera gure baserrieta-

ko kalitatea dutenak. Halakoak ipiniko dituzte salgai azaroaren 8ko Arrasateko Baserriko Produktuen Azokan (09:00-14:00). Arrasateko bederatzita baserritar izango dira eta Leintz Gatzagako Jakion enpresakoak ere bai, Debagoieneko nekazal produktuak gertatzeko sortutako enpresakoak. "Arrasateko zenbait baserriekin lotura dutenez, beti eman izan diogu aukera Jakioni azoka honetara etortzeko, eta badatoz", kontatu du Marga Garmendiak, azoka antolatzen dabilen udal teknikariak.

Hori bai, txakolinik ez dela egongo ere kontatu du, baserritarrek ez dutelako "saltzeko beste generorik".

Kontuak kontu, pozik daude aurten izandako erantzunarekin: "Promozio azoka da; agerian da gero eta baserri aktibitate



Berdurak, kontserbak eta beste aurki ditzake erosleak azokan.

GOIENKARIA

## Azokako partaideak

AUZOAK	BASERRIA
Bedoña	Errastikoa
Bedoña	Bidasoro
Bedoña	Etxebarri
Gesalibar	Inuzketa aldekoa
Meatzerreka	Mietza
Meatzerreka	Askasibar
Musakola	Aranguren
Leintz Gatzaga	Jakion
Uribarri	Ikutixo
Uribarri	Gorostiza



Hasiera ekitaldian, eskola eta udal ordezkariak izan ziren, besteak beste. OIHANA ELORTZA

HEZKUNTZA &gt; ESPERIENTZIAREN ESKOLA

## Esperientziaren Eskola inauguratu dute asteon

50 urtetik gorakoei zuzendutako ikasketak egin ahal izango dira aurrerantzean herrian

U.M. &gt; ARRASATE

Atzo, eguna, izan zuten aurreneko eskola Esperientziaren Eskolaren ikasturterako izena eman duten helduek. Maiatzera arte, astean hirutan izango dituzte eskolak. Osasuna zaintzea eta hobetzea, gizarte harremanak,

filosofia, zuzenbidea, psikologia... eta beste asignatura batzuk izango dituzte.

IZENA EMAN DAITEKE

Debagoiena da Gipuzkoan Esperientziaren Eskola estreinatzen duen azkeneko eskualdea. Estreinaldi arrakastatsua izan da. Izan ere, 20 lagunendako lekua egonda, 21ek eman du izena. Hori horrela, 25eko taldea sortzea erabaki dute. Beraz, oraindik bada go izena emateko aukera: IMIren lehengo lokalean edo 943 22 41 43.

OBRAK &gt; ABIADA MURRIZTEKO

## Zirkulazioa moteltzeko obrak, Gesalibar auzoan

Joan den astean hasi eta beste hilabetez ibiliko dira obretan, eguraldiaren arabera

U.M. &gt; ARRASATE

Gesalibar auzoan, Aita Menni ospitalearen kanpoko errepidean obrak egiten dabilta joan den asteaz geroztik. *Traffic Calming* izeneko lanak egiten dabilta, edo bestela esanda, zirkulazioa baretzeko lanak. Hala jakinarazi du Gipuzkoako Dipu-

taziotik Oskar Rekalde komunikazio arduradunak. Gaineratu du, eguraldiak laguntzen badu, hilabetean bukatuko dituztela obrak.

Esan moduan, helburua da zirkulazioa moteltzea, baina baita ere oinezkoen pasabidea erraztea, batez ere, inguruan ospitalea dagoela jakinda. Hala, erreilak estutuko dituzte, mediana ipini eta oinezkoendako babesgunea ere bai.

Gipuzkoako Diputazioa dabil obrak egiten, Arrasateko Udalak hala eskatuta.



Langileak lanean, Gesalibar auzoaren sarrera inguruan.

MIRIAN BITERI

&gt; OBRAK

## Datorren astean hasi behar dira Abaroa berria eraikitzen

Datorren astean hasiko gara obra mugimendua ikusten San Andres auzo inguruan, *Etzaluze* baserria zegoen orubean, orduantxe hasi behar dituzte eta Abaroa zaharren egoitza berria eta San Andresko alkatetza berria hartuko dituen eraikina egiten. Behin obrak hasita, 16 hilabeteko epea dute bukatzeko. Urtebete pasatxo, beraz, ikusi ahal izango dugu Biark Studio Arrasateko arkitecto enpresak ideiatutako eraikin berritzailea.

&gt; OBRAK

## Muxibarko garajearen eskaera ez du onartu Udalak

Udalak ez du onartu Gorostizako bizilagunek Muxibarko garajearen sarreraren gainean egindako eskaera. Goiko sarbidea ibilgailuendako dago aurreikusita eta auzotarrek gura zuten oinezkoendako izatea; 200 sinaduratik gora batu zituzten hori babesteko. Bada Udalak erantzun die sarbidearen baimena lehenago eman zuela eta ez dela "zilegi Udalaren aldetik berak emandako baimenaren aurka joatea".

&gt; OBRAK

## Kaleak labainkorak izan ez daitezten, tratamendu kimikoa

Alde Zaharreko bi kaletan tratamendu kimikoak eman behar dituzte, labainkorak izan ez daitezten. Obra Sailetik emandako xehetasunen arabera, Ferrerias eta Iturriotz kaleetan egingo dituzte lan horiek. Aurreikuspena da orain aplikatuko duten tratamendua datozen bi urteotarako izatea. Murua enpresak egingo ditu lan horiek, astebeteko epean. Dena den, oraindik ez dute obra horiek hasteko egunik finkatu.

&gt; HITZALDIA

## Entzumena zaintzeko gomendioak, Abaroan eguaztenean

Datorren eguaztenean, urriaren 29an, entzumenaren zaintzaren gaineko berbaldia egingo dute Abaroa erretiratuaren egoitzan. Gaes Entzumen Zentroko kideek egingo dute berba. Hitzaldia 18:00etan hasiko da, Abaroa egoitzako bosgarren aretoan. Interesa daukan edozein joan ahal da eta gainera, parte hartzen duten guztiendako oparitzoak izango dela iragarri dute antolatzaileek.



ETXEBIZITZAK > ZERRAJERA

# Errentan emango dituzten etxeen giltzen entrega, eguaztenean

Javier Madrazo Etxebizitza Sailburua eta Ino Galparsoro alkatea izango dira Kulturateko ekitaldian, urriaren 29an, 12:00etan

UBANE MADERA > ARRASATE

Arrasaten errentan emango dituzten babestutako etxebizitzak datorren eguaztenean entregatuko dituzte. Ekitaldi ofiziala egingo dute, Kulturaten, 12:00etan. Sinbolikoa izango da ekitaldia, izan ere, etxebizitza horiek eskuratu duten pertsona bakoitza deituko dute banan-banan, giltzen entrega egiteko. Hori baino lehenago, baina, 10:30 inguruan elkartuko dira maizterrak eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak, kontratuak sinatze-

ko. Halaxe jakinarazi dute Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko ordezkariak.

**JAURLARITZAKO ORDEZKARIAK**

Giltzen entrega ekitaldian izango dira, besteak beste, Javier Madrazo, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburua; Jose Manuel de la Fuente Alokabideko ordezkaria; eta Ino Galparsoro, Arrasateko alkatea.

Ekitaldi ofizialaren ostean maizterrek etxebizitzak estreinatuko dituzte.

**300-350 BAT EURO HILEAN**

Zerrajera inguruan eraikitako 100 etxebizitza dira guztira (Nafarroa etorbidean). Horietatik 42 bi logeladunak dira, eta beste 58, hiru logeladunak. Errentari dagokionez, berriz, maizter bakoitzak kopuru jakina ordainduko du. Hori kalkulatu dute etxebizitzaren tamainaren arabera eta norberaren errentaren arabera. Baina borobilduz gero, 300-350 euro hilean ordainduko dute maizterrek. Alokabide izeneko alokairu sozietatea arduratuko

da etxebizitza horien kontratu eta halako kontuekin. Kontratua, hain justu, bost urterakoa izango da. Eta behin epe hori bukatuz gero, maizterrek Alokabidek zehaztutako baldintzak betetzen segitzen badute, berritu egin ahal izango dute.

**GAZTEAK ETA NAGUSIAK**

Bestalde, maizter motari dagokionez, babestutako etxe mota horiek, batez ere, pertsona gazteei (35 urtetik behera) eta pertsona adinduei (65etik gora) dautu zuzenduta.

**SISTEMA BERRITZAILEA**

Zerrajerako etxebizitza horiek aurrenekoak dira Arrasaten babestutako alokairu sistema erabilia bideratzen direnak. Zerrajerako gainerako 100ak ere (uztailean inauguratutakoak), emakida sistema dutenak, mota horretako aurrenekoak dira Arrasaten. Horiek baino lehenago, ekimen pribatuaren bitartez sustatzen ziren babestutako etxebizitzak, 90eko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzaren aurreneko etxebizitzak egin zituzten arte. Jose Luis Iñarra kalean, Altamira inguruan eraiki zituzten eta promozio sozialekoak izan ziren.

**LEHIAKETAK**

## Perretxiko eta pintxo lehiaketak domekan

11:00etatik 14:00ak arteko ekitaldia egingo dute, Herriko Plazan

U.M. > ARRASATE

Ikasleak taldeka batu eta gaur, egubakoitza, eta bihar batuko dituzten perretxikoekin sortak egin, erakusketa prestatu eta lehiaketa egingo dute Arizmendi Ikastolakoek Herriko Plazan, domekan. 280 bat ikaslek parte hartuko dute ekimenean eta hiru sari izango dituzte jokoan.

Horrez gainera, perretxikoekin pintxo lehiaketa ere egingo dute ekitaldi berean. Hori 13:00etan izango da eta edozein taberna, elkarte edo partikularrek parte hartu ahal izango du. Lehiaketa hasi baino ordu erdi lehenago izena ematea nahikoa da.

Lehiaketekin batera, artisaunen erakusketa, batxilergo-koen taberna, marrazki erakusketa eta beste izango da.

## Mondragon Unibertsitatetik Kubara, ikasketa amaiera bidaiari

Lau egun La Habanan eta beste lau Varaderon (Kuba). Horixe da argazkiko ikasle taldeak irailan egin berri duena.

Mondragon Unibertsitateko ikasleak dira eta Kuba aukeratu zuten karrera amaierako bidaiari egiteko ingeniari informatiko eta ingeniari industrial horiek.

Gustura ibili zirela kontatu dute, "ederki", euren esanetan. Euren asmoa izan zen "lehenengo turismo pixka bat" egitea eta gero erlaxatzea. Hala, Habanan egunero Habana Vieja izeneko gunera joan ziren, "mojitoak edan" eta "bertako jendearekin" egoteko. Varaderon, berriz, besteak beste, katamaranean ibiltzeko aprobetxatu zuten.



LANDER DOMINGUEZ

> GIZARTEA

## Arrasateko Ahotsak aurkeztuko dute gaur, egubakoitza

Elkarriketaren eta elkar ulertzearen alde diharduten emakumeen Ahotsak taldeak ordezkaritza du Arrasaten. Justu, gaur, egubakoitza, aurkeztu behar dute taldea. 20:00etan egin dute hitzordua, Portaloian. Bide horretan lanean segitzeko interesa duten emakumeak taldeko kide izatera gonbidatzeko ere aprobetxatuko dute ekitaldia.

Batzen gaituenetik da Ahotsak-en leloa, hori da eta oinarria: "batzen gaituenetik abiatu, elkarren arteko ulermena bultzatzeko". Halaber, prozesu horretan emakumeen partaidetza aldarrikatu gura dute.

**ad Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

arbolapeta



**BITTORI**

**ERRETEGIA**

Eguneko menua - Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Emanaldietan dena ondo irten dadin jo eta su ari dira entseatzen. Hitzordua dute Aita Santuarekin eta giltza bat oparituko diote

Goio Eskibel viatorista arrasatearra izan da Vatikanon izan duten kontaktua

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

San Juan Bataiatzailea parrokiako koruaren sorrera urtea zehaztea ezinezkoa den arren, urteotan abesbatzak mende bat betetzen du. Jakina da 100 urteotan koruak musikari garrantzitsuak izan dituela eta Arrasate eta inguruko musika kulturaren oso talde garrantzitsua izan dela. Arantza Uriarte egungo zuzendariak dioenez, "parrokiako korua sekula sortu izan ez balitz ez legoke hamaika jarduera eta jarraitzaile dituen musika eskolarik".

Egun, 43 kidek osatzen dute korua: 23 emakumeren eta 16 gizonezkoen ahotsak, Gurutze Uribarren organistak eta Arrantza Uriarte zuzendariak.

ESKIBELEN LAGUNTZA

Goio Eskibel arrasatearra Vatikanoko viatoristen ordezkari nagusienetakoa da. Haren lagun-

MUSIKA > PARROKIAKO KORUA

# Parrokiako koruak bi emanaldi egingo ditu bihar Vatikanon



Parrokiako koruak jo eta su dabil entseatzen Vatikanoko emanaldietan dena ondo irten dadin. Irudian, eguazteneko entsegua.

IMANOL SORIANO

tzaz lortu du parrokiako koruak Vatikanonaren gonbidapena. Bihar ospatuko diren meza bitan hartuko dute parte: lehena 12:00etan Letrango San Juan Basilikan eta bigarrena, 18:00etan

San Pedro Basilikan. Hau da, Uriartek adierazi duenez, "gure koruak, Arrasateko herria ordezkatzeko duela, mundu osoko kristautasunaren erdigunean abesteko pribilegioa izango du".

Bi emanaldien artean kanta bakarra aldatuko dute, azkena. Eguerdian *San Juan abestia* izango da emanaldiko azkena eta arratsaldeko mezan, berriz, *Tu es Petrus*.

OPARIA AITA SANTUARI

Benedikto XVI.ak harrera egingo dio koruari, eta koruak opari bat egingo dio: giltza erraldoi bat, Arrasateko arimaren parte den sarrailagintzaren ordezkari.

IKUSKIZUNA > ZARZUELA

## Izaskun Murgia elkarteak 'El Barberillo de Lavapies' dakar

Francisco Asenjok XIX. mendean idatzi eta konposatutako obran oinarritzen da

J.B. > ARRASATE

Arrasaten zarzuelak jarraitzaile asko ditu. Orain 50 urte inguru Arrasaten zarzuela egiten zen. Tere Gonzalezek zuzentzen duen

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak aurrekoek utzitako lekukoa hartu gura du, Gonzalezek dioenez, "zarzuelaren espiritua berreskuratu nahi dugu".

Oraingoan *El Barberillo de Lavapies* lana ekarriko dute Amaia antzokira. Francisco Asenjo (1823-1894) musikagile madrildarrak konposatutako obran eta Luis Mariano de Larraren (1830-1901) hiru ekitalditako libretoetan oinarritu dira.

LAU EMANALDI

Gonzalezek jakinarazi duenez, bederatzik hilabete daramatzate entseatzen. Zarzuelak arrasatearrak mugitzen ditu, hori argi dago. Izan ere, guztira lau emanaldi izango dira; interesatuak, beraz, ez du obra ez ikusteko aitzakiarik izango. Azaroaren 22, 23, 28 eta 29an interpretatuko dituzte. Saio guztiak, hilaren 28koa izan ezik (20:00etan), 19:30ean izango dira.

> IKASTAROAK

**Gazte Txokoek txalaparta ikastaroa antolatu dute**

Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoek -hiru daude Arrasaten- txalaparta ikastaroa antolatu dute. 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako ikastaro laburra izango da, txalaparta jotzen ikasteko balioko duena. Hau da, "gurea den musika tresna jotzen ikasteko aukera paregabea" izango da bihar San Andres auzoko gazte txokoa. 11:00etan hasiko da ikastaroa.

Izena emateko bi aukera daude: hiru gazte txokoetako hezitzaileei jakinarazi edo 943 79 54 46 telefonora deitu.

> ANTZERKIA

**Maskaradaren 'Ohean' antzezlan bertan behera gelditu da**

Domeka honetan Maskarada antzerki taldearen *Ohean* antzezlan bertan behera zen ikusgai Amaia antzokian, baina proposamen orijinal eta ausart honetan parte hartzen duen aktoreetako bat gaixorik dago, eta beraz, bertan behera geratu da emanaldia.

Eragozpen hauek direla-eta zinema izango da asteburu honetan. Gaur 22:00etan, bihar eta etzi 19:30ean eta astelehenean 20:30ean, *Dejad de quererme* filma proiektatuko dute. Bestalde bihar *Wall-E* filma izango da ikusgai, 17:00etan.

UGARTE

Industria  
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.  
Tel.: 943 -71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



Pando  
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Toilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erlebedun hizkiak





Oñatiko Iker Sukaldeak-en erakusketa aldaketagatik  
**Beherapen ikaragarriak**  
**Zatoz ikustera!**

**IKER**

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

**olentzero**

**Bi aldiz dator!!! 2008**

**Lunch-a**  
**OPariak**  
**Txaranga**  
**BiDeoProiekzioak**

**...eta sorpresa gehiago!!!**

**ARRASATE**



Arrasate Pasealekua 8, Behea

Ostirala, Urriak 24 17:00-21:00 Bitartean

 **ingou**



AUKEA &gt; KIROL EGUNA

# Kirola egin eta kirol taldeak zertan dabiltzan ikusteko eguna, bihar

Aaukek ekintzez beteta egongo den Kirol Eguna antolatu du biharko

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Aukeak herritarrak kiroldegira gerturatzeko ahaleginean jarraitzen du, eta lan hori fruituak ematen dabil, zelan gainera. Musakolan eskaintzen dituzten ikastaroetan herritarren parte-hartzea %40 igo da aurtun, bai

na ez dira horrekin konformetzen. Hala, Musakolako kiroldegia bera, eta bertan egiten duten lana herrira zabaltzeko Kirol Eguna egingo dute bihar: "Bai, neurri batean ate irekien jardunaldi bat izango dela aurreratu genezake. Batetik, kiroldegian instalazio asko berriitu ditugu, eta baita berriak egin ere. Horrekin batera, gurekin ditugun kirol taldeek ze lan egiten duten ere erakutsi gura dugu, eta horretarako hainbat erakustaldi egingo dituzte. Horrekin batera, herritarrek hainbat kirol jardueretan

parte hartu ahal izango dute", adierazi du Arrasateko kirol teknikari Eli Roncerok.

## SARI ETA GUZTI

Hasteko, kiroldegiko bazkideen arreta bereganatzeko, bihar abonatu txartelarekin joaten diren lehenengo mila lagunek podometroa jasoko dute opari: "Horrela bazkideak saritu gura ditugu", eta horretarako modu onena, sariekin batera hainbat kirol jardueretan parte hartu ahal izatea da: Umeendako puzgarriak izango dira igerilekuan (11:00-

13:00), Mojategiko tabernan pin-txoak eta edariak izango dira (11:00etan hasita), Fitness eremua libre egongo da, eta gura duenak entrenamendu pertsonalizatua izango du (12:00-13:30). Eta arratsaldean, bazkide ez direnak ere debalde sartu ahal izango dira kiroldegira, kirola egitera (16:30-18:30).

## ERAKUSTALDI MORDOA

Aipatzekoak dira kirol taldeek egingo dituzten erakustaldiak: 10:00etatik 11:30era kantxa barruan: body balance, pilates, judo, gimnasia erritmikoa, aikido, batuka eta abar; baina erakustaldiak ez dira horretara mugatuko: Mondrak futbol partidu berezia antolatu du, atletismokoak lanean izango dira, arku tiratzaileak, skatea, aquasha, errugbia, pilota, ziklismoa, boloak, saskibaloia eta abar. Gainera, herritarren eginbeharra ez da ikusle soila izatera mugatuko, gura duenak, kirol horiek probatu ahal izango dituelako. Amaitzeko, ikusleen artean urte osorako bi abonu zozketatuko ditu.



ARIZMENDI

## Arizmendiko gurasoen taldea Bordelen

Arizmendiko ikasle eta guraso talde batek ohitura du maiatzean Bordelera joateko, Pessac-en antolatzen duten nazioarteko futbol txapelketan esku hartuz. Iazko edizioan antolatzaileekin berba egin eta zera erabaki zuten: futbola aitzakia hartuta, hemengoak hara joatea, eta gero, hangoak gurera etortzea. Hala, futboleko jokatzearekin batera inguruak bisitatzea da

topaketa horien helburua. Gauzak horrela, erretratu azaltzen direnak Frantzia aldean izan dira asteburuan, eta "asteburu zoragarria" igaro dutela adierazi dute bueltan.

Futbol partiduari dagokionez, hurrengoan errebantxa hartu beharko dute, 2-1 galdu zuten-eta. Hango ostrak jaten, berriz, ez zuten kontrariorik izan.

## futbitoak zaldibar

## EMAITZAK

Betrayer-Ekaintz Taberna	6-4
HLB 108-Total Disaster	8-3
Abokajarro-AT Celaya	5-6
McAwenDauen-Saukelu Kabia	12-5
Iluntz-Iturriotz Taberna	6-4
Lasagabaster-Urza	3-2
Paulaner Dribling-Bar Aldapa	7-4
Cipris-Dublin Irish Pub	2-3
Iriztu Taberna-Equs	5-3

## PARTIDUAK

Urriak 24, zapatua Epailak

10:00 Urza-McAwenDauen Saukelu Kabia	
11:00 HLB 108-Saukelu Kabia	Urza
12:00 Ekaintz Taberna-AT Celaya	HLB 108
13:00 Betrayer-Total Disaster	Ekaintz Tab.
16:00 Bar Aldapa-Iluntz	Equs
17:00 Paulaner Dribling-Equs	Bar Aldapa

Urriak 25, domeka Epailak


12:00 Abokajarro-Iturriotz Tab.	Cipris
13:00 Cipris-Iriztu Taberna	Iturriotz

## SAILKAPENA

	P	J
1. McAwen Dauen	3	1
2. HLB 108	3	1
3. Dribling	3	1
4. Betrayer	3	1
5. Iluntz	3	1
6. Iriztu Taberna	3	1
7. AT Celaya	3	1
8. Dublin Irish Pub	3	1
9. Lasagabaster	3	1
10. Abokajarro	0	1
11. Cipris	0	1
12. Urza	0	1
13. Ekaintz Taberna	0	1
14. Iturriotz Taberna	0	1
15. Equs	0	1
16. Bar Aldapa	0	1
17. Total Disaster	0	1
18. Saukelu Kabia	0	1

## Gauzak ez dira horrenbeste aldatu

Joan den urteko ligan nagusitasun osoa erakutsi zuen McAwenDauen taldea hasi da aurtun ere sailkapenean agintzen, lehenengo jardunaldian Saukeluri 12-5 irabazita. Bigarren jardunaldira begira, Dublinek eta Lasagabasterrek jokatu beharreko partidua atzeratu egin dute.



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismokak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



bote-prontuen

Miren Gallastegi > Zarraoa Lurrindegikoa

# "Nire poltsan ezin da falta kolonia freskoa"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Miren Zarraoa urte asko daramatza Zarraoa lurrindegian lan egiten, zehazki 24. Denetarik saltzen du bertan: lurrinak, bitxiak, poltsak... Berarekin egon gara.

**Denetarik saltzen duzue dendan. Baina zer da gehien saltzen dena?**


Dendaria saiatzen da ahalik eta gehien saltzen; hori da beti asmoa. Hala eta guztiz ere, egia da azken urte honetan janzteko osagarriak (lepoko zapiak, bitxia, poltsak...) garrantzitsuak bihurtu direla, eta osagarri horiek dira gehien saltzen direnak, baita ere kosmetikako produktuak.

**Bitxiak ere bai. Zein da zuretzat bitxirik preziatuena?**

Batez ere, belarritakoak. Normalean ez naiz etxetik irteten belarritako barik, eta asko dauzkat etxean.

**Lurrinen artean -arropetan bezala- badago moda konturik?**

Jende gaztearen artean, aktore eta abeslari ezagunen eragina handia da. Askok lurrin propioa ateratzen dute.



Diseinugileek ere ateratzen dituzte lurrin mota bat baino gehiago, batez ere Gabonetan.

**Emakumea ala gizona: nor da ohiko bezeroa zuen dendan?**

Gehienbat emakumeak sartzen dira erostera, saltzen ditugun produktu asko beraiei bideratuta daudelako, baina gizonak ere etortzen dira, beraiendako zein oparitarako artikulua erostera.

**Makillaje on batek zer behar du?**

Azala ondo zainduta egon behar da. Horretaz gain, makillajea ez bada ospakizun berezi baterako, naturala izan behar da eta kontuan eduki behar da pertsona horrek makillatzeko duen ohitura zein den.

**Saltzen duzun guztitik zer da inoiz zure poltsan falta ezin daitekeena?**

Diru-zorro bat -diruz beteta bada, hobeto!-, eta kolonia fresko pixka bat.

**Isla desertu batera zer eramango zenuke? Eguzkitarako babesgarri krema.**

bere ustez



Maialen Gonzalez

## Hasiera onek... amaiera ona?

**E**derto hasi zen Reala. Denboraldi-aurre aparta burutu ondoren, goiko postuetan txoko bat egin zuen lehenengo jardunaldietan. Hainbat jokalarri berriren etorrerak kezkak piztu zituen arren, taldeko elkar-ulertzea kaltetu beharrean areagotu egin zuen. Jokalarriek eskaintako jokoak guztiz liluratuta utzi gintuen. Gogoia zutela erakutsi zuten; irabazteko gogoia, zaleok gozatzen ikusteko gogoia, aspaldi galdutako konfiantza berreskuratzeko gogoia. Anoetan, berriz ere, lehen mai-

## "Zer dira, bada, zortzi aste? Denboraldiaren laurdenera ere ez gara heldu-eta!"

lara igotzearen ilusioa berpiztu zen. Nora joan da, bada, ilusio hori? Bederatzigarren jardunaldian gaude eta dagoeneko jendea nazkatzen hasia da. Hainbat jokalarri zelaira sartu eta txistuak entzuten dira harmailetatik. Oraingo ez da lehen partiduetako Reala, duela zortzi aste erakutsitako elkar-ulertze hori ez gara ikusten ari. Baina, zer dira bada, zortzi aste? Denboraldiaren laurdenera ere ez gara heldu eta! Hasiera onek amaiera ona ekar dezakete ala ez, baina argi dago jokalarriak txistu artean zelaira sartzeak ez duela amaiera ona bermatuko. Izan dezagun, bada, pazientzia apur bat, zortzi norgehiagoka besterik ez direla jokatu eta sailkapenean oraindik ere badugula zer esan. Aupa Reala!

txutxu-mutxua

## Arizmendik Ikastolaren eguna ospatu du

Pasa den zapatuan Ferixaleku gunean Ikastolen eguna ospatu zuten Arizmendiko ikastolak. Argixoren laugarren urtebetetzea ospatu zuten txikiek eta grafitiak egin zituzten nagusiek. Urteroko txosnak lagun, puzgarri, tailer eta ikuskizun ez gozatu ahal izan zuten partaideek. Etxafuego jaurtiketarekin hasi zen festa. DBHko ikasleek ordu horretan ekin zioten grafitiak egiteari eta, ordu erdi geroago, txikiendako puzgarriak ireki zituzten. Beste tailer batzuk ere egin zituzten. Eguerdian, gaztetxoek gusturen hartu zuten tarte etorri zen, Argixo etorri baitzen gaztetxoaren artera.



EDURNE BALZATEGI

## ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

San Andres Auzoa 10. pabilioia  
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

## Idoia Ibañez ARTISAUTZA

IKASTAROAK AUKERAN URRITIK EKAINERA!

- Irazki harizko ehundegia, Idoia Ibañezen eskutik
- Ziri enkajea eta bainika, Idoia Ibañezen eskutik
- Eskulanak, Edurne Uribealgoren eskutik
- Patchwork, Carmen Burgosen eskutik
- Makramea, Idoia Ibañezen eskutik

Erdiko kale 21 - Tel.: 686 08 30 67



Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33

ARRASATE Tel.: 943 79 67 76





Usondo parkeko zuhaitzak ere aztertuko ditu Gabriel Iñiguiz adituak.

JASONE ZABALA

INGURUMENA &gt; ZUHAITZEN AZTERKETA

# Herriko parkeetako zuhaitzen osasun egoera aztertuko du Udalak

Zuhaitzak identifikatu, zein osasun egoeran dauden eta haizearekiko zenbateko erresistentzia duten neurtu du aditu batek

OIHANA ELORTZA &gt; BERGARA

Errekalde, Santa Ana eta Usondoko parke publikoetan dauden zuhaitzei buruzko azterketa egitea pentsatu du Udalak. Helburua da zuhaitzak identifikatzea eta duten osasuna zein den jakitea, besteak beste erortzeko arriskuan dauden edo ez jakiteko. Egoeraren arabera erabakiko dute zuhaitza bota edo tratamenduan jartzea.

ADITU BATEN LAGUNTZA

Zuhaitzen osasun azterketa egiteko, gai horretan aditua den Gabriel Iñiguiz nafarraren laguntza izango dute Udaleko lorazainek. "Dagoeneko birritan etorri da hona eta herriko hiru parke

horiek erakutsi dizkiogu. Azterketa egiten ere lagunduko diogu", dio Arkaitz Tolosak, Udaleko lorazainen buruak.

Azterketa hau pertsonen egiten zaien errebisio baten modukoa dela dio Tolosak. "Zuhaitzen osasun egoera aztertuko du Iñiguizek. Batetik gaixotasunik duten ikusiko du, azalean zomorroak dituen edo ez ikusita, adibidez. Eta bestalde, haizearekiko zenbateko erresistentzia duten ere neurtuko du, horretarako duen aparailu berezi batekin", dio. "Azterketaren emaitzekin ikusiko dugu, adibidez, zuhaitz horiek jausteko arriskuan dauden edo ez. Zuhaitzak bota edo trata-

mendua eman ere gero erabakiko dugu, Iñiguiz adituarekin batera", jarraitu du Tolosak.

DATORREN UDAN

Erabakia hartuta dago baina azterketa bera datorren udaberrian edo udan hasiko dira egiten. "Hainbat zuhaitzek ez dute historik izaten neguan eta hostoetan ere ikusten dira gaixotasunak batzuetan, esaterako", zehaztu du Arkaitz Tolosak.

Zuhaitzen azterketa hori Errekalde, Santa Ana eta Usondoko parkeetako zuhaitzekin egingo dute. Pagoak, haginak, ezkiak, haritzak eta gaztainondo indiarrek daude, besteak beste, parke horietan. Orain egingo duten azterketa horretan zuhaitzen identifikazioa ere jasoko dute. Udalak lan horren kopia batzuk gordeko ditu, paperean eta euskarri informatikoan.

&gt; ODOL EMAILEAK

## Bergarako 43 odol emailek dominak jasoko dituzte Arrateko ekitaldian, domekan

Herriko 43 odol emailek domina bana jasoko dute orain arte egin dituzte odol-ateratzeengatik. Domekan Arraten egingo duten ekitaldiak jasoko dituzte dominak. 43 odol emaile horietatik zazpik 50 emanaldi egin dituzte; hiruk, 40 emanaldi, eta gainerakoek, 25. Gurutze Altzerrekak 62 emanaldi egin ditu dagoeneko eta horretatik sari berezia jasoko du: Espainiako Osasun sailak ematen duen merituaren saria. Mutrikutik Oñatira bitarteko odol emailek elkartuko dira Arraten. Autobusa 11:30ean da, frontoian.

&gt; ETXEBIZITZAK

## Azaroaren 21ean amaitzen da Ozaetako etxebizitza tasatuetan izena emateko epea

Datorren azaroaren 21a da azken eguna Ozaetako etxebizitza tasatuetan zozketan izena emateko azken eguna. Zozketan parte hartzeko, Etxebiden apuntatuta egon behar da eta agiri batzuk bete behar dira Udalean, bulego teknikoan.

Guztira 32 etxebizitza tasatu egingo dituzte Ozaetan. Horieta bost Zubiaurreko bost familia birkokatzeke dira eta gainerakoak zozketatu egingo dituzte. Udalaren asmoa da zozketa urtea bukatu aurretik egitea.

&gt; GAZTEAK

## Gazte Informazio guneko 2009ko egutegiaren diseinuaren lehiaketa antolatu du Udalak

Gazte Informazio guneko datorren urteko egutegiaren diseinu lehiaketa martxan jarri du Udalak. Zerbitzua ezagutarazteko urtero kaleratzen dituzten egutegiaren diseinua egiteko lehiaketa da. Bergaran ikasi, lan egin edo bizi diren 14 eta 35 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte eta teknika librea da. Lanak Gazte Informazio gunean edo kultura etxean aurkeztu behar dira azaroaren 14a baino lehen. Irabazleak 300 euroko saria izango du.

&gt; POSTA BULEGOA

## Posta zerbitzuak herritarrendako bulego berria zabaldu du Ibargarai kaleko 17. zenbakian

Posta zerbitzuak bulego berria zabaldu du herritarrendako Ibargarai kalean. Eguaztenean zabaldu zuen eta beraz, herritarrek hara joan beharko dute aurrerantzean edozein gutun edo pakete jaso edo bidaltzeko. Orain arteko bulegoa, Burdiñaten, langileek bakarrik erabiliko dute. Ibargarai bulegoko ordutegia hauxe da: astelehenetik egubakoitzera, 08:30etik 14:30era eta zapatuetan, 09:30etik 13:00etara.

&gt; ISTRIPUA

## Joan den eguaztenean gertatu zen auto istripu baten lekukoak behar dituzte

Bergaran gertatutako auto-harrapaketa baten lekukoak bilatzeko dei egin du familia batek. Istripua eguaztenean, urriaren 22an, gertatu zen Zubietako semaforoan, 15:05 inguruan. Neskatxo bat harrapatu zuen gidari batek, eta gero alde egin zuen. Auto zuri eta familiarra dela dio familiak. Inork ikusi badu, honako telefonoetara dei dezake: 658 73 57 80 edo 943 76 57 63.

**DRAGON ORIENTAL**  
Jateetxea

**Etxera eramaten dugu**

Zerbitzua Bergaran + 1,80 €  
Osintxu, Antzuola edo Soraluzera + 2 €

☎ **943 25 06 77**  
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)  
BERGARA

**UREDERRA**  
ITURGINTZA

Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta

Arruriaga 11  
686 943 918

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

**BERGARA**  
MARMOLERIA  
PEDRO SALEGI OSA

*Sukalde eta bainu enzimera*

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77



ZERBITZUAK > ZABALOTEGI ARETOA

# Datorren egubakoitzean da Zabalotegi aretoko inaugurazioa

Udal txistulariek, Orkestra sinfonikoak, Orfeoia, Ganbara taldeak eta Mikel Igartua eta Ibane Baseta dantzariak hartuko dute parte

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Datorren egubakoitzean, urriak 31, inauguratuko dute Zabalotegi aretoa, 19:00etan. Musika kontzertu batekin inauguratuko dute ofizialki kultura erabilera anitzetarako izango den aretoa.

DANTZARIAK ERE BAI

Ekitaldi txiki bat egingo dute inaugurazio ekitaldian: "Ekitaldi xumea izango da. Musika entzungo da, batik bat, baina dantzariak ere izango dira, adibidez. Mikel Igartua eta Ibane Baseta dantzan ikusiko ditugu inaugurazio ekitaldi horretan", aurreratu du Maider Osak, kultura teknikariak.

19:00etan hasiko da Zabalotegiaren irekiera ofiziala. Igartuak eta Basetak Udal txistularien



Zabalotegi areto eraberrituaren sarrera nagusia.

JASONE ZABALA

bandarekin egingo dute dantza eta segidan, Bergarako Orkestra Sinfonikoko soka taldeak hiru pieza joko ditu: Purcell-en *Fanfare*, Lertxundiren *Udazken koloretan* eta Gonzalez Chirlaqueren *Begarako ereserkia*. Ondoren, Bergarako orfeoia Josly-ren *Swing Low, sweet chariot* eta Moo-

re-en *An irish blessing* piezak abestuko ditu. Azkenik, Bergarako Musika Eskolako Ganbara taldeak Shubert-en *Minuetto* eta Trio pieza eskainiko du.

Txotxongiloen mostran erabili zuten lehen aldiz Zabalotegiko areto eraberritua. Hilaren azken egunean inaugurazio ofi-

ziala egingo dute eta hortik aurrera aste bukaera guztietan egongo da zer ikusia edo zer entzuna Zabalotegin.

Aretoak 122 lagunendako tokia du eta formatu txikiko antzerkiak, hitzaldiak, kontzertuak edo ikastaroak egingo dituzte. Zinema ere eskainiko dute.

## Azaroan egongo diren ekitaldiak

**Azaroak 1, zapatua**

18:00 Antzezlana. Ane Monna, Oskola eta Karramarroiren *Ino, Ino, Ino, badator Bonbardino*. Sarrera, 3 euro.

**Azaroak 6, eguena**

19:00 Helduendako ipuin kontaketa. Ixabel Millet-en *Printze txikia*.

**Azaroak 7, egubakoitza**

22:30 Antzezlana. Txirene antzerki taldearen *Ogiyik karri etzun semia*. Jardunek antolatuta. Doan.

**Azaroak 8, zapatua**

19:00 Ikus-entzunezkoa. Eneko eta Miyki: tandemean Ameriketara barrena.

**Azaroak 13, eguena**

19:00 Ikus-entzunezkoa. Iñaki Kaperotxipiren *Zetaren ibilbidea*. Kutzaren laguntzarekin.

**Azaroak 15, zapatua**

19:30 Musika emanaldia. Donato Goyenetxe eta Xabier Arakama, trikiti eta perkusio bikotea. Kutzaren laguntzarekin.

**Azaroak 28, egubakoitza**

19:00 Zinema. Bergarako film laburren III. lehiaketako sari banaketa eta filme horien proiektzioa.

OHARRA: Ekitaldira sartzeko sarrera Zabalotegi aretoko leihatilan hartu behar da egunean bertan. Leihatila ekitaldia hasi baino ordubetan lehenago zabalduko dute.

## Miguel Bose abeslariaren kontzertuan

Pasa den urriaren 11n Bergarako talde bat -35 pertsona- Miguel Bose abeslariak Donostiako Anoeta belodromoan emandako kontzertuan egon ziren. Argazkia ekarri digutenen arabera, "zorgarria" izan zen kontzertua eta nerabeen pare disfrutatu zuten. Adierazi digute badutela buruan datorren abenduan zehar beste kontzerturen batera joateko ideia.



GOIENKARIA

## KOMUNIKABIDEAK

### Agurne Barruso GOITBn, urriaren 30ean

Ikus-entzuleek ere izango dute parte hartzeko aukera

J.Z. > BERGARA

Goiena Telebistaren *Magazinea* programa berrian izango da Agurne Barruso alkatea egunean, urriak 30. Eneko Azkarate kazetariaren galderak erantzuniko ditu 19:45ean hasiko den zuzeneko saio baten.

Ikus-entzuleek ere, ordea, izango dute telefono bidez edo Internet bidez alkateari euren galderak edo kezak azaltzeko aukera. Telefonoz egitekoan, 943 25 05 03 zenbakira deitu behar duzue, eta zuzenean egingo diozue galdera alkateari. Internet bidez egin nahi izanez gero, bidali zuen mezua [magazinea@goiena.com](mailto:magazinea@goiena.com) helbidera.

**Ion Murgizu Pinturak**  
Pintura orokorrean

Fatxadak  
Pintura Industrialak  
Dekorazio Pinturak

Bergara - Soraluze  
Tf: 943 75 13 24 - 652777030

**ESKAERAK EGITEKO:**  
**670 45 25 65**

**Eguenetik domekara zabalik**  
**19:30etik aurrera**

Artekale 1 • BERGARA





Oñatiko Ganbara Abesbatza Esteban Urtzelaik zuzenduko du.

GOIENKARIA

MUSIKA &gt; ORGANO ERROMANTIKOA

# Ganbara abesbatza eta Alize Mendizabal, San Pedron

VIII. Nazioarteko Organo Erromantikoaren zikloko azken kontzertua izango da biharkoa

Bost lan eskainiko dituzte; horietatik bitan organoa bakarrik eta beste hirutan biak batera

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

Nazioarteko Organo Erromantikoaren zikloaren barruan, bihar, Oñatiko Ganbara Abesbatzak eta Alize Mendizabal organo jole donostiarrek kontzertua eskainiko dute. Gainera, gogoratu bihar kontzertuak emango diola aur-

tengo zikloari amaiera. Ohikoa den bezala, 20:00etan izango da kontzertua, San Pedro parrokian.

**BOST PIEZA**

Guztira bost pieza eskainiko dituzte biharko kontzertuan. Bi pieza Mendizabalek bakarrik

joko ditu eta beste hiruretan abesbatzaren laguntza izango du.

Kontzertua *Variations sur un thème de Clément Janequin* lanarekin hasiko dute. Mendizabalek organoarekin bakarrik joko du J. Alainen pieza. Gero, abesbatzaren laguntzarekin, B. Britten-en *Te Deum in C major* joko dute. Kontzertua A. Pärt ezagunaren *Salve Regina, 2001* piezarekin jarraituko dute. *La nativité du Seigneur, nº9*, O. Messiaen lana joko du ondoren Mendizabalek organoan. Eta, kontzertua amaitzeko, M. Lauridsen-en *Lux Aeterna, 1997* lana abesbatzak eta Men-

dizabalek batera eskainiko dute San Pedro parrokian.

**ALIZE MENDIZABAL**

6 urterekin hasi zen Mendizabal pianoa ikasten. Gero, Frantziara joan zen ikasketekin jarraitzea. Orduetik hainbat talde eta jaialditan parte hartu du. Gaur egun, Musikene kontserbatorioko irakaslea da. Gainera, Loreto Aramendirekin *Fiori Musicali* bikotea osatzen du eta Catalin Bucatarurekin ere badabil kontzertuak ematen. Ganbara abesbatza 1994an Oñatin sortatuko ahots nahasien abesbatza da.

ERAKUSKETAK &gt; AROZTEGIN ETA KULTURA ETXEAN

## Mari Paz Alustizaren lanak daude erakusgai Aroztegin

A.E. &gt; BERGARA

Aroztegi aretoan Mari Paz Alustiza bergararraren lanak daude erakusgai azaroaren 2a arte. Urte askoan bergararren irakasle izandakoa da Alustiza. Bere lanetan paisaiak eta natura hilak dira gehien agertzen direnak.

Aroztegi aretoko ordutegia ondorengoa da: martitzenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:30era; zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara

eta 18:00etatik 20:30era. Gogoratu 2009an Aroztegi aretoa erabiltzeko baldintza plegua atera dutela. Eskaria egin gura duenak hilarren 31 arte du epea.

**JON BALENTZIAGA**

Bestalde, Kultura Etxean Jon Balentziagaren lanak daude erakusgai bihar arte: gaur, egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara eta zapatu goizetan.



Mari Paz Alustizaren lanak Aroztegi aretoan.

ARANTZAZU EZKIBEL

&gt; LEHIAKETA

### Azaroaren 3a da filmak aurkezteko azken eguna

Film laburren lehiaketan parte hartu gura duenak gogora dezala azaroaren 3a dela lanak aurkezteko azken eguna. Lanak Kultura Etxean entregatu behar dira 13:00ak baino lehenago.

Film laburrak DVD formatuan aurkeztuko dira; gainera, bakoitzak gutun-azal batean eraman beharko ditu egilearen izen-abizenak, lanaren izenburua, helbidea, herria, telefonoa eta NA zenbakia. Gutun-azalaren kanpoaldean, lanaren izenburua, iraupena eta produkzio urtea jarri beharko dira. Epaimahaiaren erabakia eta sari banaketa azaroaren 28an, egubakoitzean izango dira Zabalotegi areto berrituan.

&gt; LIBURUTEGIA

### 'Irakurpuntu' tailerra gaur, Haur Liburutegian

*Liburutegiak topaleku* lelopean, *Irakurpuntu* tailerra egingo dute gaur Haur Liburutegian 17:00etatik 19:30era.

6 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerra da. Haur bakoitzari irakurpuntu bat emango zaio doan, eta nork bere izena hainbat hizkuntzatan, eta grafia ezberdinetan idazteko aukera izango du. Une oro begirale baten laguntza izango dute haurrek.

*Irakurri* kanpainarekin jarraitzeko, 12-16 urte bitarteko haurrei zuzendutako literatura lehiaketa dago abian. Lehiaketaren oinarriak ikastetxeetan jasoko dituzte haurrek. Bestalde, azaroaren 3an EPAko ikasleei zuzendutako ipuin kontaketa egongo da liburutegian.

&gt; GAZTE BULEGOA

### 2009ko egutegiaren diseinua aukeratzeko lehiaketa abian da

Gazte Informazio guneko egutegiaren diseinu deialdia egin du Udalak. Asmoa zerbitzua ezagutarazteko kaleratzen diren egutegiaren diseinua berritzea da. Lehiaketan parte hartu ahalko dute Bergaran ikasi, lan egin edo bizi diren 14 eta 35 urte bitarteko gazteek. Banaka nahiz taldeka egin daitezke lanak. Diseinuaren kartelak, kolore eta teknika libreaz 50x35 cm-tako oinarri baten aurkeztu beharko dira, eta *Bergarako Gazte Informazio Gunea* testua euskaraz agertu beharko da. Lanak aurkezteko epea azaroaren 14an, 20:00etan bukatuko da. Informazio gunean edo kultura etxean aurkeztu behar dira lanak.





aurkezten du

# Soledad Felloza

(Uruguay)

ipuin  
kontaktaren  
zirkuitoa

XIII  
2008 - 2009

“El comienzo  
del mundo”



bergarako

urriak 30. osteguna  
22:30ean

Pol·Pol

-ean



## DAGOENENKO SALGAI

DVDa eta CDa.

Danbaka Musika Lehiaketako 2. edizioko 20 taldeen abestiak eta ikus-entzunezkoa.

Extrak, argazkiak, bideoak... Hiru orduko iraupena.

**13 euro**

**ESKAINZA BEREZIA:**

Asteheneneko Goienkaria-ko harpidedunendako 10 euro.

Hemen salgai:

**ARRASATE:** Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05. /  
Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**BERGARA:** Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**ELGETA:** Espaloia kafe antzokia: Maala 2. 943 78 90 85

DANBAKA )))))



ZIKLISMOA &gt; LOKATZA

# Ziklismoan ibilitakoak mahaiaren bueltan batu nahi ditu Lokatzak

Pedalaren Eguna izendatuta, azaroaren 22an afaria egingo dute ziklista eta zuzendari ohiek

Aspaldiko lagunak eta klubaren alde lan egiteko gertu dagoen jendea batu gura dute

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Lokatzak Pedalaren Eguna izendatu du datorren azaroaren 22a, eta egun horretarako aspaldiko lagunak elkartu nahi dituzte, Lokatzan zuzendari lanetan edo txirrindulari moduan jardun dutenak: "Bergarako txirrindulariekin batera, Elgetako eta Antzuolako ziklistek ere gurekin korritu izan dute, eta ez hori bakarrik. Hainbat urtetan, Oñatiko, Arrasateko edo ibarreko beste herrietako ziklistak gurean ibili izan dira, hainbat kategoriatan taldeak batu egiten zirelako. Hala, jende hori guztia batu nahi dugu mahai baten bueltan, eta afaria egin", adierazi du Lokatzako Iñigo Larrañagak.

Afaria Lokatzarekin harremana izan duten lagun guztien-

dako dago zuzenduta, eta animatzen denak 25 euro sartu behar ditu -azaroaren 15a baino lehen- Euskadiko Kutxako 3035 0189 31 1890013987 kontu korrontean.

Horrekin batera, informazio gehiago 649 69 33 02 telefono zenbakian edota lokatza\_ze@hotmail.com helbidean izango duzue.

## HELBURU GEHIAGO

Lokatzaren egitasmoaren helburu bakarra ez da aspaldiko lagunak batzea bakarrik: "Lokatzara berriro ere gerturatzeko proposamena da. Gutako bakoitzak ondo daki zenbateraino lagundu dezakeen; lasterketetan laguntzatxo bat emateko, edota klubean parte-hartze handiagoa izateko, hori bakoitzak erabakiko du,



Besteak beste, Goriako Igoeran moduko probetan behar dute laguntza. GOIENKARIA

baina egia da Lokatzan jende faltan gaudela, eta edozein laguntza ongiatorria izango da. Izan ere, orain arte gutxi batzuen arte-

an lan handia egin dute, baina beste talde batzuetan hasi dira hori aldatzen, lagun askoren artean lanak banatuta".



BTLSek Tolosaren kontra jokatu du norgehiagoka.

J.A.

FUTBOLA &gt; ERREGIONALA

## BTLSek lider dagoen Lagun Onak hartuko du domekan

Bergara, sailkapenean ondoan duen Mutrikuren zelaira joango da

X.U. &gt; BERGARA

Asteburuan BTLSk jokatu du etxean (domeka, 17:00etan), lider dagoen Lagun Onak taldearen kontra: "Ez dakigu Azpeitia aldean zer egiten duten, baina Hirugarren Mailan ere taldea daukate, eta etxeko jokalariekin jokatuta aurrean daude, gainera",

adierazi du Beitiak. BTLSek bisitari gogorra izango du domekan, baina etxekoek garaipena behar dute, hiru aste daramatzate eta irabazi barik.

## BERGARA MUTRIKURA

Manu Diazen mutilak, berriz, hirugarren postuan dagoen Mutrikuren zelaira joango dira asteburuan. Bergarak bikain hasi du liga, bigarren postuan daude, eta puntu batera baino ez dagoen Mutriku mendean hartzea aurrerapauso galanta izango litzateke ligara begira. BTLSek ere mesede egin dezake.

ESKUBALOIA &gt; TERRITORIAL MAILA

## Soraluce BKE taldeak liderra izango du aurrean

Eibarko Haritza taldeak ligan jokatu du hiru partiduak irabazi ditu

X.U. &gt; BERGARA

Joan den astean (24-29) Urolaren kontra erakutsitakoa baino itxura hobea erakutsi behar du Soraluce BKE taldeak asteburuan Eibarren. Kontrarioak, baina, ez du inongo erraztasunik emango, Haritza lider dagoelako territorial mailan. Orain arte jokatu du norgehia-

goka guztiak irabazi dituzte, eta mahoneroendako azterketa gogorra izango da.

## KADETEEK ETXEAN

Kadete mailako mutilak, berriz, bigarren postuan daude sailkapenean. Jokatu du hiru partiduak irabazi dituzte, eta orain momentuan, lider dagoen Ereintzaren puntu kopuru bera dute. Asteburuan Elgoibarko Pneumax taldearen bisita izango dute Labegarietan.

Neskek, berriz, asteburuan ezingo dute liga hasiera makala zuzendu, deskantsua izango dute-eta.



Oñatiko Mikel Deuna txapelketako partiduko irudia.

GOIENKARIA

## Labegarieta

### EMAITZAK

Komando Piperrak-UD Akabaoak	3-10
Zigalikitis-Niu Tim	8-7
Irubide Taberna-Belengua Taberna	0-2
Los Latinos-Internacional	8-7
CM Errota-gain-Los Blus	5-5
Monte Taberna-Carboneros	0-13
Diego Valor Ileap-Irish Pub	3-2

### PARTIDUAK

Urriak 25, zapatua	Epaileak
16:00 Carboneros-Irubide	Los Blus
17:00 Internacional-Los Blus	Irubide

Urriak 26, domeka

09:30 CM Errotagain-Irish Pub	Carboneros
10:30 Carboneros-Irish Pub	CM Errotagain
11:30 Monte Taberna-UD Akabaoak	Diego V.
12:30 Diego Valor-Niu Tim	U.D Akabaoak
16:00 Zigalikitis-Belengua	Komando Pip.
17:00 Los Latinos-Komando Pip.	Belengua

### SAILKAPENA

	P	J
1. U.D Akabaoak	12	4
2. Los Latinos	12	4
3. Zigalikitis	10	4
4. Komando Piperrak	9	4
5. Carboneros	9	3
6. CM Errota-gain	8	4
7. Diego Valor Ileap	6	4
8. Belengua Taberna	6	4
9. Internacional	3	4
10. Los Blus	2	4
11. Irubide Taberna	1	4
12. Niu Tim	0	4
13. Irish Pub	0	3
14. Monte Taberna	0	4

## U.D Akabaoak eta latindarrak lider

Lau jardunaldi jokatu bi talde baino ez daude oraindik partidurik galdu ez dutenak: U.D Akabaoak eta Los Latinos taldekoak. Latindarrek iaz berandu hasi zuten txapelketa, baina maila txukuneko taldea zela erakutsi zuten; aurrez, badirudi bi talde horiek direla faborito. Bestalde, asteburu gogorra izango dute Irish Pub taldeko jokalariek, domeka goizean jarraian jokatu behar dituzte eta bi partidu.

MULTIKIROLA

## Topaketak alebin mailako gazteendako

X.U. &gt; HERRIA

Bergarako Eskola Kirol Kontseiluak eta BKE saskibaloitza taldeak multikirolean dabil-tzan alebin mailako gazteendako topaketak antolatuko dituzte.

Ondo pasatzeko helburuarekin, lehen topaketa azaroaren 9an egingo dute, domekan, 10:00etan hasita. Topaketa horietan parte hartu nahi duten DBHko 5. eta 6. mailako ikasleak multikirolean ibili behar dute.



mingainari tiraka

Nerea Cuadrado eta Enara Gartzia > Artaziko ile-apaintzaileak

# "Beherapena egiten diegu erretiratuei"

NEREA MENOR > BERGARA

Duela hilabete eta erdi Martokua auzoko Artazi ile-apaindegia hartu zuten Nerea eta Enarak. Urte askotako esperientzia dute ileen munduan eta orain beraien negozioa irekitzea erabaki dute. Orrazteaz gain, makillatu eta depilazio txikiak egiten dituzte.

## Zergatik aukeratu zenuten ile-apaintzaile izatea?

Aspaldiko kontua da. Nik 16 urte daramatzat lanean, eta Enarak, zazpi. Gasteizen ikasi genuen eta Disdiran eta Orrazkin egin dugu lan.

## Nola doa ile-apaindegia?

Irailaren 2an zabaldu genuen. Aurretik emakume batek eramanen zuen eta guk hartu genuen. Bere bezeroak mantentzen ditugu, baina jende berria ere badator. Jendea erakarri behar da, eta horretarako hasi gara beherapenekin. Azkenean, Martokon gaude eta, auzo bat denez, ez dago jende gehiegirik. Hala ere, hainbat diru-laguntzaren zain gaude, eta bultzadaxo bat emango digu horrek.



## Ze beherapen egiten dituzue?

Martitzenetan erretiratuen eguna egiten dugu, eta %15eko beherapena egiten diegu guregana hurbiltzen direnei.

## Zer dago modan aurten kolore eta orrazkerari dagokionez?

Madrilgo ile-apaintzaileen ferian egon gara, Interlook-en, eta tendentzia berriak ikusi ditugu: ilea modu asimetrikoa moztea moda-modan dago, baita lisoa eta kopeta-ile (flekillo) zuzenak ere. Koloreari dagokionez, marroiak, ilehoriak eta gorrixkak asko ikusi ditugu. Metxa handiak ere modan daude. Bihar Llonguerasen proposamenak ikusiko ditugu.

## Zer da gehien eskatzen dutena bezeroek?

Guk marroiak eta ilehoriak ematen ditugu gehien. Jende gazteak modernagoa da eta nagusiek estilo klasikoa jarraitzen dute. Gehienbat, motz mozten dugu ilea.

## Zeini aldatuko zenioke orrazkera?

Albako Dukesari. Orain espartuzko ilea duela dirudi.

bere ustez



Lander Juaristi

## Lau egun magiko

**M**aite ditut formatu txikian egiten diren ikuskizunak; lokal txikia, ez jende gehiegi, taula gaintik ikusleengana dagoen hurbiltasuna, antzezle, musikari edo dagoenari begietara begiratzeko aukera.

Testuinguru honetan, gaztetxean maitemindu nintzen, Leonor ezagutu nuen. Leonor txikia da, oso txikia, alai, inuzentea baina bizia... Leonor txotxongilo bat da eta gaztetxera etorri zen, Bergarako Nazioarteko Helduentzako IX. Mostrarekin batera. Ni

## "Testuinguru honetan, gaztetxean maitemindu nintzen, Leonor ezagutu nuen"

eta, nire moduan, inguruko guztiak bereganatu gintuen ordubeteko emankizun batekin. Beste behin Taun Taunen eskutik lau egun magiko bizitzeko aukera izan dugu, ezer gutxiarekin, munduak sor daitzkeela frogatu zuten munduko txoko ezberdinetatik etorritako artistek. Itzalekin, pinpon pilota eta tela zatitxo batekin, edo oso landutako txotxongiloekin sortutako historiei begira ahozabalik egon ginen. Polita izan da txotxongilo mostra, luxua, ekin-tza kultural oparotara ohitu gabe dagoen Bergara bezalako herriarentzat. Eskerrik asko miragarria ilusioaren jokoetako bat ez dela berriro ere frogatu duzuen guztioi! Elkar ikusiko dugu berriro, Leonor!

hau be badaukogu

## Kilotik gorako onddoa aurkitu zuen Joseba Etxabek Bergarako mendietan

Bergarako Iturbe baserriko Joseba Etxabek argazkiko umeek eskuetan daukaten onddotzarra aurkitu zuen Bergara inguruko mendietan, duela bi aste, urriaren 8an. Gauean lanean jardun ostean, goizean goiz, lanetik atera eta mendira joan zen perretxiko bila. Kilotik gora duen onddo eder hori aurkitu zuen Etxabek. Jaso eta gutxira, lagunekin elkartean afaltzeko erabili zuen. Orain dela urte batzuk ere antzerako pieza bat aurkitu zuela azaldu digu, baina ez du ohikoa horrelakoekin topo egitea. Argazkian, ezkerretik eskumara, Eneritz eta Aritz seme-alabak eta Ane laguna.



ENEKO AZKARATE

# BERGARA

## Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxes: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

# JOXAN

## ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29



Zatoz Halloween  
**jaira!**

Urriaren 31n

**opari**

**beldurgarriak**

**jasoko**

**dituzu**

**Etorri eta dibertitu**

**BELCEBLUES**  
taldearen kontzertua

Belceblue  
INFER



**INFER**

diskaren aurkezpena  
azaroak 7 gauerdian

San Martin plaza z/g BERGARA Tel.: 943 76 30 86



**Amagara**

Erdiko kalea 54 behea 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 09 09

**BERRESKURATU**

zure **AURPEGIKO AZALA** eta

zure **GORPUZKERA**

gure udazken/neguko programarekin.

Etorri edo deitu informatzeko

**PROMOZIOAK**

Aurpegiko  
tratamenduan

•

Gorputzeko  
tratamendutan

•

Mikropigmentazioan

**BEHERAPENAK**

Produktuetan





OSPAKIZUNA > GASTRONOMIA ETA FOLKLOREA

# Jakiak eta kantuak, protagonista

Errioxa, Extremadura, Galizia, Gaztela Leon eta Euskal Herriko produktuak eskainiko dituzte

XIV. Patxaran Lehiaketan parte hartzeko, goizean aurkeztu behar dira etxean egindako patxaranak

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Zaraia Mendizale Taldeak eta Udalak elkarlanean antolatutako XII. Gastronomia eta Folklore jaia egingo dute domekan, hilak 26. Herriko Plazan egin izan dituzte ekitaldi guztiak, baina aurten, plazako lanak direla eta, Mitarte eta Durana kaleetan izango da jaia.

FOLKA ETA FADOAK

Urtero legez, Gaztela Leon, Errioxa, Galizia, Extremadura eta Euskal Herria ordezkatzeko dituzten

hainbat talde etorriko dira; batzuek dantzan egingo dute, beste batzuek abestu, eta guztiak jarriko dituzte jateko eta edatekoekin postuak: olagarroa, hestebeteak, txitxi-burruntziak, txistorra mokadutxoak, albariñoa, Errioxako ardoa...

Eguerdi partean, emanaldi bi egingo dituzte Mitarte kalean jarritako eszenatokian: Voces del Ebro jota taldeak (12:00) eta La Bandina folk taldeak (13:00). Arratsaldean, Laudioko Nahasiak folk taldearen emanaldia



Aretxabaleako emakumeak euskal pastei begira iazko ospakizunean.

GOIENKARIA

izango da (17:00). Folkloreari dagozkion ekitaldiekin bukatzeko, Soralezetik datorren Ventos de Saudade taldeak Portugalgo fadorik ezagunenak eta tristeenak abestuko ditu Arkupe kultura etxean (19:00). Debalde da ekitaldia.

PATXARAN LEHIAKETA

Ospakizuna aprobetxatuta XIV. Patxaran Lehiaketa egingo du Zaraia Mendizale Taldeak. Patxaranak norberak egindakoa izan behar du -bakoitzak gehienez bi botila-, eta domeka goizean aurkeztu behar du (11:00-14:00), Dura-

na kalean jarritako txokoan. Epaimahaiko kideek 17:00etan dastatuko dituzte aurkeztutakoak, eta sari banaketa 17:45ean da. Lehenengo hiru onenei garaikurra eta diru-saria emango diete. Saririk irabazten ez dutenak herritarrek probatzeko utziko dituzte.

KULTURA > ARKUPE KULTURA ETXEA

# Portugaleteko Ama-Lur enpresak kudeatuko du Arkupe

Azaroan egongo diren ekitaldiak Kultura Saileko arduradunek antolatuko dituzte

M.A. > ARETXABALETAKO

Martitzenean, hilak 21, egindako ezohiko osoko bilkuran erabaki zuen udalbatzak Arkupe kultura etxearen ardura zeini eman. Enpresa bi aurkeztu ziren uztailean egindako deialdira: Amurrioko Errexal eta Portugaleteko Ama-Lur. Kultura tekni-

kariak egindako txostena kontuan hartuta, Ama-Lur hautatu zuten udalbatzak aho batez.

Uztailean egindako deialdia bigarrena zen, lehena martxoan egin zuelako Udalak. Orduan hainbat aretxabaletarrek osatutako Jaiki elkarteak aurkeztu zen, baina azkenean ezetza eman zuen. Kultura zinegotzi lanak egiten dabilen Edorta Mendietak jakinarazi zuen lehiaketaren oinarriek eskatzen dutena betetzera joan direla orain aurkeztutako biak, eta hortik kanpo ez dutela ekarpenik egin. Hala, pun-

tuazio altuagoa jaso du Ama-Lurrek, baina hau ere ez da ailegatu %50era.

URTEBETERAKO KONTRATUA

Ama-Lur enpresa lehenbailehen hasiko da Arkupeko egitarauak antolatzen eta Udaleko Kultura Sailarekin lanean. Hala ere, azaroko egitaraua Kultura Saileko arduradunek antolatuko dute. Urtebeterako egingo diote kontratua Ama-Lurri, eta hori pasatutakoan beste urtebete luzatuko diote aparteko arazorik izan ez bada.

> AISIALDIA

Apotzagara joango dira ludotekako neska-mutikoak, bihar

Apotzaga aldera irteera antolatu dute Algara ludotekako kideek biharko, hilak 25. 4 eta 12 urte arteko neska-mutikoendako da deialdia, baina txikienek -4 eta 6 urte artekoak- gurasoekin joan beharko dute derrigorrez. Gainera, ez da bakarrik ludotekaren izena emanda dutenendako, herriko edozein gazte-txok har dezake parte. Hitzordua 10:30ean da Gernika plazan -ludoteka aurrean- eta bazkaltzeko etxera itzuliko dira.

Iaz hasi ziren Algara ludotekako kideak ekintza bereziak antolatzen eta orduan Urkulu aldera joan ziren. Oraingoan Eskoriatzarantz egingo dute.

> MENDIA

Murrukixok irteera antolatu du Lekeitiora azaroaren 2rako

Iazko ikasturtean hasi zen Murrukixoko Mendizale Elkartea familia giroko irteerak antolatzen, eta datorren azaroaren 2an Bizkaia aldera doaz: Auletitik Lekeitiora egingo dute ibilbidea. Eguraldiak lagunduz gero, arraunean egingo dutela iragarri dute.

Autobusean joango dira -Azbeke geltokian, 09:00etan- eta izena aurrez eman behar dute interesatuek: martitzenean, hilak 28, Murrukixoren egoitzan (19:00-20:00). Murrukixoko bazkideek 5 euro ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek 10 euro. Bazkaria norberak eroan behar du.



**Miturtegarai**  
Baserri turismoa eta taberna

- Batzar gela.
- Jangela.
- Logelak.
- Etxeko produktuen salmenta.



Areantza auzoa ARETXABALETAKO Tel.: 943 79 17 51



Loredi Salegi &gt; Hezitzailea

# "Seme-alabak izateagatik bakarrik guraso izaten jakin behar dela uste da gaur egun"

MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABALETA

Gurasoendako formazio saioak antolatu ditu Udaleko Prebentzio Zerbitzuak Gazteria Sailarekin batera, eta Loredi Salegi hezitzaileak -gizarte laguntzailea eta psikoterapeutagidatuko ditu. Azaroan dira saioak eta izena urriaren 31 baino lehen eman behar da udaletxean.

## Noiztik gurasoekin lanean?

Dagoeneko 15 urte baino gehiago dira. Gizarte laguntzaile lanetan hasi nintzen, eta arazoak zituzten familia eta nerabeekin lanean ibili ostean prebentzioak duen garrantziaz konturatu nintzen. Horregatik, formazio, prebentzio eta hausnarketak saioen alde egin nuen.

## Gurasoak galduta daude seme-alabak hezteko orduan?

Heziketa oso garrantzitsua da, eta seme-alabak izateagatik bakarrik guraso izaten jakin behar dela uste da. Esperientziak elkarbanatzen dituzten saioetan seme-alaben portaerak ulertzen hasten dira, segurtasuna hartzen dute zelan jokatu jakiteko, eta eguneroko jardunerako tresnak ematen dizkiegu.

## Zeintzuk dira gurasoen hutsegiterik handienak?

Geure esperientzien arrastak daramatzagu gainean. Irizpide zorrotzagoekin hezi gintuzten, debeku gehiagorekin. Horregatik, orain dena eman gura diete seme-alabei, ezeren beharrik izan ez dezaten. Horretarako, baina, tresnarik eta pautarik ez dute eta segurtasun eza dakar. Gainera, gaurko gurasoek ez dute eskaini gurako luketen beste denborarik eta segurtasun eza eta erruduntasuna areagotzen ditu horrek.

## Agresibitateari eskainitako bi saio daude. Ume eta gazte erasotzaileak hazten gabilta?



Formazio saioak bideratuko dituen Elgoibarko Loredi Salegi hezitzailea.

M.A.

## "Saioetan seme-alaben portaerak ulertzen hasten dira gurasoak"

## "Dagokien lekuan egoten dakiten gurasoak behar dituzte nerabezaroan"

Saioetako gaiak gurasoek aukeratu dituzte, hortaz, arduratzen dituztela dirudi. Egia da asko entzuten dela orain, baina beti egon da. Arazoa da orain dagoen indarkeria hori zergatik den, frustraziorik izan barik hezi gura ditugulako, mugarik jarri barik eta ezetz jaso barik dena eskuratzen ikasi dutelako... Hala bada, gura dutena edozein modutan lortzen ikasiko dute, baita indarkeria erabilita ere.

## Nerabezaroa beti izan da gatazkaz bete. Orain gehiago?

Ume izatetik heldu izatera pasatu behar delako da gatazkatsua, eta egoera biologiko, psikologiko eta emozionalak gaintitu behar direlako. Baina arazoa sortzen da gurasoek beldurra badute, errudun sentitzen badira... Gurasoekiko harremana oso garrantzitsua da nerabezaroan -uste ez arren- inguruko eragin handia dutelako -koadrila...- eta dagokien lekuan egoten dakiten gurasoak behar dituzte.

## Saioetako gaiak zelan landuko dituzte?

16 urte arteko seme-alabak dituztenendako dira saioak. Gaiak azaldu eta kasuak aztertuko ditugu, talde dinamika erabiliko dugu eta eztabaida bultzatu; gainera, dokumentazioa banatuko dugu.

ERASOA &gt; UDALETXEA

## 'ETA ez/ETA no' pankartari margo gorria bota diote

Udalbatzako kideek diote herritarren arteko elkarbizitza hondatzen dutela

M.A. &gt; ARETXABALETA

Eguaztenetik eguenera bitarteko gauean margo gorria bota zioten udaletxean dagoen *ETA ez/ETA no* lelodun pankartari. Horrekin batera, pankarta eskegita dagoen balkoia eta aurreko zorua geratu dira zikinduta.

Gertatutakoa jakin orduko gaitzetsi dute eraso udalbatzako kideek ohar baten bidez. Erasook aspalditik datozela diote oharrean: "Errespetu falta ikaragarria erakutsiz, batzokia, alkartetxea edo Alderdi Sozia-

listaren egoitzaren kontra sarritan eragindako erasoak, pintura gorria eta horia jaurtiz. Ezin ditugu ahaztu modu indiskriminatuan, frontoietan, hormetan, edukiontzietan eta, demokraziaren izenean, nahi izan duten herritarren ondasunen kontra egindakoak". Erasoen eraginez 10.000 euro gastatu dituztela gogorarazi dute: "Gertatutakoa aretxabaletarrekiko errespetuari egiten dio kalte, gaitasun eta borondate politikoari". Eta Udala "hutsaren hurrengo" uzten saiatu direla esan dute.

Mota honetako ekintzen egileei adierazi gura diete "herritarren arteko elkarbizitza eta bakea hondatu" baino ez dutela egiten, "salbuespen egoera" areagotuz.



Udaletxeko pankarta, balkoia eta zorua margo gorriarekin, atzo goizean. M.A.

&gt; POLITIKA

## Bihar Legutiora joateko autobusa antolatu dute (10:15) eta domekan sinadurak jasoko dituzte

Eusko Legebiltzarra urriaren 25ean egitekoa zen galdeketa aldeko ekitaldi nagusia egingo dute bihar. Aretxabaletako EAJ, EA, Ezker Batua eta Aralar alderdietako ordezkariak autobusa antolatu dute Legutiora joateko. Azbe lantegi pareko geltokitik irtengo du (10:15) eta eguerdian itzuli (14:00). Eta domekan sinadurak jasoko dituzte Durana kalean (12:00-14:00).


OMENALDIA &gt; 50. URTEURRENA

## 165 lagun elkartu ziren Paulo Letonari omenaldia egiteko

M.A. &gt; ARETXABALETA

Eskoriatza eta Aretxabaletako parrokiako kideek -14 elizateetakoekin batera- Paulo Letona abadearen urrezko ezteiak ospatu zituzten joan zen domekan, hilak 19. Marin auzoan jaiotako abadeak 50 urte bete ditu abade -1958ko ekainean, Lourdesen (Frantzia)- eta Leintz Pastoral Barrutiko eliztarrek omenalditxoak egin gura izan zioten. Leto-

nak, berak, esan zuen meza Aretxabaletako parrokiaren beste bost abade lagun zituela aldean eta Aretxabaletako abesbatzaren kantuek gidatuta. Eta eliza bete-bete eginda egon zen. Ondoren Eskoriatzako Mendigoia hotelan jarraitu zuten ospakizunarekin. 165 lagun elkartu ziren bertan bazkaltzeko, eta ez, hilaren 20ko Asteleheneko Goienkaria-n adierazitako moduan, 80 lagun.



Paulo Letona abadea omenaldian. J.A.

**BENGOA**  
**URDAITEGIA**

**Bertako okelak eta odolosteak**

Durana 9. Aretxabaleta - Tel.: 943 79 19 79



KULTURA > LEHIAKETA

# Argazki lehiaketa deitu du Aloña Mendiko mendi taldeak, bosgarrenez

Argazkiak bi kategoriatan banatuko dituzte, gaiaren arabera; alde batetik, mendia eta natura, eta beste alde batetik salaketen atala

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Herriko jaiak bukatuta, argazki lehiaketa deialdi berria egin du Aloña Mendi elkarteko mendi taldeak. Hain zuzen ere, V. Mendia eta Natura argazki lehiaketarako deialdia egin dute. Berrikuntza barik egin dute deialdi berria. Hortaz, argazkilariek bidaltzen dituzten argazkiak bi kategoriatan banatuko dituzte, gaiaren arabera; alde batetik, mendia eta natura kategorian, alpinismoa, eskalada, mendi paisaia edo naturarekin zerikusia duten argazkiak bilduko dituzte. Beste alde batetik, salaketa atalean, ingurumenari egindako erasoen gaineko argazkiak jasoko dituzte. Lanak aurkezteko epea azaroaren 28an bukatuko da.

TAMAINA LIBREAN


Argazkiak tamaina librean, baina 40x50 zentimetroko euskarri bertikalean aurkeztu beharko dituzte. Gainera, atzealdean gaia (mendia eta natura edo salaketa) eta argazkiaren izena jarri beharko dute. Horrekin guztia-

rekin lehiaketan parte hartzeko inprimakia beteta eroan beharko dute Aloña Mendiko Atzeko kalean duen egoitzara. Lehiaketan 18 urtetik gorakoek parte hartu dezakate.

ZORTZI SARI BANATUKO DITUZTE

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez sari bat jasoko duen arren, guztira zortzi sari banatuko dituzte: kategoria bakoitzeko hiru onenak, 300, 150 eta 100 euroko sariak; 100 euroko erosketa-txartela, herriko argazki onenaren dako, eta 100 euro, alpinismoko argazki onenaren dako.

Epaiamahaia argazkigintza arloko adituek osatuko dute eta abenduaren 10ean emango dute euren epaia. Abenduaren 19an, 19:00etan, sari banaketa ekitaldia egingo dute kultura etxeko erakusketa gelan. Gainera, lehiaketara aurkeztutako lan batzuekin erakusketa egingo dute abenduaren 19tik urtarrilaren 3ra arte. Urtarrilean zehar lehiaketan parte hartutako argazki guztiak postaz bueltatuko zaizkie egileei.



Asier Castroren *Ultimos reflejos* argazkia.

ALOÑA MENDI MENDI TALDEA

## 'Ultimos reflejos' eta 'Nos lo devuelve', iaz

Asier Castro bilbotarraren eta Raul Esteban mungiarraren *Ultimos reflejos* eta *Nos lo devuelve* argazkiek jaso zituzten, mendia eta natura eta salaketa kategorietako 300 eurotako lehen sariak, hurrenez hurren, iazko edizioan. Bigarren sariko 150 euroak Juan Jose Lopez bergararraren *Weissmiess* (mendia eta natura kategorian), eta Javier Pedro Fernandez *Huida* argazkiek lortu zituzten. Zumaia Jose Maria Llaboriren *Basoilo handia*, eta Errenteriariko Adolfo Vazquezen *Sangrante* argazkiek eskuratu zituzten hirugarren sariko 100 euroak. Azkenik, alpinismoko argazki onenaren 100 euroak, Iker Laskurain oñatiarrak eroan zituen *Mendiko izotzetan* izeneko argazkiarenkin.

> KULTURA

## Hilaren 31ra arte egin daiteke ikastaroetako ordainketa

Kultura sailak antolatutako eskulan ikastaroetan parte hartu behar duten herritarrek zabalik dute ordainketa egiteko epea; hain justu ere, hilaren 31ra arte egin behar dute ordainketa kultura etxeko idazkaritzan. Nagusien ikastaroan parte hartuko dutenek 64 euro ordainduko dituzte, haurren ikastarokoek 47 euro, eta bitxigintza ikastarokoek 44 euro. Zozketa egin ondoren, behin betiko zerrendak ikusgai daude kultura etxeko iragarki taulan. Ikastaroak azaroko lehen astean hasiko dituzte, dagoen ordu eta egunean.

> ALDAKETA

## Udaltzaingoaren telefono berria 943 08 10 00 da

Egoitza berria estreinatzearekin batera, telefonoa berria dute udaltzaingoan. Hortaz, eurekin berba egin gura dutenek 943 08 10 00 telefonora deitu beharko dute. Gainera, herritarrei lanak errazteko 092 zenbakia martxan jarriko dute laster.

Ertzaintzaren komisaria izandako 500 metro koadroko eraikinean zabaldu zuten udaltzaingoaren egoitza berria irailaren 15ean, ordu-tegi honekin: astelehenetik egubakoitza arte, 07:00etatik 22:00etara arte; eta zapatuetan, 07:00etatik 14:30era arte.



MIREIA BIKUÑA

## 'Oñati begi bistan' erakusketako lanak, banatuta

Ilunpetan argazki taldeak jaietan egindako *Oñati begi bistan* erakusketako argazkiak banatu ditu asteon. Jesus Iturraspe, Jose Ruiz, Aitor Gomez, Ana Mari Zubiagirre, Andoni Lopez de Lacalle, Irati Bikuña, Juan Luis Beitia, Ainhoa Bikuña. Mari Karmen Martin, Mila Aranburu, Aran Zabaleta eta Kontxi Maiztegi izan ziren irabazleak. Guztiok jaso zuten argazki bana. Goiko irudian daude irabazleetako batzuk argazkia jasotzen, Ilunpetan taldeko ordezkariekin.

GAZTEAK > SAN MARTINGO GAZTETXEA

## Gaur, gaztetxe berritan egingo dute lo lehen aldiz

M.B. > OÑATI

San Martingo gaztetxeko konponketa eta berritze lanak bukatu ondoren, lehen aldiz egingo dute lo bertan herriko gazteek gaur gauean. Hala, gaztetxearen inaugurazio ofiziala egingo dute. Horren harira, gaztetxean lo egin gura dutenek lozka eta zerria (esterilla) eroan beharko dute. Gazte guztiak gonbidatu dituzte.

HAINBAT EKINTZA

Bihar berriz, 10:00etan gosalduta ondoren, eztabaida egingo dute. Bazkalduta eta kafea hartu ondoren, mahai ingurua egingo dute. Afaldu aurretik, kontzertua egingo dute Bitz eta Galdu Arte taldeek. Domekan, herritarrei erakusteko ateak zabalduko dituzte 11:00etan, eta 16:00etan Gazte Batzarraren ibilbidea errepasatuko dute. Ondoren,

batzarra egingo dute, egindako bileretan Udalaren jokaera nolakoa izan den azaltzeko.

Hurrengo aste bukaeran ekintza gehiago egingo dituzte egubakoitzetik domekara arte.

**AITXURI**  
BURDIN LANAK

Galdaragintza

Mantentze lanak

Tel.: 688 63 95 18  
20230 LEGAZPI  
Gipuzkoa



Ainitze Lucero eta Iñaki Kortazar &gt; Inkernu tabernako arduradunak

# "Eskoriatzarrak aldatu egin dira; gero eta gehiago esku hartzen dute herriko ekintzetan"

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Inkernu taberna kulturaren erreferente bihurtu da; baita hemengo eta kanpoko musika talde askoren plaza ere. Aitzorrotz kultura elkartearen taberna kudeatzen eta kultura ekitaldiak egiten ibili diren bi lagunek erreleboa hartuko dute.

**Zer helburu jarri zenituzten orain dela bost urte taberna hartu zenutenean?**

**Ainitze Lucero:** Orduan herrian ez zegoen ia kultura ekintzarik, are gutxiago gazteendako. Hortaz, ekintzak antolatzea erabaki genuen.

**Iñaki Kortazar:** Lehenik eta behin, taberna martxan jarri behar izan genuen, eta ahalegina egin genuen mota guztietako jendeari atea zabaltzeko. Uste dugu helburu hori bete dugula.

**Zuekin batera, Aitzorrotz kultura elkarte indartu egin zen, ezta?**

**I.K.:** Bai; ordura arte elkar-teak ez zeukan leku apropos bat, eta taberna martxan jartzearekin batera, indartu egin zen.

**A.L.:** Lehendik ere elkartean gauzak egiteko gogoia eta ideiak bazeuden, baina orduan indar metaketa bat egin zen, eta taberna sendotu ahala, gero eta ekintza gehiago egiten hasi ginen. Hala jarraitu dugu. Egia esanda, bultzada handia hartu du Aitzorrotz kultura elkarteak.

**Zer motatako ekintzak egin dituzue?**

**I.K.:** Kontzertuak, antzezlanak, ipuin kontaketak, ardo dastatzeak, Aitzorrotz kultura elkartearen eguna, film emanaldiak, berbaldiak, erakusketak, lehiaketak, mendi irteerak... Gehienak Euskal Herrikoak izan dira, baina egon da baita Irlanda, Andalusia edota Bartzelonako talderik ere. Ekintzetako asko defizitarioak izan dira, baina elkarteak diruz lagundu ditu.

**A.L.:** Azken bost urteotan saiatu gara hilero hiru edo lau ekintza egiten; horietatik bi, batez beste, kontzertuak izan dira.

**I.K.:** Hasieran kontzertu akustikoak egiten hasi ginen, baina gerora rock emanaldiekin ere proba egin genuen. Poliki-poliki, musika talde, bakarlari eta antzerki talde txiki asko ikuskitzuna egiteko tabernara deitzen hasi ziren.

**Zein da izan duzuen unerik onenetarikoa? Eta txarrenetarikoa?**

**A.L.:** Niretzat onena, antolatu genuen lehenengo Aitzorrotz Kultura Elkartearen Eguna.

**I.K.:** Niretzat onena etortze-ar dagoela uste dut: agurreko jaiak hala izatea espero dut.

**I.K. eta A.L.:** Egon dira une txar batzuk, baina horiei buelta eman diegu eta gauza onekin gelditu gara.

**Zer da tabernari lanak daukan gauza onena?**

**A.L. eta I.K.:** Ona, jendearekin harreman handia izaten dela; hori oso polita da, baina aldi berean, lan oso lotua da.

**Zergatik utzi behar duzue taberna, bost urte pasa ostean?**


**A.L.:** Berez, bost urtetarako hartu genuen, azaro bukaera arte. Orain beste ideia batzuk ditugu, beste asmo batzuk. Neuk irakas-kuntzan jardun gura dut.

**I.K.:** Neuk laster kopia-denda bat zabalduko dut.

**Zelan ikusten duzue gaur egungo Eskoriatzako kultura eskaintza?**

**I.K.:** Askok hobetu da, baina oraindik badago zertan hobetu. Hain zuzen ere, gazteei dagokionez, ludoteka eta gaztelekua dauka, baina nagusiagoendako ez dago ezer.

**A.L.:** Jendea aldatu dela esango nuke: gehiago esku hartzen du egiten diren ekitaldietan. Bai Udalak antolatutakoetan eta bai Aitzorrotzek egiten dituenetan



Azaroan utziko dute taberna Iñaki Kortazarrek eta Ainitze Lucero. IKER BARANDIARAN

asko igo da esku-hartzea. Guk geuk ere asko igarri dugu azken urteotan.

**Zer aholku emango dizkiezue testigua hartuko dutenei?**

**I.K. eta A.L.:** Gogo handiz datorren Eskoriatzako familia

**"Kultura elkarteak ez zeukan leku aproposik, eta tabernarekin asko indartu da"**

Iñaki Kortazar

**"Azken hiru urteotan saiatu gara hilero hiruzpalau ekintza egiten, baita lortu ere"**

Ainitze Lucero

bat da. Haiei esan diegu gogoak ez galtzeko, eta pazientzia handia izateko. Onena opa diegu.

**Eta zuek jarraituko duzue inoiz ekintzak antolatzen?**

**I.K.:** Bai, nik kultura alorrean ekitaldiak antolatzen jarraitzeko asmoa daukat.

**A.L.:** Nik momentuz atsedenalditxo bat hartuko dut, baina baliteke gerora zerbait egitea.

**Bost urte hauei amaiera emateko jai berezia antolatu duzue. Zelakoa izango da?**

**I.K.:** Musika protagonista nagusienetako bat izango da, jakina, baina bere baitan musika estilo asko batuko ditugu, guztion gusturako jaiak izan dadin. Ekitaldi nagusia azaroaren 29an egingo dugu, baina bestelako ekintzak eta sorpresak ere izango dira: jai handi bat izango da.

> AISIALDIA

## Funky ikastaroa antolatu du Udaleko Gazteria Sailak

Urriaren 31tik abenduaren 19ra bitartean funky ikastaro trinkoa egingo dute Eskoriatzan. Ikastaroa Udaleko Gazteria Sailak antolatu du eta 14 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

Funky ikastaroa egubakoitzero egingo dute 17:00etan udal kiroldegian, eta izenematea zabalik dago dagoeneko.

Interesatuak udal kiroldegira edo Gazteria Zerbitzura jo beharko dute lehenbailehen.

Udal kiroldegira abonata daudenek 39 euro ordaindu beharko dituzte matrikulatzerakoan; gainontzeko interesatuak, berriz, 44 euro ordaindu beharko dituzte izena emateko.

> AISIALDIA

## Gabonetako jolasparkeko begirale beharrez

Urtero moduan, aurten ere Gabonetako jolasparkea jarriko dute abendu azken egunetan udal kiroldegian. Harrera oso ona izaten du ekimenak, eta kiroldegia ume eta gaztetxoak bete ohi da.

Hain zuzen ere, aurten abenduaren 28an, 29an eta 30ean izango da parke erraldoia herrian; eta antolatzaileek begiraleak kontratatzeke deialdia egin dute.

Horren interesa dutenek azaroaren 4a aurretik curriculum eraman beharko dute Udaleko Gazteria Zerbitzura martitzen edo egunetan 09:30etik 13:30era edota 14:00etatik 16:00etara. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 943 71 44 07 telefono zenbakira.

> KIROLA

## Datorren astean lau t'erdiko pilota txapelketa izango da

Datorren egubakoitzean, hilaren 31n, Asegarce enpresaren hainbat pilotarik lau t'erdiko pilota partidua egingo dute udal pilotalekuan.

20:30ean izango da norgehiagoka. Lehenik eta behin, eskuz binaka arituko dira Chafee-Escudero eta Saralegi-Apraz (edo Urrizelki, datu hori zehazteke dago oraindik). Horren ostean, Mendizabal II eta Oteiza zein baino zein izango dira norgehiagokan.

Partidua ikusteko sarrearak eskuragarri daude 6 eurotan. Are gehiago, antolatzaileek jakinarazi dute 14 urtetik beherakoek doan izango dutela sarrera.



Eguzki plakak  
fotovoltaikoak izango  
dira, bost kilowatiokoak

Euskal Energiaren  
Erakundeak  
finantzatu ditu

Aurretik beste bi  
eguzki plaka jarrita  
daude kiroldegian

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Azaroan bi eguzki plaka fotovoltaikoak jarriko dituzte udal bibliotekaren eta Luis Ezeiza eskolaren teilatuetan, bakoitzean bana. Euskal Energiaren Erakundeak (EEE) finantzatu eta jarriko ditu, eta instalazio horien etekinak EEErendako izango dira, inbertsioa amortizatu bitartean. Horren ostean, instalazioen jabetza eta erabilera Udalarena izango da. Amortizazioa bukatzeko, 15 bat urte pasa daitezke.

**ENERGIA JASO ETA GORDE**

Eguzki plaka fotovoltaikoek energia jaso egiten dute eta hori Iberdrolari saltzen diote. Hala egingo dute Eskoriatzan ere. Dagoneko, baina, badira beste eguzki plaka batzuk udalerrian. Hain zuzen ere, kiroldegiko teilatuan bi plaka jarrita daude aspalditik.

Instalazio horiek egitea Udalak eta EEEK hitzarmen baten bitartez adostu zuten. Hain zuzen

INGURUMENA > ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

# Bibliotekan eta Luis Ezeizan eguzki plakak jarriko dituzte



Orain dela bost bat urte udal kiroldegian teilatuan eguzki plakak jarri zituzten. Aukera horri jarraipena eman gura dio Udalak.

IKER BARANDIARAN

ere, EEEK bi plaka ehuneko ehunetan finantzatzeko konpromisoa hartu zuten, eta Udalak aipatutako bi kokapenak aukeratu ditu.

**ENERGIA AURREZTEKO ASMOA**

Aipatutako hitzarmenaz gain, EEEK eta Udalak bestelako akordio bat ere badute. Horren arabe-

ra, energia aurrezteko balio duten ekimenen gaineko informazioa, horren gaineko programa eta laguntzen finantzazioa, aholkula-

ritza teknikoa eta beste partekatzeko dabilta. Hala, EEEK Eskoriatzako eraikin publikoen energia kontsumoa aztertu berri du.

ZALETASUNAK > PERRETXIKOAK

## Asteburuan, 125 espezie batuta

Antolatzaileek uste zuten baino perretxiko gehiago batu dituzte asteburuan zehar

I.B. > ESKORIATZA

Joan den asteburuan perretxikoen gaineko jardunaldiak egin zituzten Eskoriatzan, Luis Ezeiza eskolako gurasoen elkartearen eskutik. Horren harira, idatzi genuen aurreko asteetan oso perretxiko gutxi egon direla; horregatik kezkatuta zeuden antolatzaileak. Hala ere, azkenean jakinarazi digute perretxikoen 125 bat espezie batu zituztela, eta pozik daudela.

**ERREKETAN ETA ARANTZAZUN**

Perretxiko gutxi egongo ote ziren kezkatuta, hainbat guraso egubakoitzean Erreketa (Leintz Gatza) aldera joan ziren horiek batzera. Eta zapatuan, berriz, ume eta beste gurasoekin taldean Arantzazu aldera jo zuten, Durangoko mikologia adituen gomendioari kasu eginda.



Perretxikoek jakin-min handia pizten dute herritarren artean.

LUIS EZEIZA

Domekari dagokionez, herriko plazan oso giro ona izan zutela nabarmendu dute. Hala, eguerdian perretxikoen erakusketa eta txanpinoien dastatzea egin zuten. Jende asko batu zen perretxikoen gainean gehiago jakiteko asmotan.

**ZOKKETA ERE EGIN ZUTEN**

Erakusketarekin lotuta, txartelen zokketa egin zuten eta Andoni Azkargorta eskoriatzarrak jakiz betetako otar bat eskuratu zuten. Onddo ikusgarrienaren saria, berriz, hutsik gelditu zen edizio honetan.

LEHIAKETA > UDAL ZERBITZUAK

## Erretiratuen tabernaren ustiapena, lehiaketara

Interesatuak azaroaren 6a baino lehen eman beharko dute izena udaletxean

ruan dauden komunak ere garbitu beharko dituzte. Lan horiek egiteaz gain, taberna-aretoaren ardura hartzen duen Udalari hilero 300 euro ordaindu beharko dizkio.

**GUTXIENEZ BI URTETARAKO**

Udalaren eta interesatuaren arteko kontratuak bi urteko iraupena izango du gutxienez, baina bi aldeak ados jarriz gero, beste bi urtera arte luzatu ahal izango dute akordioa. Hala ere, muga 20 urtetan jarrita dago. Taberna 11:00etatik 22:00etara zabalik egon beharko da aste-egun guztietan.

**LEHIAKETARAKO BALDINTZAK**

Eskatzaileek 2007ko irailaren 1a baino lehen Eskoriatzan errol-datuta egon beharko dute, eta urteko diru sarrerak 16.000 euro baino txikiagoak izan beharko dira. Eskaerak Udaleko erregistroan aurkeztu beharko dira, astelehenetik egubakoitzera bitartean, 10:00etatik 13:30erako ordutegian, azaroaren 6a baino lehen.

I.B. > ESKORIATZA

Udalbatzak urriaren 13an egingo du ezohiko osoko bilkuran Olazar erretiratu elkartearen taberna-aretoa ustiatzeko kontratazio prozedura zabaldu zuten. Hala, ustiapen horren gaineko baldintzak onartu zituen, eta herenegun, eguaztena, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zuten onartutako deialdia.

**GARBIKETA ETA ZAINTZA**

Esleipenaren helburua da taberna-aretoaren zerbitzua ustiatzea eta baita taberna-aretoaren zerbitzurako diren instalazioak zein materiala garbitzea eta erretiratuen elkarteko atezaintza zerbitzua ematea ere. Horrez gain, tabernaren ondolan, eraikinaren beheko solai-



EUSKARA &gt; UDAL OHARRAK

## Toki gehienetan, udal bandoak euskara hutsean ipiniko dituzte

Beheko auzoan, Antiguan eta Errekalden euskaraz eta gaztelaniaz irakurri ahal izango dituzte aurrerantzean ere Udaleko jakinarazpenak

**IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA**  
Udalak 2004ko urriaren onartu eta abiarazi zuen Udalean euskararen erabilera bultzatzeko plana. Orain, Udalerri Euskaldunen

Mankomunitatearen bitartez, plangintza horren gaineko balorazioa eta datozen urteetan euskararen erabilera bultzatzeko proposamenak egin dituzte.

**UDALETXEAN EUSKARAZ**  
Azterketaren ostean ikusi dute Udalean barne harremanak, bai langileen artekoak, zinegotzien artekoak eta baita zinegotzien

eta langileen artekoak, euskaraz egiten direla, batik bat; kanpora begirako harremanetan, aldiz, euskararen erabilera gora egin badu ere, gehiago egiteko beharra sumatu da. Horretarako, hainbat neurri hartu dituzte jadanik, izan ere, Udalean hartutako neurriek herritarrengan dute eragina.

### BANDOAK ETA OHARRAK

Herritarrei dagokienez, neurriak eraginkorrenak izango dira kaleko oharrak eta bandoak euskaraz hutsean ipintzea, eta jadanik hasiak dira paperak hala kaleratzen. Hala ere, garbi utzi nahi dute herriko hiru tokitan

euskaraz eta gaztelaniaz, biatera, ipiniko dituztela Udaleko jakinarazpenak aurrerantzean ere: Beheko auzoan, Antiguan eta Errekalden. Hiru toki horiek aukeratu dituzte uste dutelako herrian elebaker kopuru handiena gune horietan dagoela.

Dena dela, neurri honekin ez dute oztopatu nahi herritarrengana informazioa heltzeko bidea, hortaz, edozeinek jo dezake udal txerara informazio eske, oharrak ulertu ezean.

Aurrerantzean, Udal batzordeetan euskararen erabilera areagotze aldera, beste hainbat neurri ere hartzea da asmoa, batik bat barne funtzionamendurako.

&gt; KIROLA

### Punk eta oi! kontzertua gaur gaztetxean

Kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean. Ondarroako Jaki Mate taldeak punk doinuak ekarriko ditu gaztetxera, 80ko hamarkadako punk taldeen bertsiok, hain zuzen ere. Ondarrutarrekin batera gaztetxean izango dira Red District taldeko bergararrak oi! doinuak eskaintzen. Kontzertua 23:00etan hasiko da eta sarra doan da. Bestalde, gaztetxeak laster hasiko dira hurrengo ekintzak gertatzen.

&gt; LITERATURA

### Ipuin kontalaria zapatu arratsaldean liburutegian

Miren Camisonen eskutik ipuin kontaketa saioa izango da zapatuan, hilaren 25ean, 18:00etan liburutegian. 4 eta 10 urte bitarteko umeendako ipuin saioa izango da. Istorio motzak eta biziak eskainiko ditu ahoz eta ilustrazio bereziak dituzten ipuinekin kontatuak. Miren Camisonen emanaldietan munduko istorio ezberdinak kontatzea du gustuko, horrela, entzule txikiak eta eurekin joaten diren gurasoek irudimenezko bidaia egiteko lekutik mugitu gabe.

AISIALDIA &gt; IRTEERA

## Ibilaldia herri ingurua ezagutzeko, domekan

Ibilbidean barrena jende askok ezagutzen ez dituen herriko iturriak, karobiak eta txabolak ikusiko dituzte, besteak beste

I.A. &gt; ANTZUOLA

Urriaren 26rako, Antzuola ezagutzeko ibilaldia antolatu du Udalak. Plazatik 09:00etan abiatu eta hiru edo lau orduko ibilaldia egingo dute. Ibilaldian aukera izango da iturriak, karobiak eta txabolak ezagutzeko.

LANDATXO, OTAIN, IRULAR

Lapatzatik Landatxo alderako bidean Misotik herrira ura ekartzeko kutxatila ikusiko dute eta gero, Landatxon, txabola. Pagpera joango dira handik eta iturria ikusiko dute; Otainen, berriz, karobia eta iturria. Hortik jende oso gutxi ibiltzen den bidezidor batetik Arrandari aldera joko



Otainen karobia ikusteko aukera izango dute ibilaldian parte hartzen dutenek.

JOSE MARI ITURBE

dute, bidean pare bat txabola ikusiz. Arrandari heldu aurretik Irularrerantz jo eta oso jende gutxi ezagutzen duen iturri bat ikusiko dute.

Otain aldera bueltatu eta uraska eta iturburua ikusiko dituzte; Altamiran, bunker itxurako txabola, eta gero, Zupideko iturrira joango dira.

Inguru horretatik Antzuolako oso ikuspegi polita dago eta jende gutxi ezagutzen du. Antolatzaileek gomendatu dute prakak luzeak jantzea.

ARGAZKILARITZA &gt; LEHIAKETA

## Hil bukaera arte parte har daiteke argazki lehiaketan

Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiekin erakusketa egingo dute azaroan

I.A. &gt; ANTZUOLA

Abian da XIV. Argazki Lehiaketa eta hilaren 31n bukatuko da epea lanak udaletxean aurkezteko. Gaia librea izango da eta partaide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake, koloretan nahiz zuri-beltzean.

LAU MAILA

Lau maila bereizi dituzte antolatzaileek: 1. mailatik 6. mailara artekoak; 6. mailatik DBH 2ra

artekoak; 15 eta 25 urte artekoak; eta 26 urtetik gorakoak. Sariak dirutan banatuko dituzte eta 150 eurokoa izango da handiena. Argazki adituek osatuko dute epaimahaia eta lanak baloratzeke kalitate teknikoa eta artistikoa eta originaltasuna hartuko dituzte kontuan.

Aurkeztutako argazki guztiak azaroaren 9tik 11ra bitartean Orlanen egingo den erakusketan ipiniko dituzte.

ZERBITZUAK &gt; GARRAIO PUBLIKOA

## Taxi zerbitzuak tarifa berriak izango ditu 2009an

Ordaindu beharreko gutxienezko 3,1294 euro da; gainerakoa, ibilbidearen arabera

I.A. &gt; ANTZUOLA

Udalbatzarrean onartu zituzten 2009rako Agitax elkarteak aurkeztutako herri barruko taxi zerbitzuen tarifak. Bi tarifa mota daude: astegunetan, 07:00etatik 22:00etara bitartekoa; eta astegun gauetan 22:00etatik 07:00etara bitartekoa eta jai egunetakoak.

Lehenengoan ordaindu beharreko gutxienezko 3,1294 euro da: ibilbide kilometro bakoitza, 0,9803; eta itxaron ordua, 18,7223. Bigarrenean, gutxienezko berrera den arren, kilometro bakoitzeko 1,4636 euro ordaindu behar da, eta taxia zain dagoen ordu bakoitzeko, 29,4314 euro.

PRESENTZIA AREAGOTU

Udalbatzarrean zinegotziek taxien gaineko eskariak egin zituzten: besteak beste, plazako geltokian seinalea ipintzea edo geltokian taxien presentzia areagotzea, orain apenas egoten baitira.

MUJIK A  
HARATEGIA



**Berezitasunak:  
Etxean hazitako  
zekorrek eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34



LANAK > IRISGARRITASUNA

# Kultura etxeko igogailua laster da erabilgarri

Oxel Erostarbe alkateak jakinarazi du "egunotan" ipiniko dutela martxan; "udal eraikinetan zegoen hutsunea garrantzitsua" zela adierazi du

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Udal liburutegia, KZgunea, ludo-teka... zerbitzu asko hartzen ditu kultura etxeak gaur egun. Orain arte, ordea, eraikinak ez ditu gutxienezko irisgarritasun neurriak bete eta mugikortasun arazoak dituzten herritarrendako ezinezkoa izan da zerbitzu horiek erabiltzea. Baxua eta hiru solairu ditu eraikinak eta udal liburutegia bigarrenean dago, esaterako.

Oxel Erostarbe alkateak jakinarazi du laster egongo dela martxan kultura etxeko igogailua. "Hauteskunde kanpainan agindu genuen igogailua martxan ipiniko genuela eta laster, egunotan, egongo da erabilgarri", ziurtatu du alkateak. Udalak Orona enpresari esleitu dio igogailua martxan jartzeko lana. Aurrekontua 6.231,58 eurokoa da.

Pozik hartu dute albisteak kultura etxeko erabiltzaileek, tartean Maria Elena Eztenaga udal liburuzainak: "Premiazko gauza bat dela uste dut. Liburutegia bigarren solairuan dago eta jendeak askotan eskatzen du igogai-

lua zailtasunak dituztelako bertara iristeko", adierazi du Eztenagak.

Liburuzainak gogoratzen du hasiera batean igogailua martxan egon zela, duela 20 bat urte edo. "Matxuratu egiten zen, behin eta berriz umeek modu txarrean erabiltzen zutelako", gogoratzen du. "Gora eta behera ibiltzen ziren ezkutuan. Behin eta berriz konpontzea garestiegia zela-eta, Udalak zegoenetan uztea erabaki zuen". Inoiz edo atzera ere martxan jarri izana gogoratzen du Eztenagak. "Ekitaldi bereziren baterako edo erretiratuen hitzaldiren baterako... baina eguneroko erabiltzenerako, ez".

Ume txikiekin liburutegira igotzen diren gurasoak, ebakuntzaren bat egin eta eskailerak igotzeko zailtasunak dituztenak, igeltsuarekin daude umeak... "Jende ugari eskatzen du igogailua, eta pozten naiz atzera ere martxan jartzeaz. Hori bai, argi eduki behar dugu ondo zaindu beharko dugula denok, berriz ere hura barik geratu nahi ez badugu, behintzat".



Orona etxeak ipiniko du martxan Kultura Etxeko igogailua.

L.Z.

## BESTELAKO EGITASMOAK

### Eserleku berriak ipiniko dituzte Asentzion

Irisingarritasunarekin lotutako bestelako asmoak ere baditu Udalak. Asentzion, esaterako, eserleku berriak ipiniko dituztela aurreratu du alkateak. "Laster izango da hori", adierazi du. Eserleku horien kostua ez da nolana hikoia; 4.899,84 euro, hain justu ere.

Udal irisgarritasun plana eguneratzeko asmoa ere badutela jakinarazi du. "2002. urtean egindako planarekin ari gara eta eguneratzeko beharra dauka", adierazi du Erostarbek.

Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatu dio Elgetako Udalak, eta erantzunaren zain daude. Plan hori eguneratzeak 20.300 euro suposatuko ditu.

KULTURA > ASTEBURUKO AGENDA

# Oi! musika zaleendako hitzordua Espaloian



Ostiada Oi! taldeak bere 10. urteurrena ospatuko du bihar gauean.

ARTXIBOA

Lau talde izango dira bihar eszenatoki gainean Ostiada Oi! taldearen 10. urteurrena ospatzeko

L.Z. > ELGETA

Ostiada Oi! taldeak hamar urte betetzen ditu eta kontzertu batekin ospatu nahi du urteurren esanguratsu hori.

Bihar, zapatua, Espaloia Kafe Antzokiko eszenatoki gainean ikusteko aukera izango dugu 22:30ean hasita. Ez dira bakarrik egongo. Biharko emanaldian lagun izango dituzte beste hiru talde: Never Surrender, Enboskada eta Hell Beer Boys. Sarre-ra 5 euro izango da, bazkideendako 3 euro. Oi! musika gustuko duenak, beraz, badu hitzordua aste bukaeran.

PAILAZOAK DOMEKAN

Domeka arratsaldean, berriz, txikien txanda izango da antzokian. 17:30ean hasita Poxpolo, Mokolo

eta Konpainia taldeko kideak izango dira emanaldia egiten. Udalak eta Kutxak antolatutako ekintza da. Pailazoek *Run Run* delako ikuskizuna eskainiko dute Elgetan.

ERAKUSKETA ZABALIK

Behin antzokian, merezi du Maitel del Reyk eta Maider Zubillagak bertan ipini duten erakusketari minutu batzuk eskaintzea.

Poesiak, margolan akrilikokoak eta argazkiak nahasten ditu *Libelandula* delako muntaiak. Del Rey da poemen egilea eta Zubillaga arduratu da margolan eta irudiez. Badira lau edo bost urte elkarrekin lanean dihardutela. Honakoa laugarren erakusketa dute. Liburuxka bat ere salgai ipini dute 5 eurotan.

> TASATUAK

### Hamaika eskatzaile, bost etxebizitza tasatuetarako

Azaroaren 5ean, eguaztena, egingo du Udalak Uruburuko bost etxebizitza tasatuen zozketa berria. Osoko bilkuren aretoan izango da, 18:30ean hasita.

Astelehenean, hilaren 20an, amaitu zen zozketa horretan izena emateko epea. Hamaika eskaera onartu ditu udaletxeak ezagutzera emandako behin behineko zerrendan. Horietatik bi dira Elgetan erroldatutako herritarrek egindakoak. Asmoa da eskriturak abenduko lehenengo astean sinatzea.

> I. PINTXO LEHIAKETA

### Edurne Alberdi zinegotziak eskerrak eman nahi ditu

Turismo Batzordeko burua den Edurne Alberdik balorazio positiboa egiten du domekako perretxiko erakusketa-aren eta I. pintxo lehiaketaren inguruan. "Uste dut festa egun polita izan zela eta jende dezente mugitu zuela herrian. Eskerrak eman nahi dizkiet bereziki esan truk lanean aritu ziren perretxiko biltzaileei eta baita pintxoak gertatu zituzten ostalari guztiei ere", esan du.

> IZENEMATEAK

### Elgetako lau handiak azaroaren 9an egiteko aukera

Azkonabitza, Eguarbitza, Erdella eta Intxorta: Elgetako lau handiak egiteko irteera antolatuta du aurten ere Egoiki kirol taldeak. Azaroaren 9rako, domeka, egin dute deialdia eta izenematea zabalik dago azaroaren 7ra arte udaletxean.

Bi ibilbide egingo dira. Handia (6 bat ordu) 08:00etan irtengo da plazatik, eta txikia (3:30 ordu), 09:00etan. Izena emateko baldintza bakarra da 8 urtetik gorakoa izatea.

> PILOTA TXAPELKETA

### Bederatzi partidu aste bukaeran udal pilotalekuan

Barikuan, 20:30ean hasita, bost partidu jokatuko dituzte herri mailako pilota txapelketan. Domekan, berriz, 11:00etan hasita, lau norgehiagoka izango dira.

Txapelketako 17 bikoteak, beraz, kantxan lanean ikusteko aukera izango dugu datozen egunotan. Egutegia [www.goiena.net/elgeta](http://www.goiena.net/elgeta) helbidean duzue ikusgai.



Paul Bilbao &gt; Behatokiko zuzendaria

# "Hain ohikoa denez hizkuntza eskubideen urraketa, normaltzat jotzen dute askok"

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Paul Bilbao Behatokiko zuzendaria da eta hizkuntza eskubideen inguruan jardun zuen astelehenean Aramaion egindako hitzaldian. UEMAK eta Behatokiak hitzarmena sinatu berri dute eta, horri esker, aramaiorrek hizkuntza eskubideen urraketan gainera keak herrian ipini diren postontzi batzuetan sartu ahalko dituzte. Hitzarmenaren gaineko xehetasun guztiak azaldu dizkigu Bilbao eta Behatokia gertuagotik ezagutzeko aukera ere eman.

## Zer da Behatokia eta zeintzuk dira bere betebeharrak?

Hizkuntza eskubideak babes-teko Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak sortutako erakundea da. Erakunde independentea da eta herritarrek aurkeztutako keak konpontzen saiatzea da gure lana.

## Zer egin behar dugu gure hizkuntza eskubideak urratzen dituztenean?

Behatokiak telefono zerbitzu bat dauka. Herritarrek euren keak aurkeztu ditzakete bertan. Oso prozedura zorrotza daukagu kexa horiek bideratzeko; gertaeraren gaineko informazioa jasotzen dugu eta, gero, horren berri ematen diogu kexa eragin duen erakundeari. Anonimotasuna gordetzen dugu eta kexa ipini duenarekin ere harremanetan izaten gara prozesua nola dagoen azaltzeko. Gure azken helbu-

ria da salatutakoa berriz gerta ez dadin beharrezko mekanismoak martxan ipintzea.

## Hizkuntza eskubideen urraketan salatzeak ohitura falta dagoela uste duzu?

Bai. Zazpi urte daramatzagu zerbitzu honekin eta 5.000 espedientetik gora zabaldu ditugu. Horietatik zera ondorioztatu dugu: hizkuntza eskubideen urraketak horren sistemakoak eta ohikoak direnez, normaltzat hartzen ditugula. Horregatik, herritarrek horrelakoak salatzea animatu nahi ditugu. Badakigu goizean jaiki eta, gauean, ohera sartu bitartean, behin eta berriz urratzen dituztela gure eskubide horiek. Beraz, horiek salatzea oso garrantzitsua da. Zentzu horretan, esan behar dut Behatokia hedabideetan agertzen denean, gehienetan, kasu larriengatik izaten dela. Baina urraketa txikiak ez dira gutxia-

## "Udaletxean eta kultura etxean ipinitako postontzietan keak aurkezteko aukera dago"

## "Zazpi urte daramatzagu lanean eta, urte horietan 5.000 espedientetik gora ireki ditugu"



Paul Bilbao Behatokiko zuzendaria da.

ROSA MONDRAGON


go eta ez dute garrantzia gutxiago. Gainera, akaso kasu txiki horiei irtenbidea ematea errazago izaten da.

## UEMarekin hitzarmena sinatu berri duzue. Zein da akordio horren helburua?

Herritarren keak jasotzeko beste bide bat zabaldu nahi dugu eta Behatokia herritarrei gerturatu. UEMAKo udalerrietan postontzi batzuk ipiniko ditugu eta horietan keak aurkeztu ahalko dituzte. Aramaion udaletxean eta kultura etxean egongo dira eta inprimaki bat bete beharko da gertatutakoa azalduaz. Asmoa da bi astean behin batzea keak.

## Zeintzuk dira euskaldunon hizkuntza eskubideak?

Hizkuntza eskubideak oinarriko eskubideak dira, hau da, euskaldunok gure hizkuntza erabiltzeko eskubidea daukagu bizitzako esparru sozial guztietan, dela publikoetan, dela harreman pribatuetan. Esparru publikoan administrazioak dira eskubide hori bermatu behar dutenak. Legeak eskubidea aitortzen du. Hori horrela, herritarrok legea bete behar dugun moduan, administrazio eta erakundeek ere bai. Are gehiago, legeak eskubidea aitortzen ez duen lekuetan ere, Nafarroan edo Iparraldean, esaterako, eskubide berberak izaten jarraitzen dugu, eskubide horiek oinarrikoak direlako.



GOIENKARIA

## Txirritolaren lehiaketako postal irabazlea

Txirritola Euskara Elkarteak antolatutako postal lehiaketak badauka irabazlea. Kasu honetan, lau pertsonaren artean banatu beharko dute saria: Axpe-Alonso familiako Irati, Julen, Maite eta Jon Andoni. Dolomietatik bidalitako postala da. 175 euroko saria jasoko dute euskarazko materiala erosi ahal izateko. Azaroaren 14an izango da hori, osoko bilkuren aretoan, Txirripartxis lehiaketaren ostean. Postalak azaroaren 12an eta 13an ikusgai egongo dira, egun osoz, Aramaio kultura etxean.

KULTURA &gt; ERRETIRATUEN EGUNA

## Aurtengo azokan, ganadua eta animaliak egongo dira kultura etxe pareko parkean

Nardeaga kalean denetariko produktuak salduko dituzte goizean zehar; guztiak herrikoak

an zaldiak, behiak, ahuntzak, ardiak eta hegaztiak ikusi ahalko dira. Horiek guztiak Aramaioko baserrietakoak izango dira.

### BAZKARIA ETA OPARIA

Erretiratuak izango dira, beraz, protagonistak Aramaion zapatuan. Goizean, meza egongo da, eta trikitilariak eta dantzariak, ondoren, azoka inguru girotu dute. 14:30ean, gero, herriko erretiratuek bapo bazkalduko dute kiroldegian. Opariak ere izango dira tartean. Zozketa egingo dute eta, aurtien ere, besteak beste, Benidormera bidaia egiteko aukera izango du norbaitek. Bazkaldu ostean, dantzaldiarekin, giro polita izango dute erretiratuek kiroldegian.

ARRITXU BARRUSO &gt; ARAMAIO

Aurtien ere erretiratuen eguna ospatzeko azoka antolatu du Aramaio Udalak zapatutako. Aurtien, gainera, nobedadeak egongo dira azokan.

Urtero moduan, Nardeaga kalean denetariko produktuak ikus-teko aukera egongo da: barazkiak, fruituak, loreak, eztiak, sagardoak... Baina horrez gain animaliak ere egongo dira aurtien. Kultura etxe pareko parke-



OSPAKIZUNA > 50. URTEURRENA

# Dorletako Ama koroatu zutela 50 urte domekan

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako zikloturistak gonbidatu dituzte santutegian elkartzeko

Juan Maria Uriarte gotzainak esango du meza, Eskoriatzako abesbatza lagun duela

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Dorletako Ama Birjinaren koroatzearen 50. urteurrena ospatuko dute domekan, urriak 26. Txirrindularien zaindaria da Dorletako Ama, eta txirrindulariak lagun dituela ospatuko dute urteurrena.

ZIKLOTURISTEN ELKARGUNEA

Gatzagako Txirrindulari Batzordeak eta Udalak elkarrekin antolatuko dituzte domekako ekitaldiak. Gonbidapen asko bidali dituzte, tartean Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Euskal Autonomia Erkidegoko zikloturista federazioei; baita Aldundiko ordezkarietara eta inguruko herrietako alkateei ere. Oraindik ez dute guztien baietza jaso, baina badakite Arabako zikloturistak

bertan izango direla. Eguraldi ona izanez gero, 200 edo 300 lagun elkar daitezkeela uste dute antolatzaileek. Hitzordua santutegi aurreko zelaian dute 11:00etan: "Bizikletan etortzeko esan diegu, eta txirrindulari asko halaxe hurreratuko direlakoan gaude", argitu digu Eusebio Villar alka-teak.

Behin zikloturistak elkartuta bertsoari agurra jasoko dute eta Eskoriatzako txistularien ekitaldia izango da (11:30). 12:00etan, meza esango dute Dorletako santutegian Ama Birjinaren koroatzea gogoratzeko. Juan Maria Uriarte Donostiako elizbarrutiko gotzaina etorriko da meza esatera, eta Eskoriatzako abesbatzak egingo dio lagun ekitaldian. Aretxabaletako dantzarien



Dorletako santutegian dagoen Ama Birjinaren irudia; XIII-XVI. mende artean egindako taila gotikoa da.

PARROKIA

aurrekuarekin egingo diote agur Ama Birjinari, eta loreak eskainiko dizkiote. Bukatzeko, salda eta mokadutxo eskainiko dute santutegi aurreko zelaian.

TXIRRINDULARIEN ZAINDARIA

Orain dela 50 urte -1958ko urriaren 26an- zikloturista eta eliztar ugari elkartu zen leku berean,

Dorletako santutegian. Arrasateko parrokoa zen Jose Luis Iñarrak egin zuen koroatzearen ospakizuna, eta Dorleta Txirrindulari Elkarteak sortzeko bultzada izan zen ekitaldia. Behin elkarteak sortuta, Juan XXIII. Aita Santuarengana jo zuten zaindari izateko eskatuz. 1973an Txirrindularitza Federazioaren estatutu ofizialak

onartu zituzten, eta Dorletako Ama txirrindulari guztien zaindaria izatea onartu zuten.

Arlabango errepidean Ama Birjinaren irudi bat dago lore eta kandela asko dituela inguruan, baina Dorletako santutegian dagoena da jatorrizkoa. XIII. eta XVI. mende artean egindako taila gotikoa da.

AISIALDIA > BASOAK

## Basoan zelan jokatu arautu dute

Arauk urratuz gero, Baso Administrazioak zigorrak jartzeko ahalmena dauka

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Abereak basoan ibiltzea arautzen duen ordenantza onartu berri dute, eta ordenantza horretan basora doazen txangozaleek zelan jokatu ere arautu dute.

Basoak garbi mantendu behar dituzte mendizale eta bisitarietara, eta norbera arduratuko da sortutako hondakinak jasotzeaz. Sua egitea debekatuta dago egokitutako lekuetatik kanpo, eta guztiz debekatuta dago baldintza egokirik ez badago -haize handia, lehor-te luzea. Debekatuta dago, gainera, zaratak sortzen dituzten tresnak erabiltzea, eta ohiko zelaietan txakurrak aske ibiltzea.



Deba ibaia sortzen den Hiruerreketa inguruan, hainbat txangozale.

M.A.

Aisialdirako ibilgailuak -motordunak zein bizikletak- baimendutako bideetan bakarrik ibil daitezke, eta aparkalekuetan utzi behar dira. Kanpatzea gura izanez gero, eskaera Baso Administrazioari jakinarazi behar

zaio, eta ezingo da kanpaldirik egin iturrietatik 50 metro baino gertuago.

Ordenantzako arauen bat urratuz gero, Gipuzkoako Baso Administrazioak zigorra jartzeko ahalmena dauka.

EHIZA > USOAK ETA BIRIGARROAK

## Urriko azken asteotan, uso asko pasatu da ingurutik

Azken hamar egunak aprobetxatu gura dituzte ehiztarietara usoak harrapatzeko

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Joan zen aste bukaerako eguraldia -batez ere domekakoa- bikaina izan zen usoak pasatzeko, eta hala, 1.000 bat uso harrapatuko zituztela gure inguruan jakinarazi digu Gatzagako Ehi-za Elkarteak kide batek. Urriko azken asteak dira onenak ehiztariendako, baina egunotan euria egin du, eta euriarekin, ezin ehizatu. Oraindik hamar bat egun geratzen zaizkie aprobetxatzeko; izan ere, azaroan nabarmen aldatzen da eguraldia eta ez da ohikoa uso asko pasatzea.

USO ASKO, BAINA ALTU

Gatzagan 100 postu inguru daude; horietatik 64 onura publikoko basoetan daude eta Ehiza Federazioarenak dira. Gatzagako Ehiza Elkarteak 18 postu ditu. Zozketatu egiten dituzte postuok -azken horiek elkarte-kideen artean- eta bakoitzean bi lagun egoten dira. Astelehen eta martitzenean 200 bat lagun egon ziren postuetan; domeketan, asko ugaltzen da kopuru hori: "Joan zen domekan, zuhaitz bakoitzaren ostean ehiztari bat zegoela esango nuke", adierazi digu gatzagar batek. Uso asko pasatu zirela orduan onartu du, baina nahiko altu: "Apu bat jaisteko itxaron beharrean tiroka hasten gara guztiok, eta gero, ezin harrapatu", dio. Oraindik badi- tuzte eguntxo batzuk ehizatze-ko gogo hori asetzeko.



&gt; PILOTA

**Gipuzkoako txapelketako norgehiagokak**

Debagoieneko pilotariak Gipuzkoako Txapelketako norgehiagokak jokatuko dituzte asteburuan.

Bergarako Udal Pilotalekuan gaur arratsaldean jokatuko dituzte norgehiagokak (19:30). Hor, Bergarako pilotariak Behar Zanaok, Mundarrokoak eta Usurbilgoak izango dituzte aurrean.

Eskoriatzako pilotalekuan, berriz, 20:00etan jokatuko dute gaur Hernaniren kontra. Eta Arrasateko pilotariak ere gaur jokatuko dute, 21:00etan hasita Alde Zaharra eta Behar Zana taldeetako pilotarien kontra.

Aretxabaletan eta Elgetan bihar, zapatua, jokatuko dituzte partiduak (17:00).

&gt; SASKIBALOA

**Eskoriatzako neskek Oiarsoen kontra jokatuko dute**

Eskoriatzako neskek Oiarsoen kontra ahaleginduko dira joan den astean ligan izandako hasiera makala zuzentzen. Norgehiagoka Errenterian jokatuko dute, domekan, 11:45ean.

Joan den asteko partiduari dagokionez, eskoriatzarrek 30-38 galdu zuten Internacional taldearen kontra, baina lehenengo jardunaldia izanda, ez dago ondorio handirik ateratzerik. Egia da, baina, bi taldeak ere justu samar ibili zirela taulara begira, puntu gutxiko norgehiagoka izan zen-eta. Aurtentzen ere Lauko Finalera sailkatzea da eskoriatzarren buruan dagoena, eta hori lortzeko liga luzea geratzen da oraindik.

&gt; ERRUGBIA

**Lider dagoen Arrasate Santanderrera joango da bihar jokatzeraz**

Elorrioren eta Arratiako Zekorren kontrako garaipenei esker lider da Arrasateko taldea. Joan den astean nagusitasun osoa erakutsi zuten Arratiako mutilen kontra, eta oraingo asteburuan nagusitasun hori Santanderreren erakusteko asmoarekin egingo dute Kantabriaraino bidaiara.

Santanderko Construcciones Rivago sailkapenaren erdian dago, baina Arrasateko baina partidu bat gutxiago jokatuta. 16:30ean izango da norgehiagoka.

Emakumeek, berriz, Mojategin jokatuko dute bihar, 17:00etan. Kerexetaren neskek La Unica taldea izango dute aurrean.



ALCAIDE ETA FRANCO Aurreko edizio bateko partidan, Aitor Alcaide aretxabaletarra eta Alejandro Franco madrildarra, aurrez aurre; aurtentzen ere txapelketan izango dira biak.

XAKEA &gt; ARRASATE HIRIA TXAPELKETA

# Zortzigarrena, gaurtik hasita

Maila goreneko xakelariak izango dira gaur hasiko duten Arrasate Hiria Xake Txapelketan

Alejandro Franco madrildarra da favoritoa, baina kontrario gogorak izango ditu

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

San Andres Xake Elkarteak antolatuta, gaur hasiko dute Arrasate Hiria Xake Txapelketako zortzigarren edizioa, eta azken edizioetan moduan, oraingoan ere maila goreneko xakelariak gonbidatu dituzte torneora, nazioarteko hainbat maisu izango dira eta zein baino zein gehiago.

Aurrez, 2006ko txapeldun eta iaz bigarren sailkatu zen Alejandro Franco (2490 Elo FIDEko nazioarteko maisu) da favoritoa, baina besteak beste, Grezian Europako Txapelketa jokatzen ibili berri den beste nazioarteko maisu bat izango du aurrean, Iñigo Argandoña.

Eurekin batera, ezin baztertu FIDEko maisu Cristobal Limeres, Fran Miguel edota Carlos Nava jokalaria bilbotarra.

JOKALARI EZAGUNAK DIRA

Lehenago aipatutako xakelari horiek aspaldiko ezagunak dira: Argandoña 2005an torneoko azpitxapeldun izan zen; Navak, berriz, lehenengo txapelketa poltsikoratu zuen 2001ean -orduan txapelketa itxia zen-; Limeres ere behin baino gehiagotan izan da gurean, 2001ean bigarren sailkatu zen eta 2002an torneoko one-

FUTBOLA &gt; REALA

# Alderdi politikoak, bat Realari eskatu beharrekoarekin

Iñaki Galdosek Batzar Orokorretan azaldu moduan, Realaren oinarritzako futbolaren hitzarmena bertan behera geratu da

X.U. &gt; BERGARA

Iñaki Galdos diputatuak Realak klubei zor dien 820.000 euroen gaineko azalpen gehiago eman zituen atzo Batzar Orokorretan, eta alderdi politiko guztiek bat

egin zuten Galdosek hartuko dituen neurriekin. Batetik, diputatuak onartu zuen Realak diru kopuru hori taldeei eman ez dieenez, ofizialki eten egin dutela talde txuri-urdinarekin duten oina-

rizko futbolaren hitzarmena, eta horrekin batera, Realak diru hori itzul dezan tramite legalak hasi dituzte.

Alderdi politiko guztiek bat egin zuten neurri horiekin, eta alderdietako ordezkariak berba gogorak izan zituzten Realak egun dituen zuzendaritzako kideendako.

2009KO AURREKONTUETAN

Gipuzkoako gainontzeko klubek dituzten beharrei begira, Galdosek adierazi zuen Realak 820.000 euroak itzultzen ez baditu diputazioak 2009ko aurrekontuetan diru kopuru bat gordeko duela talde horiek babes gabe gera ez daitezten. Hor, alderdi politikoek zalantzak agertu zituzten, esanez, ea diputazioari dagokion Realak ordaintzen ez dituenak ordaintzea. Eta konponbide moduan

honako proposamena egin zuten: Realak elite mailako kirolagatik jasotzen dituen 1,5 milio euroetatik 820.000 euroak kentzea. Baina, Galdosek ez zuen hori begi onez ikusi, zera argudiatuz: "Gure asmoa da diru kopuru hori legalki Realak jasotzea, besteak beste, klubak aurrera egin dezan beharrezkoa delako". Hala, Badiolak banatu egin zituen Realak entitate moduan jaso beharreko diru-laguntzak, eta egun Realeko zuzendaritzan daudenekin dituzten arazoak.

Galdosek atzo, eguena, edo gaur, egubakoitza, sinatu behar zuen oinarritzako futbolaren hitzarmena bertan behera uzteko agindu forala, eta horrek esan gura du talde txuri-urdinak datozen bi denboralditarako galdu egingo duela hitzarmen horregatik jasotzen duen diru kopurua.





GOIENKARIA



Alejandro Franco da faborittoa. J.A.

na izan zen. Eta, Aretxabaletako Miguelek ere behin baino gehiagotan hartu du esku Arrasateko torneoan -2006an egin zuen lan aipagarriena, bigarren sailkatuz-. Eta, Arrasateko klubeko xakelarien artean Josu Tornay da ondoen sailkatuta dagoena.

Hala, dauden jokalariai ikusita posible da, lehenengoz, xakelari horietako batek txapelketa bigarren poltsikoratzea.

#### LEHENENGO SAIOA

Txapelketan esku hartuko duten 27 xakelariak -Javier Axpek atsendena izango du lehenengo saioan- gaur jokatu dute lehenengo erronda (19:00etan Altamirako egoitzan), eta jokalariai helburu garbiarekin kokatu dituzte taula gainean pieza guztiak: txapeldunak jasoko dituen 1.000 euroak irabaztea, alegia.

Bigarren sailkatua ez da esku hutsik joango etxera, garaikurra-ekin batera 700 euro irabaziko dituelako, eta hirugarren sailkatuak ere garaikurra eta 500 euro irabaziko ditu. Hori horrela, San Andres Xake Taldeak 2.300 euro banatuko ditu saritan; inguruan ez dago horrelakorik.

Azaroaren 28ra arte egubakoitzero jokatu dituzte partidak. Suitzar sistema erabilia, jokalariai sei txanda jokatu dituzte.

#### IKUSLEENDAKO GONBITEA

Gaur hasiko den txapelketara begira, San Andres Xake Taldeko lagunak ibarreko xakelariak animatu gura dituzte geroago eta izen handiagoa duen torneo hori bertatik bertara jarraitzeko. Jose Luis Iñarra kalean (32 zenbakia) duten egoitzan jokatu dute txapelketa.

## MENDIKO DUATLOIA > EUROPAKO GREEN CUP TXAPELKETA

# Antxintxikako sei lagun Euskadiko ordezkari lanetan

Domekan egingo dute Calatayud-en Europako mendiko duatloi Txapelketa, eta Antxintxikak ordezkatu du Euskadi

Europako Txapelketan lehiatzen. Arrasateko Juan Sanchez, Miguel Vazquez eta Roberto Vazquez, Soralueko Patxi Torres, Errentariako Xabi Ugarte eta Bergarako Aitor Rementeria izango dira Antxintxika ordezkatzeko. Horrekin batera, taldeka eurek izango dute Euskadi ordezkatzeko ardura: "Ez dakit hemendik zenbat talde joango diren, baina partaideen arabera erabakitzen dute ze taldek egingo duen ordezkari lana", azaldu du Rementeriak

#### OINEZ ETA BIZIKLETAN

Calatayudeko proba mendian egingo dute, Armantesko mendizerran. Hala, kirolariak 10 kilometro egingo dituzte mendian korrika, eta ondoren mendiko bizikletak hartuko dituzte.

Hain zuzen ere, astelehenean bertan izango dira Patxi Torres eta Aitor Rementeria GOITBko *Harmailatik* saioan. Domekako probaren nondik norakoak azaltzearekin batera, aurtengo Soralue-Bergara kroa ere aurkeztuko dute.

#### XABIER URTZELAI > BERGARA

Domekan Antxintxika Triatloi Taldeko sei lagun Calatayuden (Aragoi) izango dira, Green Cup

#### > ESKUBALOIA

### Veiss Comunicacion El Pilar taldearen kontra jokatu du Ford Mugarri Arrasatek bihar

Liga hasiera gogorra izan du Ford Mugarri Arrasatek, talde gogorak izan dituzte aurrean lehenengo jardunaldietan. Hemendik aurrera etorriko diren taldeak ez dira makalak izango, baina Edu Orgazen mutilek poliki-poliki gora egin beharko lukete sailkapenean.

Bihar (17:00), sailkapenaren erdian dagoen Veiss Comunicacion El Pilar taldea izango da Iturripen bisitari, jokatu dute lau partiduetatik erdiak irabazi dituen kontrarioa. Arrasatek, berriz, etxean oraindik ez du norgehiagokarik irabazi, eta kategoria horretan egin beharreko lehenengo lana etxean indartsu bilakatzea da. Badago horretarako tartea.

#### > ZIKLOTURISMOA

### Dorletako Ama koroatu zutela 50 urte igaro dira, eta zikloturista mordo batuko dira hori ospatzeko

Txirrindularien zaindariak 50 urte beteko ditu, eta domekan ekitaldi berezia antolatu dute hori ospatzeko. Gatzagako Txirrindulari Batzordeak eta Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko ziklismo federazioei eta klub mordoari gonbidapenak bidali dizkiete, domekan egingo duten elkarretaratzean esku hartzeko.

Hala, ahal dutenek bizikletarekin joateko gonbitea egin dute, eta antolatzaileek ziklista mordo batuko dela aurreikusten dute. 11:00etan egin dute hitzordua, santutegiaren aurrean. Ekitaldian bertsolariak, Eskoriatzako txistulariak eta Aretxabaletako dantzariak hartuko dute esku, eta meza entzun ondoren salda eta mokadutxo eskainiko dute.

#### > FUTBOLA

### Aretxabaletak azken postuan dagoen Amaiak Bat taldearen kontra jokatu du bihar Deban

Debako taldeak ez du denboraldia batere ondo hasi, orain arte jokatu dute sei jardunaldietan partidua bakar irabazi dutelako. Bihar, gainera, etxean baino etxetik kanpora hobeto dabilen Aretxabaletaren bisita izango dute (16:30).

Mondrari dagokionez, Arrasatekoek EHU Vaskoniaren zelaira egingo dute bidaia bihar. Norghegiagoka Donostian jokatu dute, 15:30ean. Talde unibertsitarioa ez dabil bikain, ezta Mondra ere. Aloña Mendiri dagokionez, bosgarren postuan daude oñatiarrak, eta bihar Pasaiaen kontra jokatu dute (17:00). Talde horrek min egin zuen joan den astean Mojategin, eta dagoeneko 12 puntu batu dituzte.

#### > ATLETISMOA

### Lore Mar zilarrezko dominarekin etorri da Espainiako Txapelketatik; laugarren izan da Axpe

Joan den asteburuan egin zuten Lugon kadete mailako Espainiako Atletismo Txapelketa, eta bertan izan ziren lehiatzaile Arrasate-Kanpanzar taldeko Maialen Axpe (Arrasate) eta Lore Mar (Aretxabaleta). Guztira 663 atleta izan ziren txapelketan esku hartzen eta marka pertsonalak onutzen, eta horien guztien artean ibarreko neskek nabarmendu egin ziren.

Lore Mar bigarren sailkatu zen, pertikarekin 3.20 metroko salto egin eta gero, eta hirugarren eta laugarren sailkatu ziren Clara Amat kataluniarra eta Maialen Axpe, Lore Marren marka bera eginda. Horrelakoetan, baina, baliogabeko jauzi gutxien egindakoa nagusitzen da. Julia Lopatkina errusiarra izan zen onena (3.41).



PODIUMEAN Lore Mar, Julia Lopatkina eta Clara Amat.

ARRASATE ATLETIKO



ZIKLOKROSA &gt; SORALUZE E.KOOP SARI NAGUSIA

# Espainiako Koparako puntuagarri izango da

Osintxun egin beharreko ziklokroseko Soraluze E.KOOP Saria azaroaren 9tik urtarrilaren 10era atzeratu dute. Orain, Espainiako Koparako puntuagarria izango da

X.U. &gt; BERGARA

Azaroaren 9an ziklokros lasterketa antolatzeke izan behar zituzten arazoak tarteko, Lokatzakoek proba urtarrilaren 10era atzeratzea erabaki dute: "Lasterketa azaroaren 9an egitea zen asmoa, baina Behobia-Donostia lasterketa ere egun berean denez eta laguntzaile izango diren pertsona asko Donostian egongo direnez, data aldatzea erabaki dugu. Euskal Herrian ziklokroseko egutegia nahiko beteta dago, eta ikusi den aukerarik egokiena urtarrilaren 10ean Espainiako Koparako puntuagarri izango den proba bat antolatzea izan da", adierazi dute Lokatzakoek.

ALDAKETAK IZANGO DIRA

Espainiako Koparako baliagarria izango denez, antolatzaileek hasiera batean zituzten asmoak aldatu egin behar izan dituzte:



Jones Muxika elgetarra iazko Osintxuko edizioan.

GOIENKARIA

"Esklusiboki emakumeendako egitea nahi zen lasterketa ezin da burutu. Hala ere, emakumezkoek gizonen jasoko duten sari berberak jasoko dituzte, baina beteranoeekin batera korrituko dute, lehen lasterketan.

Lasterketa egunari dagokionez, antolatzaileek ondo pentsatu dute noiz egin: "Aukeratuta eguna ez da beste barik era-

baki. Batetik, hurrengo egunean Itsasondon ere maila berdineko beste lasterketa bat egingo dutelako, eta bestetik, astebete geroago Valladoliden izango delako Espainiako Txapelketa. Hori dela-eta, Osintxuko lasterketan partaidetza handia espero dugu, asteburu berean maila handiko bi proba gertu izateak txirritulak asko animatuko ditu-eta".

SASKIBALOA &gt; LEHEN NAZIONAL MAILA

## Hiru partidu jarraian galdu eta gero Urdanetaren kantxara egingo du MUK bidia



Gorka Kintana Tabirakoren kontrako artxibo irudian.

GOIENKARIA

X.U. &gt; ARRASATE

MUK bosgarren lekuan dagoen Urdanetaren kontra jokatu du zapatu arratsaldean (18:00) Loiu. Zurbanoren mutilek denboraldiko lehenengo puntuak batzea dute buruan, nahiz eta orangoan etxetik kanpo jokatu.

Hala, joan den asteko porrotak baieztatu zuen aurten zuzendaritzaren aurreikuspenak bete eta denboraldi gogorra daukarela aurrean.

GIPUZKOAKO SENIOR MAILA

Senior mailan, berriz, Aloñako lehen taldeak Teklan Laser taldearen bisita izango dute domekan Zubikoan (17:45), eta bigarren taldeak zapatuan jokatu du (16:00) Don Jabugoren kontra.

MUKo bigarren taldea Kostkasen kontra lehiatuko da domekan Donostian (12:00), eta Soraluze Bergarak Novamark hartuko du bihar 16.00etan.

## asteburuko hitzorduak

## FUTBOLA

## Bigarren maila

Rayo Vallecano-Eibar  
Zapatua. 18:30. Teresa River.  
Real-CD Castellon  
Domeka. 17:00. Anoeta.

## Kadeteen euskal liga

Bergara-Antiguoko  
Zapatua. 16:45. Bergara.  
Aretxabaleta-Aurrera Vit.  
Domeka. 16:30. Ibarra.

## Preferente maila

Pasaia-Aloña Mendi  
Zapatua. 17:00. Don Bosco.  
EHU Vasconia-Mondra  
Zapatua. 15:30. Martutene.  
Amaikak Bat-Aretxabaleta  
Zapatua. 16:30. Errotazar.

## Lehen erregionala

Orioko-Antzuola  
Zapatua. 16:30. Mendibelz.  
BTL5-Lagun Onak  
Domeka. 17:00. Ipintza.  
Aretxabaleta-Urola  
Zapatua. 16:30. Ibarra  
Mondra-Zestoa  
Zapatua. 16:00. Mojategi.

## Bigarren erregionala

Bergara-Soraluze  
Zapatua. 15:30. Ipintza.

## Ohorezko mailako gazteak

Aloña Mendi-Orioko  
Domeka. 17:15. Azkoagain.

## Lehen mailako gazteak

Soraluze-Bergara  
Zapatua. 11:30. Ezozia.  
Eibartarrak-Aretxab. B Ariz.  
Zapatua. 15:30. Unbe.  
Mondra-Eibartarrak  
Zapatua. 18:00. Mojategi

## Ohorezko mailako kadeteak

Arrasate-Aloña Mendi  
Domeka. 18:00. Mojategi.  
Eibar B-Aretxabaleta Arizm.  
Zapatua. 15:30. Unbe.  
Ordizia-Bergara  
Zapatua. 11:00. Altamira.

## Lehen mailako kadeteak

Arizmendi-Soraluze  
Zapatua. 10:00. Almen.  
Aloña Mendi-Urki  
Domeka. 11:30. Azkoagain.  
Eibartarrak-Bergara B  
Domeka. 15:30. Unbe.

## Kadete txiki

STO Tomas Lizoea-Arrasate  
Zapatua. 13:30. Berio.

## Ohorezko mailako infantilak

Aretxabaleta-Tolosa  
Zapatua. 11:30. Ibarra.  
Bergara-Eibar  
Domeka. 11:30. Ipintza.

## Infantil maila

Arrasate-Eibartarrak  
Domeka. 16:00. Mojategi.

Aloña Mendi-Elgoibar  
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

## Infantil txikiak

Arrasate-Ordizia  
Domeka. 12:00. Mojategi.

Tolosa-Bergara  
Zapatua. 11:00. Usabal.

Eibar-Aretxabaleta B  
Domeka. 10:30. Unbe.

## Emakumezkoen liga

Arizmendi-Mondra  
Zapatua. 15:30. Almen.

Eibartarrak-Arizmendi  
Domeka. 15:00. Unbe.

Aloña Mendi-Soraluze  
Domeka. 15:30. Azkoagain.

## Emakumezkoen F8

Kadeteak  
Aloña Mendi-Euskalduna  
Zapatua. 16:00. Azkoagain.

## Emakumezkoen F11

Kadeteak  
Bergara-Arizmendi  
Zapatua. 11:30. Ipintza.  
Mondra-Lagun Onak  
Domeka. 10:00. Mojategi.

## Alebinak

Lagun Onak-Aloña Mendi  
Domeka. 11:15. Ibarra.

Aretxabaleta-Eibar  
Domeka. 11:15. Ibarra.

Arrasate-Amaikak Bat  
Domeka. 10:00. Ibarra.

Bergara-Elgoibar  
Domeka. 10:00. Ibarra.

## ARETO FUTBOLA

## Bigarren maila

Aloña Mendi-Euomar Caf.  
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

## Hirugarren maila

UDA Orly-Zarautz  
Domeka. 12:00. Zubikoa.

## Gazteak

Eskoriatza-Asador Azitain  
Domeka. 11:00. Eskoriatza.

## SASKIBALOA

## ACB

Bruesa GBC-Tau Ceramica  
Domeka. 12:30. Ilunbe.

## Lehen nazional maila

Urdaneta-MU  
Zapatua. 18:00. Loiu.

## Gipuzkoako seniorrak

Kostkas-MU  
Domeka. 12:00. Donostia.  
Aloña Mendi-Teklan Laser  
Zapatua. 17:45. Oñati.

Soraluze BKE-Novamark.  
Zapatua. 16:00. Labegariaiet.

Aloña Mendi-B-Don Jabugo  
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

## Gipuzkoako ligako senior

maila, emakumezkoak  
Oiarso-Eskoriatza  
Domeka. 11:45. Errenteria.

## Gazte maila, gizonzkoak

MU-Urola  
Zapatua. 12:00. Musakola.  
Aloña Mendi-Hernani  
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

## Gazte maila, emakumezkoak

Carnicas San M.-Eskoriatza  
Zapatua. 16:00. Hondarribia.  
Bera Bera- Soraluze BKE  
Zapatua. 16:00. Donostia.

## Kadete maila, gizonzkoak

MU Besaide-Easo Basoa  
Domeka. 09:45. Musakola.  
MU Udaltx-Ayma Goierri  
Domeka. 11:45. Musakola.

## Kadete maila, emakumezkoak

Añorga-Eskoriatza  
Zapatua. 16:00. Benta Berri.

## ESKUBALOA

## Euskadiko Txapelketa

Ford Mugarrí-Weiss Comunic.  
Zapatua. 17:00. Iturripe.

## Lehen territorial maila

Eibarko Harit.-Soraluze BKE  
Zapatua. 17:00. Eibar.

## Bigarren territoriala

Urola-Aloña Mendi  
Gaur. 19:00. Zumarraga.  
Tolosa-Arrasate Eskubaloi  
Domeka. 12:00. Tolosa.  
Donibane-Aloña Mendi  
Zapatua. 18:00. Errenteria.

## Gipuzkoako gazte maila, gizonzkoak

Aloña Mendi-Leizaran  
Zapatua. 17:45. Zubikoa.  
Amenabar-Arrasate Chapim.  
Domeka. 12:30. Zarauzko.

## Gipuzkoako gazte maila, emakumezkoak.

Leizaran-Citroen Chap. Arr.  
Zapatua. 17:30. Andoain.

## Kadete maila, gizonzkoak

Bergara-Elgoibar  
Zapatua. 12:30. Labegariaiet.  
Bergara Txiki-Berezo Aloña  
Zapatua. 18:00. Labegariaiet.

## ERRUGBIA

## Senior maila, gizonzkoak

ARS Santander-Arrasate  
Zapatua. 16:30. Santander.

## Senior maila, neskek

Arrasate-La Unica  
Zapatua. 17:00. Mojategi.

## KIROL EGUNA

## Musakolako kiroldegian

AUKEAK antolatuta Kirol Eguna egingo dute bihar. 10:00etan hasita Arrasateko hainbat kirol taldek kirol jarduerak eta ikuskizunak antolatuko dituzte.



Arrasateko neskek La Unica taldea hartuko dute bihar

Senior mailako emakumezkoek La Unica taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak bihar arratsaldean (17:00).





> **TXARO GALLEGO**  
'Zapatos' lana antzeztuko du bihar. Elkarrizketa egin diogu > 44



> **NEW YORK-EKO AHOTSAK**  
Antioch taldea Arrasaten domekan > 45

> **AINHOA JUDEZ**  
Garaia Ikerkuntza Guneko zuzendariaren idazkaria da 30 urteko oñatiar hau. Bere burua neska arrunt moduan definitu du > 50



Nerea Ruiz de Azua eta Naroa Zalakain, Indiako Shinee Ahuja aktore famatuarekin.



Bollywood-en aktoreek ez dituzte Hollywood-ekoek dituzten aldagelak.

N.R.

ZINEMA > HUHEZIKO IKASLE BI BOLLYWOOD-EN IZAN DIRA

## "Kaosa eta erokeria dira nagusi Bollywood-en"

### HILABETE INDIAN

Huheziko ikasle Nerea Ruiz de Azua eta Naroa Zalakain Bollywood-en izan ziren uztailean

### BOLLYWOOD

Munduko zinema ekoizle handiena da

### PROIEKTUA

Karrera amaierako proiektua egingo dute han jasotakoarekin

JOKIN BEREZIARTUA > ESKORIATZA

Nerea Ruiz de Azua eta Naroa Zalakain Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikasleak Bollywood-en (India) izan ziren joan zen uztailean. Karrera amaierako proiektua egitera joan ziren, interesgarria iruditu zitzaizkien txoko urrun hartara, zinemak berebiziko garrantzia duen Mumbai hiriko Bollywood-era.

EUSKAL HERRIAN EZAGUTU...

2004 inguruan Indiako zine ekoizle bat Bollywood-etik Euskal Herrira etorri zen film bat egitera. Orduan izan zuten Ruiz de Azua eta Zalakainek Indiako zinemaren berri, Donostiako Kursalean sekuentzia batzuk grabatzen ikusi zituztenean. Une hartan jakin zuten Bollywood-en Hollywood-en baino pelikula gehiago egiten direla -urtean 1.000 baino gehiago-. Eta orduan piztu zitzaizkien Bollywood ezagutzeko jakin-mina.

Jakin-mina 2004an piztu zitzaizkien ere, Bollywood-era joate-

ko ideia ez zen azken unera arte gorpuztu. Apirilean, Huheziren eskaintzen artean bat bera ere gustuko ez zutela ikusita, Bollywood-en oinarritutako lana egitea proposatu zieten irakasleei. Hauek onartu egin zuten, baldintza batekin: biek sinatutako dokumentalari bakoitzak lan teoriko bat gehitu behar dio.

...ETA INDIARAKO BIDEA HARTU

Irakasleen onarpena, baina, ez zen nahikoa horrelako bidaia bat antolatzeko. Indiako norbaitekin harremanetan jartzea ezinbestekoa zen, eta Zima zinema eskola izan zen bidalitako hamaika posta elektronikoei erantzun zien bakarra. Ruiz de Azuak dioenez, "Zima zinema eskolaren erantzunak ate asko ireki zizkigun".

ESTRA ETA KAZETARI LANETAN

Heldu eta hiru egunetara film batean aktore estra moduan hartu zituzten, diskoteka antzeko baten grabatu behar ziren sekuentzia batzuetarako. Grabazio saio

horretan, Indiako Shinee Ahuja aktore famatuarekin egoteko aukera izan zuten.

Eta hori ez da dena. Zima eskolari esker pelikula baten estreinaldian ere izan ziren, kazetariak bailiran. Pelikularen estreinaldian "kaosa eta eromena" gogoratzen ditu Ruiz de Azuak: "Premierean [estreinaldian] ikusi genuen Bollywood erokeria dela. Kazetarien artean sekulako istiluak izan ziren aktore bati argazkiak ateratzeko orduan; azkenean, aktore handik eraman zuten".

ESANAK

**"Denbora gehiago daukagunean bueltatzea espero dugu, dokumentalaren bigarren zatia egitera"**

Nerea Ruiz de Azua > Huheziko Ikus-entzunezko Komunikazioko ikaslea

EZIN BARRUAN GRABATU

Bestalde, Ruiz de Azuak penaz gogoratzen du Bollywood barruan grabatzea debekatu izana. Hor-taz, ezin izan dute Bollywood nahi bezala ezagutu. Hala ere, otsailean izango dute zer kontaktu. Besteak beste: Zima zinema eskolako zuzendariari elkarrizketa bat, Shinee Ahuja aktore famatuaren azken filmaren estreinaldiko irudiak eta Bollywood-eko zine industriaren gaineko lan teorikoa.

Proiektua bitan banatu dute. Praktikoak, batetik, Indian grabatutako irudiez osatua dagoena; eta teorikoa, bestetik, Indiako zinema industriaren gaineko teorizazioa. Ruiz de Azua dokumentalaren prozesua ari da lantzen eta Zalakainek Bollywood-en egiten den zinema du aztergai.

Lana "Bollywood-en inguruan ezer ez dakienari zuzendua dago", dio Ruiz de Azuak. Bestalde, bueltatzeko asmoz daudela gaineratu du: "Denbora gehiago dugunean, espero dugu bueltatzea, dokumentalaren bigarren zatia egitera".



Txaro Gallego &gt; Zzapatos antzerki taldeko kidea

# "Oso ezberdina da zuzendari batendako lan egitea edo zu zeu izatea zuzendaria"

**JOKIN BEREZIARTUA > ARETXABALETAKO**  
Txaro Gallegoren (Donostia, 1976) bizitza interpretazioari lotuta dago, hertsiki. Donostian jaio bazen ere, Aretxabaletan bizi izan zen interpretazioaren munduak Madrilerera eroan zuen arte. Aurten sortu du Zzapatos antzerki taldea, Imanol Espinazo bere bidaia lagunarekin batera. Gallegok eta Espinazok *Zapatos* lana gaur eta bihar interpretatuko dute Aretxabaletako Kultur Etxean, 22:30etik aurrera.

**Noiz piztu zen Txaro Gallegoren interpretazio munduarekiko jakin-mina?**

Txikitatik antzezlaria izan naiz, eta musika talde ezberdinetan abestu izan dut. Bestalde, Karra Elejalderen ikuskizun bat ikusi nuen, orduan Aretxabaletan oso arraroa zen eskaintza. Elejalderen *show* hark jakinmina piztu zidan, eta lizentziaturaren artean gehien gustatzen zitzaidana aukeratu nuen: antzerkigintza.

Hortaz, antzerkigintza non ikasi aztertzen hasi nintzen eta orduan ikasketak etxetik gertu egitea nahi nituenez, Nafarroako Antzerki Eskolara joatea erabaki nuen, probatzera.

**Zein oroitzapen gordetzen dituzu Iruñeko Nafarroako Antzerki Eskolan pasatako urteez?**

Oso onak, oso positiboak izan ziren niretzat. Nafarroako Antzerki Eskolan oso lan ona egiten ari dira. Nola gogoratzen ditudan urte haiek? Agian nire bizitzako onenak izan dira!

**2000. urtean Iruñetik Madrilerara joan zinen. Zer galdu zitzaizun han?**

Madrilen ia urte bi ibili nintzen lan ezberdinak egiten, bizitza aurrera ateraten. Denbora tarte horretan, clown ikastaroak egin nituen; oso gustura ibili nin-



Txaro Gallego Aretxabaletara bueltatuko da, kultur etxeko taula gainera. Irudian, *Zapatos* interpretatzen.

ZZAPATOS

**"Nafarroako Antzerki Eskolan pasatako urteak nire bizitzako onenak izan dira, agian"**

tzen ikastaro horietan Eric de Bont-ekin batera. Gerora, lagun batzuen bitartez Maria del Mar Navarro y Andres Hernandez eskolaren berri izan nuen eta bertan sartu nintzen. Orain eskola horretan sartzea bizitzan gertatu zaidan onena izan dela esan dezaket. Izugarria da eskola honetan egiten den lana.

**"Lecoq metodoak sormena garatzen irakasten du; antzerkian oso garrantzitsua da"**

Lecoq metodoa ezagutu zenuen Maria del Mar Navarro y Andres Hernandez eskolan. Kontaiguzu zertan datzan metodo honek.

Lan fisikoa da gehienbat. Mugimendutik antzerkia era natural eta gertukoan sortzen da. Azken finean, sortzaile izaten laguntzen dizu, antzezlan bat

**"Urtebeteko ikerketa lanetan ibili gara 'Zapatos' antzezlenerako"**

prestatzerako orduan lan osoa zuk zeuk gauzatzeko baliabideak irakasten dizkizu.

Horrek antzezlan edo beste edozein proiektu aurrera eramaterako orduan zuzendari edo gidari baten beharrik ez izatea ahalbidetzen du. Hau da, sormena garatzen irakasten du Lecoq metodoak. Eskola honek duen

alde interesgarriena da, sortzaile txikiak sortzen dituela, alegia. Eta hori, nire ustez, oso garrantzitsua da antzerkigintzan.

**Nola sortu zitzaizuen Zzapatos antzerki taldea sortzeko ideia?**

Lecoq metodoak zerikusia izan du horretan, ez bairik gabe. Espinazo eta biok kode bera erabiltzen dugu eta oso ondo ulertzen dugu elkar. Gure gauzak, munduan gertatzen direnak, egunerokotasunean axola zaizkigun gaiak... kontatzeko beharra genuen, dena gure ikuspuntutik begiraturaz. Gure ideiak kontatzeko armak ikasi ditugunez, jautzia ematea erabaki genuen, orain urtebete eskas. Hori bai, ideia horiei guztiei forma emateko laguntza behar izan dugu.

Madrilgo eskolatik ezagutzen nuen Irma Correa antzerkigileari genituen ideiak azaldu eta ideioi forma emateko proposatu genion. Correa oso ona da lan honetan eta onartu egin zuen. Gure ideiak egokitu ditu.

**Nola egin duzue *Zapatos*?**

Obra ezberdinetan lan egin badugu ere, gure kabuz antzezlan bat sortzeko erronka hartu genuen. Lan zaila da oso: ezberdina da zuzendari batentzat lan egitea edo zuk zeuk zuzendari lanak hartzea. *Zapatos* obrarako, adibidez, urtebeteko dokumentazio eta ikerketa lanetan ibili gara, mahaiko lanean. Emaitzaz gustura gaude, ea zuek gustuko duzuen!

## Erabiltzen ditugun oinetakoek gutaz asko esaten dutela frogatuko du *Zapatos* obrak

Txaro Gallego eta Imanol Espinazo izan dira Zzapatos antzerki taldea sortu zutenak. Gerora, Irma Correa lagun eta antzerkigilea batu zen proiektura, *Zapatos* izeneko obra dela medio. Correak Gallego eta Espinazoren ideiei forma eman die, eta jendeak ulertzeko modura egokitu.

*Zapatos*-en ideia H.G. Welles-en *La Guerra de los mundos* nobelaren egilea- idazki "labur bezain esanguratsu" batetik dator. Bost esaldiotan, Welles-ek Londresko tailer xume bateko sotoan dagoen leihatilatik langile batek ikusten dituen oinetakoei bizitza ematen die. Oinetakoon jabeen bizitza ezberdinak imajinatzen hasten da. Eta Gallegok eta Espinazok ere oinetakoei bizitza ematen diote *Zapatos*-en. Lehen ideia fikziotik atera bada ere, errealitatek atera dituzte pertsonaiak -Dora eta Nikolas. Bi argazki zehatzetatik datoz: batean Irakeko gerran hildakoen oinetakoak garbitzen darabilen gazte bat agertzen da, eta bestean, Nikaraguako zabortege bat, jendea zabor artean zerbait probetxuzkoa atera guran.

"Hiri bat, eta milioika oinetako. Eta ikusten dugun oinetako bakoitzak bizitza bat kontatzen digu; ez dago zertan pertsoneri aurpegia begiratu behar zein eratako bizitza daramaten jakiteko", diote.



Obren irudi bat, hamaika oinetako hegan egiten dabiltzala.

ZZAPATOS



> ARRASATE  
**Sexmetraia  
lehiaketako sari  
banaketa gaur**

Arrasateko Udaleko Sexologia zerbitzuak antolatzen duen nazioarteko film laburren Sexmetraia lehiaketako sari banaketa ekitaldia izango da gaur, egubakoitza, Kulturaten, 19:00etan.

Aurten ospatutako bigarren ekitaldian 37 lan jaso dituzte eta *¡Nena!* eta *Biontzat* izenburuko lanak saritu ditu epaimahaiak. 1.500 euro eta 600 euro jasoko dituzte sari-tuek. Sexmugi atalean, berriz, ez dute saririk emango aurten. Saritutako lanez gain, *Heterosexuales y casados*; *Hiriak, kronikak, ibai bazterrak*; *El mueble de las fotos*; *La espinita*; eta *Arrotza* laburmetraiak ikusteko aukera izango da gaur Kulturaten.

> TELEBISTA  
**'Brinkola' telesaila  
zuzenduko du Asier  
Altuna 'Kixi'-k**

Datorren urtearen hasieran Euskal Telebistak *Brinkola* umorezko telesaila estreinatuko du. Telmo Esnal zarautarra eta Asier Altuna *Kixi* izango dira telesaileko zuzendariak. Ez da bien arteko lehenbiziko lana. Izan ere, *Txotx* eta *40 ezetz* laburmetraiak edo *Aupa Etxebeste!* filma elkarrekin egin zuten. *Aupa Etxebeste!* euskaraz filmatutako lanarekin Publikoaren Saria irabazi zuten Donostiako Zinemaldian, orain dela hiru urte.

*Brinkola* telesaileko aktore protagonista Anjel Alkain (*Wazemank*) ezaguna izango da eta Mikel Laskurain aktore bergararrak ere parte hartuko du. "Pertsonaia oso xelebreak" egongo direla aurreratu dute arduradunek.



Argazkian, The Antioch Chamber Ensemble abesbatzako kideak. Joshua Copeland da taldeko zuzendaria.

GOIENKARIA

MUSIKA > DOMEKAN ARRASATEKO PARROKIAN

# The Antioch Chamber Ensemble abesbatza domekan Arrasaten

Tolosako nazioarteko abesbatzen lehiaketan lehiatu aurretik, Arrasateko parrokan emanaldia egingo dute estatubatuarrek

EDU MENDIBIL > ARRASATE  
Goikobalu abesbatzak eta Arrasateko Udalak antolatuta, New Yorkeko The Antioch Chamber Ensemble abesbatzak emanaldia egingo du domekan, urriaren 26an, Arrasateko Parrokian, 20:00etan.

Joshua Copeland da taldeko zuzendaria eta 12 lagunek, sei emakumek eta sei gizonok osa-

tzen dute abesbatza. Kritikaren arabera, "abesbatza klasiko batek nola abestu behar duen jakiteko adibide perfektua da Antioch Chamber".

Taldearen errepertorio zaballean, lan sakratuak eta profanoak tartekatzen dituzte, William Byrden *Lau ahotsetarako meza*, Brahmsen *Liebeslieder Waltzes* ospetsuak edo Frank Martinen *Bi*

*abesbatzatarako Meza* besteak beste. 2001ean Wall Streeteko Trinity Churchen eginiko debutaz geroztik, bere emanaldi garrantzitsuenak Carnegie Hall ospetsuan edo Charlestoneko jaialdian egin dituzte. Era berean, musika hezkuntzarako ekintzen barruan, artista gazteendako *master-class*-ak zuzentzen ditu Antioch abesbatzak Nernardsvillen, New Jerseyko Bernards High School Madrigal Ensemble delakoan hain zuzen.

**ARRASATETIK TOLOSARA**  
Estatubatuarrek Tolosako nazioarteko abesbatzen lehiaketan hartuko dute parte hurrengo astean, urriaren 31n. Besteak beste, *Reges Tharsis* (Sheppard), *Os Justi* (Bruckner), *Regina Caeli* (Howells), *Fyer, Fyer!* (Morley) edo *Dance clarion air* (Tippet) izenburuko lanak ekarriko dituzte.



## Liburutegiaren Eguna ospatzeko ekitaldiak bailara osoan

Gaur ospatzen den Liburutegien Egunaren harira antolatutako ekitaldien barruan, *Irakurpuntu* tailerra egingo dute gaur Bergarako Udal Liburutegian, 17:00etatik 19:30era. 6-10 urte bitarteko haurrei zuzendutako tailerra da; Oñatiko Udal Liburutegian goizero egin dituzte astean zehar tailerrak neska-mutikoekin haur liburutegia ezagutzera emateko, Lur Korta ipuin kontalariaren laguntzaz; Aretxabaletan eta beste hainbat tokitan integrazioaren gaineko gidak banatu dituzte egunotan.

ARTXIBOA



# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Astigarraga.** Bizitzera sartzeko moduan dago eta oso argitsu da. Leihoak berriak dauzka. 3 gela, sukaldia, egongela, komuna eta bainugela. Igogailua. 2 balkoi eta 6 m<sup>2</sup> ko trasteroa. 647 83 80 03 (Ainara).

## BERGARA

**Basalgo auzoan baserria salgai lursailarekin.**

610 73 65 40

**Belautza.** Etxe ia berria material nobleekin egina. Baserri itxurakoa. Hiru logela, sukaldia, egongela handia tximiniarekin, estudio handia, garajea, txokoa autoa sartzeko eta terrena inguruan. Leku lasaia eta egutera dagoena.

**Bergara.** 75 metro koadroko etxebizitza salgai. Bigarren solairua. Hiru logela, trasteleku eta arropak eskegitzeko. Terraza eta barbakoa. Aire girotua. Bi aparkaleku. Eguzkitsua eta leku lasaia. Berritua eta egoera onean. 198.000 euro. 943 76 07 50

**Bilbo.** Alde zaharreko metrotik 7 minutura, ingurune lasaia. Guztiz berritatu. Bizitzera sartzeko modukoa. 74 m<sup>2</sup>. 4 logela, berogailu indibiduala (gasa), igogailua, trasteleku eta garaje plaza 1 (alokairuan). 944 15 67 49.

**Elgeta.** Duplexa salgai. Hiru logela eta bi bainugela. Modernoa eta eroso. Beheko sua. Guztiz jantzia. 210.000 euro. 685 75 18 91

**Elgoibar.** Etxea salgai mutrikuko samikolla pasealekuan. Oso bista ederrak, 2 logela, egongela, sukaldia eta komu-

na. Dena kanpoalderatz ematen du, ganbara, gas ciudad eta altzariek saltzen da. 670 58 84 80.

**Elgoibar.** Etxea salgai San Ignazio 3an, 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Oso argitsu, balkoiduna, bista onak, ganbara, igogailua, gas naturala, altzariek, guztiz berritua. 690 78 66 18.

**Etxarri Aranatz.** Etxarriko zentroan etxebizitza salgai. Egonela, 3 logela, 2 komun, trasteleku eta garajea. Salneurria: etxebizitza eta garajea 156.000 euro (etxebizitza bakarrik: 150.000 euro) tel.: 609 71 60 23

**Ikaztegieta.** Etxebizitza salgai ikaztegieta. Herriaren erdigunean kokatua. Igogailu eta bi balkoi ederrek. Deitu iluntzetan 628 69 88 07 eta 666 61 57 66

**Markina-Xemein.** Atikoa salgai markina-xemein, okeerra kalean. 40 metro karrautakoa. Prezio negoziagarria. 676 02 34 37.

**Oñati.** 116 metro karratuko duplexa salgai erdigunean. Lau logela, sukaldia, bi komun eta egongela. Prezio adosteko. 635 71 41 39

**Oñati.** 79 metro koadroko etxebizitza salgai zubillaga auzoan. Hiru logela, sukaldia, egongela, komun bat eta trasteleku. Prezio adosteko. 635 71 41 39

**Ormaiztegui.** Ormaiztegin etxebizitza salgai. Herriaren erdigunean kokatua. Igogailua, 3 logela, sukaldia, 3 bainugela, ganbara eta balkoi ederrarekin. 630 45 66 62.

**Soraluze.** 85 metro koadroko etxebizitza salgai Rekalde kalean. 12 metro koadroko ganbararekin. 943 75 10 39 edo 943 78 21 52

**Urdiain.** Pisua salgai urdiainen. Interesatuek deitu 648 22 80 79 edo 659 89 59 08 zenbakira.

## 1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU  
102. EROSI  
103. ERRENTAN EMAN  
104. ERRENTAN HARTU  
105. ETXEAK OSATU  
106. BESTELAKOAK

## 2. GARAJEAK

201. SALDU  
202. EROSI  
203. ERRENTAN EMAN  
204. ERRENTAN HARTU  
205. BESTELAKOAK

## 3. LOKALAK

301. SALDU  
302. EROSI  
303. ERRENTAN EMAN  
304. ERRENTAN HARTU  
305. BESTELAKOAK

## 4. LANA

401. ESKAINTZAK  
402. ESKAERAK  
403. BESTELAKOAK

## 5. IRAKASKUNTZA

501. JASO  
502. EMAN  
503. BESTELAKOAK

## 6. MOTORRA

601. SALDU  
602. EROSI  
603. ALOKATU  
604. BESTELAKOAK

## 7. ANIMALIAK

701. SALDU  
702. EROSI  
703. EMAN  
704. BESTELAKOAK

## 8. DENETARIK

801. SALDU  
802. EROSI  
803. EMAN  
804. HARTU  
805. TRUKATU  
806. GALDI  
807. AURKITU  
808. BESTELAKOAK

## 9. HARREMANAK

901. AGURRAK  
902. HARREMANAK  
903. DEIAK  
904. BESTELAKOAK

## 10. RELAX

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarki bakarrik iragarriko ditugu.  
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

## 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

www.goiena.net-en

## PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:

- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.

Saskibaloia oso gustuko dut, estresa arintzen laguntzen dit. Urte askotan jokatu nuen eta orain ikustera joaten naiz: Aloiña Mendi, Tau eta noizean behin Bruesa. Bestalde, lagun arteko eta familia arteko jatorduak, egonaldiak eta paseoak ere oso gogoko ditut. Oñatin, gainera, paraje eder-rrak daude paseatzeko. Kirola ere egiten dut: korrika eta bizikletan ibiltzea dut gogoko. Musika lagun dudala joaten naiz. Lanean ere beti entzuten dut musika lasaia, erlaxatu egiten nau.

## Garaia Poloan berria da. Aurreantzean jarraitzeko asmorik?

Garaian oso gustura nago eta asko daukat ikasteko. Hortaz, erronkari eutsiko diot, erronka bakoitzetik zerbait ikasten delako. Egunen batean ikusiz gero hemen ikasteko gehiago ez dudala helduko diot beste zerbaiti. Baina uste dut hemen badudala nondik ikasi. Gustura nago laguntzen dudalako enpresa berriak hemen sartzeko eta kokatzeko eta horrek betetzen nau. Gainera, jende asko ezagutu dut Garaia-ko esker eta hori gogoko dut.



## berriak

&gt; 'DANBAKA'

**The 5 Twisters eta Ymotek kontzertuan, Goiena Telebistan**

Oraingo astean Mery May eta Damudot taldeen kontzertuak eskaini dituzten bezala, datorren astean The 5 Twisters eta Ymotek taldeen txanda da. Danbako musika lehiaketan eskaintako bi talde horien kontzertuak ikusteko aukera egongo da beraz, GOITBn datorren astean. The 5 Twisters taldea martitzenean ikusi ahalko duzue, 20:30ean eta Ymotek, berriz, eguenean, ordu berean.

&gt; 'BERBAIRE'

**Ibarreko politikariak etorriko dira datorren astean 'Berbaire'-ra**

Gaurkotasunaren erakusle den *Berbaire* mahainguru saioan, ibarreko politikariak ikusiko dituzte datorren eguenean. Hain zuzen ere, bestetan moduan, Goiena Telebistako platoan izango dira Lourdes Idoiaga, Manu Egaña, Juan Karlos Bengoa, Anjel Bergaretxe, eta Iñaxio Garro. Julien Iriondok zuzendutako saioan, ibarreko politika kontuak izango dituzte eztabaidagai.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Zartzuelarako sarrerak izango dituzte, zozketatzeko**

Izaskun Murgia elkarte lirikoko kideak buru-belarri dabilta *El Barberillo de Lavapies* Barbieriren zartzuela prestatzen eta dagoeneko iragarri diete irratikoei zortzi gonbidapen izango dituztela entzuleen artean zozketatzeko. Sarrerak salgai ipini bezain laster bideratuko dute zozketa irratikoei. Parte hartzeko, mezua bidali: [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com), [goiena.net](http://goiena.net) (irratiko bloga) edo 943 25 05.

&gt; ARRASATE IRRATIA

**Masajerako bonoak eta antzerkirako sarrerak**

Masaje, akupuntura edo antzerako saioa eskuratu edo probatu gura duenak aukera ezin hobe dauka Arrasate Irratian, astero Jose Luis Abuin masajistaren saio bat zozketatzeko dute-eta. Bestalde, asteburuari begira, *Karabas* izeneko haur antzerkia izango da Arrasaten eta horra joateko sarrerak ere zozkatuko dituzte irratian. Golden Apple Quartet eta Kanpingagas taldeek antzetzuko dute lan hori zapatuan, 18:00etan.

'ILUNPEAN' &gt; MARTITZENA, 21:45

# Txuma Murugarren izango da 'Ilunpean' saioko gonbidatua

Txuma Murugarrenek egingo du datorren astean, Goiena Telebistara bisita; 'Ilunpean' saiora.

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Abeslari eta gitarra jotzaile ezaguna da Txuma Murugarren Euskal Herrian. Sasoi Ilunak taldeko abeslari izateari utzi zion 2000. urtean eta ordutik dihardu bakarkako lanetan. Urte horretan bertan, Murugarrenek bere bakarkako lehen diskoa kaleratu zuen, *Nere leihoak* izenekoa, baina, hurrengo urtean kaleratu zuen *Hegazkinen arima* lanak eman zion irmotasuna bere ibilbideari; gitarra hots gehiagorekin etorri baitzen lana, eta publikoak heldutasuna ikusi zuen horretan. Azken diskoa, *Marjinalia*, 2007an kaleratu zuen.



TXUMA MURUGARREN Musikagilea izango da 'Ilunpean' saioan.

GOIENKARIA

'GOIENA MAGAZINEA' &gt; EGUNERO, 19:45

## 'Magazinean', ibarreko kontuak dira hizpide, astelehenetik egubakoitzera

GOIENKARIA &gt; ARRASATE

Dagoeneko izan duzue aukera, Goiena Telebistaren saio berria ikusteko. *Goiena Magazinea*, astelehenetik egubakoitzera eskaintzen dute 19:45etik aurrera, eta bertan gaurkotasuna da ardatza. Egunero, Larraitx Zebe-

riok egiten duen elkarrizketaz gain, badira bestelako tartek ere. Esaterako, astelehenetan, ibarreko elkarte bat ezagutzeko aukera duzue Txomin Madinaren eskutik. Martitzenetan, Arri txu Barrusoren ardura da osasunarekin lotutako gaiak mahai

gaineratzeko, eta eguaztenetan, lehen sektorea da hizpide, Miren Arregirekin.

Horretaz guztiaz gain, gure herrietako alkateekin ere egiten dituzte solasaldiak, eta hori da eguaztenetan; lan horretan, Eneko Azkarate arituko da, eta datorren astean, Agurne Barruso Bergarako alkatea izango da elkarrizketatua.

Bestetik, aipatzekoa da, eguaztenetan ere, zuzenean deitzen dutenen artean sariak banatzen dituela Goiena Telebistak. Horretarako, 943 25 05 03 telefonora deitu besterik ez duzue.

## telebegi

Gorka Etxabe > [getxabe@arteman.org](mailto:getxabe@arteman.org)

## Atsedendia

Askotan telebistaren aurrean jartzea izaten da ariketa lasaigarria. Beste askotan, aspergarria. Estresagarria ere izan daiteke eta beste batzuetan ez du inolako sentsaziorik transmititzen. Ez digu sentimendu berezirik eragiten. Barrez lehertzeko aukera ere eskaintzen digute telebista saio askok, eta nik horietako bat aipatu nahi dut oraingoan. Beharbada, beste askotan aipatu dut foro honetan saio hori, baina, oraingo astean momentu gogoangarriak eskaini ditu *El Intermedio*-k. Beste guztien artean desberdina da El Gran Wyomingek aurkezten duen programa. Arina, lotsagabea eta kritikoa, oso kritikoa oro har politikari guztiekin, elizarekin, Espainia aldeko zenbait irratiko kontserbadoreko esatari ospetsuekin... Ez da inorekin ezkontzen, eta horrek egiten du berezi. Euskaldunekin ere gupidarik gabe jokatzeko du Wyomingek, baina ziur naiz Euskal Herrian audientzia maila polita duela bere saioak. Gizon honek azken urteetan ez du zorte handirik izan telebistan, baina hamaika ahalegin ustelen ondoren asmatu du. Bejondeizula Wyoming jauna.

## arrasate irratia

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratua. Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian. Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**

10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albistegia  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Ibili munduan geltokia  
Elkarrizketak  
Lorategiaren geltokia  
Zozketak  
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 24**

13:15 Emisio hasiera. 13:15 Marrazki bizidunak. 13:45 Ur eta lur. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 16:15 Ikusten. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Ilunpean. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Magazinea. 20:30 Gure Saltsan. 21:00 Magazinea. 21:45 Solaskide. 22:15 Danbako. 23:45 Danbako 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 25**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak eta . 11:00 Ur eta lur. 11:30 Ikusmira. 12:00 Wase-mak. 12:30 Golb tb. 13:00 Eltze beroa-Gure saltsan. 14:30 Solaskide. 15:00 Erreportajea-Goitb. 16:00 Marrazki bizidunak. 18:15 Ilunpean. 18:45 Erreportajea-Ttipi TTapa. 19:15 Berbaire. 20:15 Golb tb. 20:45 Ikusten. 21:15 Ilunpean. 21:45 Solaskide. 22:15 Erreportajea-Goitb. 22:45 Danbako 23:45 Erloklip. 00:15 Emisio amaiera.

**Domeka, 26**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak eta . 11:00 Erloklip. 11:30 Perretxikoen mundua. 12:00 Ikusten. 12:30 Ikusmira. 13:00 Erreportajea-Goitb. 15:00 Solaskide. 16:00 Eltze beroa-Gure saltsan. 17:30 Marrazki bizidunak. 19:15 Erreportajea-Ttipi ttapa. 19:45 wasemak. 20:15 Musikantoi. 20:45 Solaskide. 21:15 Berbaire. 22:15 Erreportajea-Goitb. 23:15 Musikantoi. 23:45 28 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

**Astelehena, 27**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Itsasoari begira. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Mugaz kanpo. 15:45 Ttipi ttapako erreportajeak. 16:15 28 Klip. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:15 Danbako. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Blogtb. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Harmailatik. 22:15 Erreportajea. 23:00 Goiena Magazinea 23:45 Emisio amaiera.

**Martitzena, 28**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Ikusten. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Harmailatik. 15:45 Solaskide. 16:15 Itsasora begira. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak: Muka muka. 17:45 Ttipi Ttapako erreportajea. 18:15 Harmailatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Danbako. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Ilunpean. 22:30 Mugaz kanpo 23:00 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.

**Eguaztena, 29**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Ikusmira. 14:15 Gure saltsan. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Golb Tb. 16:15 28 Klip. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 17:45 Solaskide. 18:15 Ur eta lur. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Zaharrak berri. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Erreportajea. 22:30 Perretxikoen mundua. 23:00 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.

**Eguena, 30**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Perretxikoen mundua. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ikusmira. 15:45 Mugaz Kanpo. 16:15 Zaharrak berri. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazki bizidunak. 18:00 Erreportajea. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Goiena Magazinea. 20:30 Danbako. 21:00 Goiena Magazinea. 21:45 Berbaire. 22:45 Ttipi ttapako erreportajea. 23:15 Goiena Magazinea. 23:45 Emisio amaiera.





**Jose Zeziaga** eta **Maria Eugenia Mendiguren** arrasatearrak orain 50 urte ezkondu ziren Arantzazun. Urriaren 4an ospatu zituzten urrezko ezteiak Arantzazun bertan; meza entzun eta Zelai Zabal jatetxean bazkaria egin zuten. Zorionak, bikote!




Leintz Gatzagako **Ignazio Aranburuzabalak** eta Eskoriatzako **Teresita Fdz. de Arroiabek** 50 urte ezkondu beteko dituzte urriaren 30ean. Urrezko ezteiak urriaren 26an, Dorletan, ospatu dituzte. Familiaren partetik, zorionak!



**Anton Diaz** eta **Edurne Agirregabiria** oñatiarrak urriaren 25ean ezkonduko dira Olabarrieta auzoko elizan. Ondoren, Zelai Zabal jatetxean egingo dute bazkaria eta ezkon bidaian Argentinara joango dira. Familia eta lagun partetik, zorionak!



**Amaia Zeziaga Garmendia** eta **Jose Luis Sierra Carrera** arrasatearrek urriaren 8an 25 urte bete zituzten ezkondu. Ospakizuna bihar, zapatua, egingo dute. Etxeko eta lankideen partetik zorionak eta ondo pasa, bikote!



Arrasateko **Iban Velasco** eta **Susana Gomez** urriaren 25ean ezkonduko dira Dorletako Santutegian. Ondoren, ezte bidaian AEBetara eta Maia Erriberara joango dira. Zorionak, lagun partetik eta izan zoriontsuak, bikote!

### bono fotoa



## Leintz bailarako zein herritakoak dira eraikin hauek?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta.

# SUPER AMARA

Super Amarak emandako  
**60 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienako edozein egoitzara

### AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Arrasateko Jon Egidonendako izan da  
Euskal Selektzioaren zira. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Bergara



OROIGARRIA  
**Mikel  
Celaya Yarza**  
'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

*Zure umorea beti izango dugu gogoan.*



Olatzen lagunak.  
Oñatin, 2008ko urriaren 24an.

OROIGARRIA  
**Mikel  
Celaya Yarza**  
'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

*Betira arte, lankide.*



HJ Garay-ko lankideak.  
Oñatin, 2008ko urriaren 24an.

OROIGARRIA  
**Mikel  
Celaya Yarza**  
'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

*'Pintxe', zurekin pasatutako egun  
goxoak ez ditugu inoiz ahaztuko.  
Muxu haundi bat.*



Otamendiko lagunak.  
Oñatin, 2008ko urriaren 24an.

OROIGARRIA  
**Mikel  
Celaya Yarza**  
'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

*Alaitasuna zendun hitzetik hortzera  
poza banatzeko gure bihotzera*

*Mikel gure ispilu beti izan zera  
zure antzeko izaten saiatuko gara*



Koadrilakoak.  
Oñatin, 2008ko urriaren 24an.

OROIGARRIA  
**Mikel  
Celaya Yarza**  
'Pintxe'

Oñatin hil zen 2008ko urriaren 18an, 37 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko.  
Bihotz bihotzez*



Kalegoienako zure bizilagunak.  
Oñatin, 2008ko urriaren 24an.

ESKER ONA  
**Antonio  
Maiztegi Markuleta**

Donostian hil zen 2008ko urriaren 18an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno,  
eskerrik asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2008ko urriaren 24an.

**hildakoak**

- **Antonio Maiztegi Markuleta.** Bergaran, urriaren 18an. 87 urte.
- **Mikel Zelaia Iartza.** Oñatin, urriaren 18an. 37 urte.
- **Juan Manuel Maltras Rodriguez.** Eskoriatzan, urriaren 19an. 46 urte.
- **Crispin Ibañeta Otxoa.** Oñatin, urriaren 20an. 90 urte.
- **Pilar del Valle Urionabarrenetxea.** Arrasaten, urriaren 20an. 71 urte.
- **Iñigo Irureta Irureta.** Bergaran, urriaren 21ean.
- **Jose Mari Odriozola Odriozola.** Oñatin, urriaren 21ean. 67 urte.
- **Antonio Urrutia Zelaia.** Oñatin, urriaren 22an. 81 urte.
- **Mariano Molpeceres Gartzia.** Bergaran, urriaren 22an. 85 urte.

URTEURRENA  
**Juanito  
Maiztegi Arabaolaza**

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, urriaren 25ean,  
19:00etan, Oñatiko  
Mikel Goiaingeruaren parrokiari.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA  
**Pablo  
Aiausti Madina**

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, urriaren 25ean,  
19:00etan, Oñatiko  
Mikel Goiaingeruaren parrokiari.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

**ESKELAK**

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu,  
deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:  
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkari batara, eguazten eguerdia baino lehen:

**Arrasate**

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.  
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn,  
bietan, argitaratuz gero, **120 euro.**

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 90 euro**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn,  
bietan, argitaratuz gero, **110 euro.**

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)**

URTEURRENA

**Manuel  
Aizpurua Mancisidor**

Lehen urteurreneko meza  
domekan, urriaren 26an,  
11:50ean Aretxabaletako  
Jasokunde Amaren parrokiari.




Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Maria Carmen  
Zengotitabengoa Mendigutxia**

Bigarren urteurreneko meza  
martitzenean, urriaren 28an,  
19:00etan Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

**Pedro Ignacio  
Maiztegi Etxabe**

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, urriaren 25ean,  
19:00etan, Oñatiko  
Mikel Goiaingeruaren parrokiari.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldeztatik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

**Euskalduna**

**Hileta Zerbitzuak**

Beilatokia  
Etengabeko zerbitzua  
Lore koroak  
Eskelak  
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99  
e-posta: euskalduna@harrespil.net





# Urriak 24-30

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

## Musika



BERGARA

### > Michael Schenker Group taldeak kontzertua egingo du Jam aretoan

Michael Schenker musikariak –UFO taldeko sortzaile izateagatik ezaguna, besteak beste– emanaldia egingo du datorren egubakoitzean, hilak 31, Jamen, 21:00etan. Sarrerak salgai daude ohiko lekuetan 30 eurotan.

## Musika



ARRASATE

### > The Antioch Chamber Ensemble abesbatzak kontzertua egingo du

New Yorkeko The Antioch Chamber Ensemble taldeak emanaldia egingo du etzi, domeka, San Juan parrokian, 20:00etan, Goikobalu abesbatzak gonbidatuta. Tolosako Nazioarteko Abesbatzen lehiaketan parte hartuko du talde hark.

## Musika



ELGETA

### > Punk-oi estiloko kontzertua egingo dute lau taldek Espaloia antzokian

Punk-oi kontzertua ikusteko aukera izango da bihar, zapatua, Espaloia antzokian, 22:30ean, Ostiada Oi! taldearen 10. urteurrenean. Arrasateko Never Surrender eta Enboscada eta Goierriko Hell Beer Boys taldeek ere joko dute.

Lehiakide bakoitzak hiru lan aurkez ditzake, gehienez, Zuiako Koadrilako herrietako liburutegietan, udaletxeetan edo Koadrilako bulegoetan. Kategoria bakoitzeko hiru sari daude: 150, 100 eta 60 euro.

Argibide gehiago dago [www.cuadrillazuia.com](http://www.cuadrillazuia.com) webgunean.

Mugaeguna: abenduak 5.

## Musika

BERGARA

### > Ganbara Abesbatza eta Alize Mendizabal organo jolea

Oñatiko Ganbara Abesbatza eta Alize Mendizabal organo jotzailea zuzenean entzuteko aukera izango da, Nazioarteko Organo Erromantikoaren Zikloaren barruan. Esteban Urtzelaik zuzenduko du abesbatza.

Bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.

BERGARA

### > Disko-jartzaileen emanaldiak izango dira Ziripot tabernan

Honako DJen emanaldiak izango dira: Balza KPK (gaur, egubakoitza) eta Pablo Akaros & Alkate (bihar, zapatua).

Emanaldiak 23:00etan hasiko dira.

ARRASATE

### > The Maharajas taldeak kontzertua egingo du

The Maharajas taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, *In Pure Spite* (Bloody Hotsak) diskoa aurkezteko. Talde beterrano horrek bi irudi handi ditu gaur egun: Mathias, bere ahots kementsuarekin, eta Jens Lindberg, 60ko garra bizirauten. *In Pure Spite* euren laugarren diskoa da, eta hor, erakusten dute garaje-rock etiketa txiki geratu zaiela eta benetako rock-and-roll talde bat direla.

Los Cretinos talde arrasatearrak ere joko du.

Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan.

ARRASATE

### > Far from Finished, Des-kontrol eta Disorders taldeak

Boston hiriko (AEB) Far from Finished taldeak kontzertua egingo du 3.60 aretoan. Punk-rock talde horrek *Living in the fallout* diskoa aurkeztuko du. Des-kontrol eta Disorders taldeek ere joko dute.

Bihar, zapatua, 3.60an, 22:00etan.

## Ospakizunak

ARAMAIO

### > Erretiratuen Eguneko azoka egingo dute bihar, zapatua

Erretiratuen Eguneko azokak berritasunak izango ditu aurten: animaliak ere

## Antzerkia

ELGETA

### > Pailazoan emanaldia izango da etzi, domeka, Espaloian

Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazo taldeak emanaldia egingo du etzi, domeka. Udalak antolatutako emanaldia da.

Etzi, domeka, Espaloian, 17:30ean.

ARETXABALETA

### > 'Zapatos' antzezlanaren egingo dute bi egunetan

Charo Gallego aretxabaletarrak parte hartzen duen 2zapatos Madrilgo antzerki taldeak *Zapatos* delako antzezlanaren egingo du gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua. Egunero bizi irauteko, gauza baliotsu bila zapata biltegi baten ibiltzen diren Dora eta Nicolas dira protagonistak. Bizimodu latz hori ustekabeko pozarekin hartzen dutela erakutsiko digute. Sarrera 10 euro da.

Gaur, egubakoitza, 22:00etan, eta bihar, zapatua, 19:00etan.

ARRASATE

### > Umeendako ipuin kontaketa saioa egongo da

Txatxilipurdi elkarteak antolatuta, umeendako ipuin kontaketa saioa egongo da egunean.

Hilaren 30ean, Okendoko ludotekan, 18:00etan.

## Erakusketak

ELGETA

### > 'Libelandula' marrazki eta poema erakusketa

Maite del Rey eta Maider Zubillagak prestatutako *Libelandula* delako erakusketa dago ikusgai Espaloia antzokian. Eurek egindako marrazkiek eta poesia lanek osatzen dute.

Urri osoan dago ikusgai.

OÑATI

### > Corpus prozesioko irudien erakusketako azken egunak

Corpuseko prozesioko irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek.

Parrokian daude ikusgai, honako ordutegian: zapatuetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegunetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30.

Etzi, domeka, da bisitatzeko azken eguna.

BERGARA

### > Mari Paz Alustizaren margolan erakusketa, Aroztegin

Mari Paz Alustizak hainbat margolan jarriko ditu erakusketan Aroztegi aretoan. Azaroaren 2a arte egongo da zabalik.

Martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; domeketan: 12:00-14:00.

ARRASATE

### > San Josepe harrobiaren ideien lehiaketako lanak, ikusgai

San Josepe harrobi zaharra biziberritzeko ideien lehiaketara aurkeztutako lanak jendaurrean ipiniko dituzte Kulturaten.

Azaroaren 9a arte.

## Lehiaketak

BERGARA

### > Film laburren lehiaketa deitu dute debagoiendarrendako

III. Film Laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udalak. Debagoienera bizi den edozein aurkez daiteke, bakarka edo taldeka, eta edozein hizkuntzatan. Gaia librea da eta film laburra, bideo-klipa, iragarkia, irudi muntaia, esketxa, dokumentala, arte bideoa... edozein genero landu daiteke.

PROPOSAMENA

LEINTZ GATZAGA

### > Dorletako Amaren koroatzearen 50. urtemuga, etzi

Txirrindularien zaindaria Dorletako Ama Birjinen koroatzearen mendeurren erdia da etzi, domeka, urriak 26. Hori dela eta, hainbat ospakizun egingo dituzte Euskal Herri osoko txirrindulariek: 11:00etan, zaleak eta fededunak batuko dira santutegi aurrean; 11:30ean, bertsoari agirra eta Eskoriatzako Txistularien agurra; eta 12:00etan, meza Dorletako santutegian.

Etzi, domeka, 11:00etan hasita, Dorletako santutegian.





ipiniko dituzte, kultur etxe pareko parkean. Denak Aramaioko baserrietakoak izango dira. Horrez gain, ohi bezala, barazkiak, frutak, loreak, eztea, sagardoa... ere izango dira.

Bihar, zapatua, Nardeaga kalean eta kultur etxe parean, goiz osoan.

## Bestelakoak

**OÑATI**  
**> Futbolin txapelketako sariak banatuko dituzte gaur**

Joan den egubakoitzeko futbolin txapelketako sariak banatuko dituzte gaur, egubakoitza. Luntxa ere izango da. Gaztelekuko Topalekuan, 18:00etan.

**ELGETA**  
**> 'Euskal paisaiak eta euskal herritarrek' ikus-entzunezkoa**

*Euskal paisaiak eta euskal herritarrek* delako ikus-entzunezkoa aurkeztuko du Ander Izagirrek. Udalak antolatutako emanaldia da. Eguenean, hilak 30, Espaloia antzokian, 21:30ean.

**ARRASATE**  
**> II. Historia eta Zinema jardunaldietako film emanaldia**

Arizmendi ikastolak antolatutako Historia eta Zinema bigarren jardunaldiako bigarren filma emango dute martitzenean: *Tierra y Libertad* (Ken Loach, 1994). Gero, Arizmendi ikastolako Jon Ander Ramos Martinez irakasleak hitzaldia egingo du. Urriaren 28an, martitzena, Kulturateko areto nagusian, 18:00etan.

**ARETXABALETA**  
**> Broad Peak mendiaren gaineko ikus-entzunezkoa**

*Espedizioa. Broad Peak mendia* delako ikus-entzunezkoa emango du Iban Zirizak datorren eguenean, hilak 30. Eguenean, kultura etxean, 19:30ean.

**BERGARA**  
**> 'Irakurpuntu' delako tailerra, gaur liburutegian**

*Liburutegiak topaleku* delako kanpainarekin bat egin du Bergarako liburutegiak. Horren barruan, gaur, Udal Liburutegien Eguna, *Irakurpuntu* delako tailerra izango da han, haur liburutegian. 6-10 urte arteko umeei norbere izena hainbat hizkuntza eta grafiatan idazteko aukera izango du. Gaur, egubakoitza, haur liburutegian, 17:00etatik 19:30era.

**OÑATI**  
**> Gaztetxearen inaugurazio hamabostaldia hasiko dute**

Gaztetxea inauguratzeko, honako ekintzak izango dituzte aste bukaeran: gaur, egubakoitza, bideo emanaldia (18:30), afaria (21:00) eta kantaldia eta jolasak (22:00); eta bihar, zapatua, eztabaida (11:00), bazkaria (13:30), mahai-ingurua (15:15), kontzertua (18:00) eta afaria (21:00). Hurrengo egunetan, ekintza gehiago izango dira. Bazkariak eta afariak, 2 euro.



## Quemar después de leer \*\*

Zuzendariak: Ethan eta Joel Coen.  
 Aktoreak: George Clooney, Frances McDormand, John Malkovich.  
 AEB, 2008. 96 min.

Denbora gutxian, Coen anaien bi lan nahiko desberdin heldu zaizkigu: *No es país para viejos* thriller eta zinema beltzean oinarritzen bazen, oraingoan, *Quemar después de leer*-ekin komediara jo dute, eta emaitza nahiko eskasa da. Coenen zinemaren umoreak garrantzi handia du, ironia ondo erabiltzen dute, baina horrela gertatzen da filma komedia hutsa ez denean: *Sangre fácil*, *Fargo* edo *Muerte entre las flores* thrillerrak badira, badute barrutik ateratzen den kutsu komikoa eta esperpentikoa. Komedia egiten dutenean oso ondo erabilitako tonu hori galdu egiten dute, *O brother, Crueldad intolerable* edo *Quemar después de leer*-en kasuan bezala. Originalak eta oso dibertigarriak izan nahi dute eta bidean galtzen dira.

*Quemar después de leer* espioien munduan kokatzen den komedia eroa eta parodikoa da. Filmak oso denbora gutxian eta gutxi landutako gidoia ematen du. Bada, kit pertsonaiak parodikoak direla, baina parodia generoan murgilduz gero, *gag*-ak eta alde komikoko oso landuak egon behar dute, eta ez da horrelakorik gertatzen. Pertsonaiak arketipikoak dira, pintzelkada baten definituak daude eta behin eta berriz efektu komiko gisa pintzelkada hori errepikatzen da, ezer gehiago eskaini gabe. Esanda koaren adibide argi Frances McDormand-ek egiten duen pertsonaia daukagu: beti aipatzen dihardu egin nahi duen kirurgia estetiko. Bada, gauza bera gertatzen da pertsonaia gehienekin. Eta film baten argumentuak garrantzi handia ez badu, bakarrik momentu komikoko indartzeko badago, eta momentu horiek azkenean grazia mugatutakoak direnean, emaitza dezepzionarioa da. Hori bai, Coenen jarraitzaile amorratuak edo *O Brother* edo *Crueldad intolerable*-rekin gozatu dutenak pozik aterako dira.

Antonio Zabala

# Zinema

## ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

**Dejad de quererme**  
 Egubakoitza: 22:00.  
 Zapatua eta domeka: 19:30.  
**Wall-E**  
 Zapatua eta dom.: 17:00.

## ELGETA ESPALOIA

**Leonard Cohen: I'm your man**  
 Eguaztrena: 21:30.

## OÑATI KULTURA ETXEA

**Che, el argentino**  
 Egubakoitza eta zapatua: 22:30.  
 Domeka: 19:30, 22:30.  
**Star wars: la guerra de los clones**  
 Zapatua eta dom.: 17:00.

## GASTEIZ GURIDI

**Vicky Cristina Barcelona**  
 Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.  
 Zapatua eta domeka: 16:30, 20:40, 22:30.  
**Mamma mia!**  
 17:30.

**High School Musical 3**  
 Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.  
 Zapatua eta domeka: 16:25, 18:30, 20:35, 22:40.

**Transsiberian**  
 17:30, 20:00, 22:30.

**Noches de tormenta**  
 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**Diario de una ninfómana**  
 20:00, 22:30.

**Sangre de mayo**  
 Egubakoitza: 17:00.

**El reino prohibido**  
 Egubakoitza: 20:00.  
 Zapatua eta domeka: 17:30, 20:00.

**Los girasoles ciegos**  
 22:30.

**Quemar después de leer**  
 Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.

Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

**FLORIDA-GURIDI**  
**El cuerno de la abundancia**  
 18:00, 20:15, 22:30.

**El nido vacío**  
 18:00, 20:15, 22:30.

**El niño con el pijama de rayas**  
 Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.

Zapatua eta domeka: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Los años desnudos**  
 17:30, 20:00, 22:30.

**The women**  
 17:30, 20:00, 22:30.

**Happy, un cuento sobre la felicidad**  
 17:30, 22:30.

**Los limoneros**  
 20:00.

**Camino**  
 Egubakoitza: 18:00, 21:00.

Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

**YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

**High School Musical 3**  
 12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Asesinato justo**  
 12:15, 16:00, 17:55.

**Che, el argentino**  
 19:30, 22:00, 00:30.

**Reflejos**  
 12:15, 15:30, 17:30.

**Noches de tormenta**  
 12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Viaje al centro de la Tierra**  
 12:15, 16:10, 18:10.



Arrasaten emango dute oraingo aste bukaeran *Dejad de quererme* filma.

## Dejad de quererme

Frantzia, 2008. Zuzendariak: Jean Becker. Aktoreak: Albert Dupontel, Marie-Josée Croze, Pierre Vanneck. 85 min. 13 urtetik gorakoendako. Antoine 42 urteko publizitategilea da. Ezkonduta dago, bi seme-alaba ditu, Paristik gertu bizi da etxe eder baten eta neska-laguna ere badauka. Halako baten, baina, lanean hanka sartzen du. Hortik aurrera, bizitzan lortu duen dena suntsitzen hasiko da.

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

## Camino \*\*\*

Espainia, 2008. Zuzendariak: Javier Fesser. Aktoreak: Nerea Camacho, Carmen Elias. Benetako gertakizun baten oinarritutako film horrek 11 urteko Camino neskatzairen istorioa kontatzen du. Hilozorian dago eta, era berean, maintemindua egiten da.

## Quemar después de leer \*\*

AEB, 2008. Zuzendariak: Joel eta Ethan Coen. Aktoreak: George Clooney, Frances McDormand, John Malkovich, Tilda Swinton. 96 min. Cox agentea bota egin dute CIAtik. Gainera, emaitza tranpetan ari zatzaio. Hiriarren beste puntan, Lindak zirugia plastikoa egin nahi du, eta Chad lankideari kontatzen dio. Cox-ek gordetako informazio disko bat topatzen dute biekin...

## Los años desnudos

Espainia, 2008. Zuzendariak: Dunia Ayaso eta Félix Sabroso. Aktoreak: Candela Peña, Goya Toledo, Mar Flores.

105 min. 18 urtetik gorakoendako. Madrid, 1975. 30 urte inguruko hiru emakume zinema egiten hasten dira. Espainian 1976 eta 1983 urte artean ekoiztu zen 5 delako zinemaren bukatuko dute, biluzien zinema, hain zuzen ere.

## Transsiberian

Espainia-Alemania-Erresuma Batua-Lituanian, 2008. Zuzendariak: Brad Anderson. Aktoreak: Woody Harrelson, Emily Mortimer, Kate Mara, Eduardo Noriega. 111 min. Transsiberian luxuzko trenean, bi bikote elkar ezagutzen dute: Roy eta Jessiek, eta Carlos eta Abbyk. Halako baten, Roy desagertu egiten da. Haren emaitza konturatzeko hasten da beste bikotea ez dela begi bistan ematen zuena.

## Noche de tormenta

AEB, 2008. Zuzendariak: George C. Wolfe. Aktoreak: Richard Gere, Diane Lane, Christopher Meloni. 97 min.

**Transsiberian**  
 12:15, 15:35, 17:50, 20:05, 22:20, 00:35.

**Quemar después de leer**  
 15:45, 17:45, 19:45, 21:45, 23:45.

**El cuerno de la abundancia**  
 12:15, 16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

**El niño con el pijama de rayas**  
 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**El gurú del buen rollo**  
 12:15, 16:35, 18:30, 20:25, 22:20, 00:15.

**Max Payne**  
 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

**La conspiración del pánico**  
 20:05, 22:15, 00:20.

**Camino**  
 19:20, 22:05.

**Wall-E**  
 12:15.

**Diario de una ninfómana**  
 19:50, 21:55, 00:00.

**El reino prohibido**  
 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**The women**  
 20:10, 22:15, 00:20.

**Mamma mia!**  
 12:15, 16:25.

**El espíritu del bosque**  
 12:15, 16:35.

**Una conejita en el campus**  
 12:15, 15:40, 17:30.

**Space chimps**  
 12:15, 16:30.

**La carrera de la muerte**  
 12:15, 16:05, 18:05, Gaurdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan.

## ÁBACO BOULEVARD

**El reino prohibido**  
 15:50, 18:05, 20:30, 22:45, 01:00.

**High School Musical 3**  
 15:50, 17:00, 18:10, 19:30, 20:30, 22:00, 22:45, 01:00.

**El niño con el pijama a rayas**  
 16:05, 18:00, 20:00, 22:00.

**El gurú del buen rollo**  
 16:20, 18:20, 20:25, 22:20, 00:30.

**Transsiberian**  
 15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**Noches de tormenta**  
 16:00, 18:20, 20:20, 22:30, 00:45.

**Max Payne**  
 16:00, 18:05, 20:15, 22:25, 00:30.

**Una conejita en el campus**  
 16:10, 18:15.

**Diario de una ninfómana**  
 20:25, 22:40, 00:45.

**La carrera de la muerte**  
 15:50, 18:00.

**La conspiración del pánico**  
 20:20, 22:40.

**Reflejos**  
 20:25, 22:45.

**Quemar después de leer**  
 16:10, 18:15, 20:20, 22:30.

**Santos**  
 00:30.

**Asesinato justo**  
 16:05, 18:20.

Gaurdiko saioak, egubakoitza eta zapatuan.

## nire aukera



**Fernando Zuaza**  
 HHEn irakaslea  
 Bergara

## "Mendian ibiltzea gustuko dut"

Familiarekin ematen dut asteburua, seme-alabekin. Beraien bizimodura egokitzen saiatzen naiz eta askotan mendian ibiltzen gara paseatzen. Durangaldeko mendietara joaten gara normalean. Domeketan, gurasoak bisitatzen gara joaten naiz eta herriatik bueltatzeko bat ere egiten du.

Nire zaletasuna praktikatzeke ere erabiltzen ditut bi egun hauek. Irakurtzea, adibidez asko gustatzen zait; orain, Ruiz Zafonen liburua batekin nabil. Aukeratu izango banu, egiten dudana egiten jarraituko nuke; gustura bizi naiz horrela.

## Durangokoa izan arren, Bergaran zabilta lanean.

Bergaran bizi naiz eta hementxe egiten dut lan; baina, nire herrikoa den Sarrionandiak zihoen bezala, "ni ez naiz hemengo". Bergaran bizi arren, Durangokoa izaten jarraitzen dut nik.

## Zer moduz hasi duzue ikasturtea Helduentzako Eskolan?

Oso ondo. Nik Bigarren Hezkuntza (DBH) ematen dut, eta jende nahiko apuntatu da. 18 urte ingurukoak daude, baina baita 40koak ere. Nahasketa polita dela iruditzen zait, eta giro ona dago guztion artean.

## Betidantik izan duzu gustuko irakaskuntza mundua?

25 urte daramatzat mundu honetan, eta gustura nago. Beste lan eremu batzuk ezagutu ditut, baina irakaskuntza dut gustukoan.

## Irakaskuntzaz aparteko zaletasunik?

Irakurtzea gustatzen zait, baita mendia ere eta lagunekin iretetea. Musika ona gustuko dut, Van Morrison asko entzuten dut.

## Zergatik animatuko zenuke jendea ikasketak berreskuratzen?

Ezagupenek poztasun handiena eman dezaketela deskubritu dezaten.



# Debagoienetik Patagoniara

**LEHIAKETA** Patagonian grabatuko dute 'El conquistador del fin del mundo' telebistako saioa abendura bitartean

**IBARRETIK** Partaideen artean daude Maite Iturraran, Eneko Muguruza eta Ahinara Zubizarreta debagoiendarrak

**HOTZA ETA GOSEA** Kirolariak direnez, gertu daude probetarako baina goseari eta hotzari diote beldur handiena

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA  
Laster hasiko dira *El conquistador del fin del mundo* telebistako lehiaketa Argentinan grabatzen eta lehiakideen artean dira Arrasateko Maite Iturraran, Bergarako Eneko Muguruza eta Eskoriazako Ahinara Zubizarreta.

Eguenean atera ziren Argentinara bidaian, eta "urduri baina joateko gogoz" zela esan zigun Eneko Muguruza. Amaierara arte iraunez gero, abenduan bueltatuko dira. Saioa ematen, berriz, urtarrilean hasiko dira ETBn.

Saioa koadrilakoekin ikusten zuen Muguruza lokalean eta, berez, mutil animatua izanik, aurreko edizioan ere bidali zuen e-maila parte hartzeko, baina ez zioten deitu; oraingoan bai, orde. Maite Iturraranez aurreko ediziozko azken saioa ikusten zegoela pentsatu zuen aurkeztea: "Kirolzalea eta abenturazalea naiz eta telebista oso gustuko dut. Aurrez, ETBn *Wazemank*-en eta *Pilotari*-n egin ditut lantxoak, eta *Noaua*-ko iragarrian ere hartu dut parte".

Biak kirolariak izanik, prestatuntza berezirik ez dute egin: "Kontua da han jatekorik gabe ea gorputzak nola erantzuten duen; muturreko egoeretan buruak indar handiagoa du", dio Muguruza. Goseak kezkatzen du, batik bat, Iturraran bezala: "Proba gogorak dira eta gosea eta hotza pasatuko dut, baina halako gogoarekin noanez, aurre egiteko gai izango naiz", dio.

#### DEBAGOIENDARREN PAKTUA?

Ez dute helburu zehatzik, baina ahalik eta aurrean iristea da euren nahia. Horretarako elkarbizitza ona da gakoa. Elkarren berri ez badute ere, "entzun dut Debagoienetik badoazela besteren batzuk eta, talde berean tokatuz gero, debagoiendarren arteko paktua egin beharko dugu", dio, barrez, Muguruza.

Debagoiena mundu zabalera begira, urtarriletik aurrera debagoiendar asko pantaila txikiari begirik kendu barik. Zeinek konstatatu du munduko azken lurturra? Eta debagoiendarrak?



ARGENTINA Eguenean abiatu ziren Maite Iturraran eta Eneko Muguruza Argentinara.

IRATI AGIRREAZALDEGI/MIKEL SAIZ

### ahobero

"Ez dakit klima aldaketarik dagoen erabakigarria dena -edo ez- gizakiaren eragina"

Jose Maria Aznar >  
FAES Fundazioko presidentea

Jose Maria Aznar bera al dira Kyotoko protokoloa sinatu zuena eta orain aldaketa klimatikorik ba ote dagoen zalantzan jartzen duena? Klima aldaketarik ez dagoela uste badu, zertarako sinatu ez dagoen zerbaiti aurre egiteko neurririk?

### iturri onetik

**Aitor Lopez Rekartek Donostiako Berio futbol taldearekin entrenatzen dihardu**

Union Deportiva Almerian 2007an jokatu ostean, taldearekin kontratua eten zuen iraillean Aitor Lopez Rekarte *Bonba* futbolariak. Orain Donostiako Berio taldearekin entrenatzen dihardu. 1994tik 1997ra bitartean Real Sociedad B taldean jokatu ostean, 1997tik 2007ra artean Real Sociedad-eko lehen mailako taldean ibili zen eta orduan sortu zen bere izena zeraman peña ere: *Bonba* taldie.

### piperrautsa

Mikel Irizar > [www.goiena.net/blogak/piperrautsa](http://www.goiena.net/blogak/piperrautsa)

## Distantzian hurbil

Esan daiteke etorkizunaren aurretik ibili zela Uned, urrundik ikasteko aukera eskaini zuenean. Internet eta ordenagailuak sortu baino askoz lehenago, Franco bera artean bizi zelarik sortu zen erakundea, 1973an. Besterik ezean, posta fisikoa zen lanerako kanala.

Bergaran kokatu zuen Euskal Herrirako zentroa UNEDek, plazako Seminarioan. Nik EGA azterketa prestatzeko bakarrik erabili dut, baina irudipena daukat askori eman diela bestela izango ez zuten aukera, unibertsitate ikasketak erdiesteko. Horregatik bakarrik, errespetu handia merezi du. Hori gutxi ez, eta ahalegin nabarmenak ere egiten dihardu hurbilekoari atxikitzeko.

Gaur hasten du ikasturte berria Bergaran distantzian hurbil ageri den ikastetxeak. Urte berri on!

### ai, ene!



**Segurtasun neurriak seguruak ote?**

Azkenaldian gurean lapurretan dabilzan kontua entzun dugu, ez dakiguna da horrelako segurtasun neurriekin ezer lor daitekeen.

[www.todohumor.com](http://www.todohumor.com)

**TOYOTA** MUNDUKO LEHEN AUTO-EKOIZLEA BADA, ETA GAINERA KALITATEAN ETA IRAUNKORTASUNEAN LIDERRAK...

KOTXEZ ALDATZEKO ASMOA DUZU, AURRETIK

**TOYOTA** -TIK PASATU GABE?

GEHIAGO NAHI AL DUZU?

- **TOYOTA AUKERA.** 2 edo 3 urte dituzu autoa zuretzako izatea nahi duzun, aldatu nahi duzun, edo itzuli nahi duzun erabakitzeko.
- **TOYOTA CREDIT.** Lehentasunezko baldintzekin finantzazioa.
- **TOYOTA LEASING-RENTING.** • **TOYOTA ASEGURUAK.**



**AURREZTU ITZAZU 5.000€ HILABETE HONETAKO PROMOZIOEKIN**

Baliatu gure stock likidazioaz. **AZKEN UNITATEAK!**

AVENSIS SEDAN 1.8 ..... 4 Unitate  
AURIS 1.4 ..... 3 Unitate  
COROLLA VERSO ..... 2 Unitate

### EuskoAuto

- ▶ **BERGARA:** Olabarrena z/b. Tel.: 943 762 385
- ▶ **OLABERRIA:** Iurre auzoa, Karabi poligonoa. Tel.: 943 805 926
- ▶ **ELGOIBAR:** Olaso poligonoa, 25. Tel.: 943 747 417
- ▶ **PASAIA:** San Markos errepidea, 32. Tel.: 902 345 245

TODAY TOMORROW **TOYOTA**  
[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)

